

TXOSTENA
IXOSTILNA

10

EMAKUMEEN

GIZARTE-PAPERAK

IZAN DITUEN ALDAKETAK.

EUSKADIKO GARAPEN-EGOERARI

BURUZKO AZTERKETA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EMAKUMEEN
GIZARTE-PAPERAK
IZAN DITUEN ALDAKETAK.
EUSKADIKO GARAPEN-EGOERARI
BURUZKO AZTERKETA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1995

IZENBURUA	"Emakumeen gizarte-paperak izan dituen aldaketak. Euskadiko garapen-egoerari buruzko azterketa"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea C/ Manuel Iradier, 36. 01005 - Vitoria-Gasteiz
KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Azaroa 1995
ORRI ZENBAKIA:	208
DESKRIPTOREAK:	Emakumeen gizarte-egoera, sexu paperak, etxeko lana, famili harremanak, lana, astialdia
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
FOTOKONPOSATZAILEA:	RALI, S.A. c/ Particular de Costa, 8-12. 48010 Bilbao
INPRIMATZAILEA:	Gráficas Santamaria, S.A. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-87595-39-1
LEGE GORDAILUA:	VI-476-95

AURKIBIDEA

	Págs.
AURKEZPENA	5
SARRERA ETA METODOLOGIA	9
1. BILAKAERA FEMENINOA	13
1.1. Emakumeen autopertzepzioa bilakaera femeninoaz	16
1.2. Gizonezkoen iritzia bilakaera femeninoari buruz	26
1.3. Baloreak eta jenero balorazioak	32
1.4. Bilakaera femeninoaren erreferente sozialak	40
2. EMAKUMEAK ETA ETXEKO EREMUA	43
2.1. Emakumeak eta etxeko lanak “garbiketa”	50
2.2. Emakumeak eta amatasuna	58
2.3. Emakumeak eta ezkon-harremanak	67
3. EMAKUMEAK ETA LAN EREMUA	73
3.1. Lan munduaren pertzepzioa eta balorazioa	75
3.2. Belaunaldien arteko analisia: eboluzioa	77
3.2.1. Gizartearen eboluzioa	77
3.2.2. Emakumeen eboluzioa belaunaldiz belaunaldi	79
3.3. Gatazka egoerak	81
3.3.1. Amatasuna	82
3.3.2. Balore sistema	84
3.3.3. Emakumeen jarrera	86
3.4. Gizonak emakumeen lanaren aurrean	87
4. EMAKUMEAK ETA ASTIALDIETAKO EREMUA	89
4.1. Astialdiaren pertzepzioa eta balorazioa	91
4.2. Belaunaldiarteko analisia	93
4.3. Gatazka egoerak	96
4.4. Gizonak emakumeen astialdiaren aurrean	98
5. LABURPENA	99



AURKEZPENA

E MAKUNDE Erakundeak, berau sortu zuen Legean jasotako eginkizunei jarraiki urtero txosten bat egiten du Euskadin emakumeek duten egoerari buruz. Aurreneko urteetan txostenaren xedea emakumeak gizarte-eremu ezberdinetan zuen parte-hartzeari buruzko argibide kuantitatiboen berri ematea izan zen batez ere. Hala ere, aipatutako txostenean aurretik eginiko sektorekako ikerketa ezberdinetan aztertutako eremuei buruzko eritzi batzuk ere jaso izan ziren.

Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako 1991-94rako Ekintza Positiboko Planaren indarraldia bukatu zenez gero, ale berezi batean argitaratuko den Txosten kualitatiborako egindako ikerketa ez ezik, ikerketa kualitatiboa ere burutu zen. Aipaturiko bi ikerketa mota horietan, Planaren betetze-maila neurteez gain, emakumeek gizarte-eremu ezberdinetan (hezkuntzan, kulturen, lan-merkatuan, etab.) duten parte-hartze mailaren eta bilakaeraren deskribapen zehatzena lortu nahi izan da. Baina txostenak bilakaeraren deskribapen soil bat ez ezik, emakumeek eta gizonezkoek bilakaera hori nola ikusten duten jasotzea izan du helburu. Ikerketa kualitatibo horren emaitzak aldizkari honetan agertzen dira, ikuspuntu berri bat ekartzen dutelakoan baikara.

Ikerketak egiteko ikuspuntu kualitatiboa erabiltzea aurrerakuntza garrantzitsua da, horri esker emakumeek beren egoerari buruz duten eritzia zuzenean adierazten baitute, garrantzitsu deritzen gaiak zehazten dituzte, eta bizitzea tokatu zaien denbora eta ingurugiroaz dituzten gogoetak islatzeko era aurkitu dute. Gogoeta guzti hauek bideratzeko hedabidea izan nahi du ikerketa-ikuspegi berri horrek, emakumeen sentimendu, jarrera eta kezak sakonki aztertzerik badagoela frogatzeko.


Argi da Euskadiko emakumeen egoera aztertzerakoan errealitate anitz eta konplexua aurkituko dugula, emakume ezberdinak egoera ezberdinetan daudela ikusirik.

Ezberdintasun hauek nolabaiteko sailkapena egitera bultzatu gaitu, sailkapena, artifizial xamarra bada ere, behar beharrezkoa delako emakumeen egoera pertsonala eta beraien gizarte-ingurugiroa zehazki eta koherenteki aztertu nahi bada. Sailkapen horretan jaso diren egoerak belaunaldi ezberdinen ikuspuntuen arabera aztertu dira, belaunaldi bakoitzak familiaren barnean eta gizartean gertatutako aldaketak era ezberdinetan bizi bait ditu.

Era berean, ikerketa honek garrantzi handia eman dio gizonezkoek aldakuntza guzti hauei buruz duten eritzia jasotzeari, baita aldaketa horiek nola bizi dituzten aztertzeari ere, gizonezkoengan aldaketak zein maila arte borondatez edo gogoz kontrakoak gertatu diren jakiteko.

Ikerketa ezberdinen emaitzen arabera, emakumezkoen eta gizonezkoen bilakaera-eritmoen artean desfasea dago. Dirudienez, emakumeei dagokie erdiespenak gauzatzeko gogor lan egitea. Gehienetan ez dute inongo laguntzarik aurkitzen beren ingurugiroan erdiespen horiek lortzeko, ez gizonezkoengan ez etxekoengan edo lagunengan ere. Azken finean, emakumeak dira beren bilakaera aurrera bultzatzen dutenak.

Lehen aipatutako ikerketa horrek emakumeek aldaketa hauek nola bizi dituzten ezagutarazteko balio izan du, beren egoera nola bizi duten jakiteko, beren bizitzarekiko jarrera ezagutzeko eta eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten motibazioak eta oztopoak ezagutzeko. Politika eta jarduketak berriak egiterakoan hauek gizarte egoerari egokitzea eta kultura ezberdintasun handienak dauden arloetan eraginkorrak izatea baldin bada helburua, aipatutako ikerketaren bidez lortutako ezagutza horiek oinarritzat hartu beharko dira.



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

S

**SARRERA
ETA
METODOLOGIA**

HONAKO txosten hau, Kualitate Lantaldeak Emakunde Erakundearentzat prestatua, iritzi-azterlan batean oinarritzen da. Ikerketa hau egitera bultzatu zuen funtsezko helburua izan zen emakumeek Euskal Autonomi Elkartearen bizi duten egoera hobeki ezagutzea; garapen soziala eta pertsonala; prozesu honi eman zaion garrantzia, zailtasunak, alde positiboak eta negatiboak, e.a.

Azterlan honi bere norabidea eman dion elementua konparaketa izan da, berau delarik analisia burutzeko lan hipotesia. Adina, berez, ez da aldagai erabakigarria, baina bai ordea, baldintzen eta bizipenen faktore adierazlea; beste alde batetik, emakumeen bilakaera ez dago ulertzerik belaunaldi bakoitzak lortu dituen lorpenak aipatu gabe. Belaunaldien arteko ikuspegiak aukera ematen digu bilakabide hori ulertzeko eta horietako bakoitza zein momentutan dagoen jakiteko.

Emakumeen egoera E.A.E.an hain da gai zabala, hainbeste errealitate daude hor elkarrekin loturik, non ezinbestekoa baita azterketaren gaia mugatzea, nolabaiteko zorrotasunez sakondu nahi bada. Alde horretatik lehentasuna eman zaie emakumeen bizipenen munduan hagitik adierazgarriak diren hiru arlo hauei: **etxeko esparruari, laneko esparruari eta aisialdiko esparruari**, horietako lehenak garrantzi handiena hartu du, arlo pribatuaren adierasle nagusia delako, diskurtsorik trinkoena sortarazten duelako eta, gaur egun, kanpoko aldaketak ez baina birplan-teamendu pertsonalak behinik-behin sortzen dituelako.

Arlo horiek garatu aurretik, lehenbiziko kapitulu sartu da “bilakaera femeninoa” izeneko epigrafearekin. Kapitulu horretan biltzen eta analizatzen dira emakumeak, kolektibo gisa, beren buruen etorkizunaz dituzten iritziak. Asmoa izan da gure gizartean emakumearen bilakaerari eta emakume ezberdinek bilakaeraz duten barne bizipenei zer esanahi eta balore ematen zaizkien sintetizatzea.

Era berean, egokitzen hartu da gizonezkoei hizpidea ematea ikerketaren eremua osatzeko. Haien iritzien analisia kapitulu guztietan agertzen da emakumeen hausnarketari kontrajarrita, eta hor nabarmentzen da zenbat zailtasun aurkitzen diren hainbat alderditan bat etortzeko orduan.

DISEINU METODOLOGIKOA

Metodologia kualitatiboaren barnean ikerketarako bi teknika erabili dira, mota desberdinekoak: taldekako bilerak eta elkarriketa sakonak. Bietan, ikuspegi proiektibo-prospektiboa eman zaie: ikuspegi proiektiboa, pertzepzio eta motibazio sakonenetan sartu ahal gaitzen, ihardespenen azaleko maila gaindituz; eta ikuspegi prospektiboa, ahal den neurrian, emakumezko partaideek emakumeen egoeraz espero duten eboluzioa ikusi ahal izateko.

Taldekako bilerak, nolakoak ziren ikertu beharreko helburuak halako iraupena zuten, bizpahiru ordu arruntean. Talde bakoitza 8-10 pertsonen osatzen zuten, aldeztu aurretik kontaktoan jarri ondok eta laginezko irizpide hauen arabera:

Sexua: emakumeak eta gizasemeak.

Adina: belaunaldika taldekatuta.

Estatusa: maila ertaina, era zabalean.

Famili egoera: seme-alabekin edo gabe, ezkonduak edo ezkongabeak, jatorrizko familiarik alde egindakoak edo bertan segitzen dutenak.

Lan egoera: lana etxetik kanpora, etxeoandreak eta ikasleak.

Kokapen geografikoa: hirian edo baserrian, hiru lurralde historikoetan.

Bederatzi talde-dinamikek laginen diseinu hau izan zuten:

	ADINA	IRIZPIDEAK	ORDUAK	TOKIA	
EMAKUMEAK	17 - 30	• Ikasleak • Lanean / Langabe • Familiaren / Norberaren etxea	3 or.	Bilbo	Azpeitia
	31 - 45	• Etxekoandreak • Lanean / Langabe • Seme-alabekin / Gabe • Familiaren / Norberaren etxea	3 or.	Donostia	Balmaseda
	46 - 60	• Etxekoandreak • Langileak • Seme-alabak etxean / Etxetik kanpora	3 or.	Gasteiz	Bermeo
GIZASEMEAK	17 - 30	• Ikasleak • Lanean / Langabe • Familiaren / Norberaren etxea	2 or.	Gasteiz	
	31 - 45	• Lanean / Langabe • Seme-alabekin / Gabe • Familiaren / Norberaren etxea	2 or.	Bilbo	
	46 - 60	• Lanean / Langabe • Seme-alabak etxean / Kanpoan	2 or.	Donostia	

Sakoneko elkarrizketak erabili ziren taldeak kontrajartzeko elementu gisa. Familia barruko 2 edo 3 belaunaldietako emakumeekin (ama, alabak eta amona; ama eta alaba) 6 elkarrizketa burutu ziren, belaunaldi bakoitzean dauden diferentziak baloratu ahal izateko. Laginen diseinua hau izan zen:

	ADINA	IRIZPIDEAK	ORDUAK	TOKIA	
FAMILIEKIKO ELKARRIZKETAK	17 - 45	2 belaunaldi	2 or.	Donostia	
			2 or.	Gasteiz	
	30 - 60	2 belaunaldi	2 or.	Bilbo	
			2 or.	Gasteiz	
	17 - 60	3 belaunaldi	2 or.	Donostia	
			2 or.	Bilbo	

1

**BILAKAERA
FEMENINOA**

Gauza jakina da emakumeen egoerak aldaketa nabariak izan dituela azken urteotan. Beraz, emakumeen gaur egungo errealitateak ez du behiala zuenarekin antz gehiegirik.

Azterlan honen xedea hain zuzen ere bilakaera hori zerk eragin duen antzematea da eta, are garrantzitsuago dena, emakumeen barnean zer bizipen eragin duen arakatzeta. Halarik ere, zehaztu behar da argibideak kontzeptualizatzeko eta adierazpen gakoak azaltzeko lehia horretan inferentzia prozesu bati ekiten diogula, eta horrek emakume bakoitzaren barnekoa eta berea den zerbaiti buruz teorizatzea garamatza.

Emakume oro mundu bat da, bere berezitasun eta ezaugarriekin, pertsonalitate zehatzarekin eta inguruabar konkretuekin. Horregatik, bada, interpretaziozko teoriak beti dute irrealtasun zantzuren bat. Haatik, beharrezkoak dira gizartearen fenomenoak zergatik eta nola gertatzen diren ulertzeko.

Helburua da bilakaera femeninoaren mugimendu soziala markatzen ari diren kultur joerak zeintzuk diren aurkitzea. Joera horiek ezagutzea baliagarri izan dakiguke emakumeekin eta beste sexuarekiko harremanekin zer gertatzen ari den argitzeko.

Joera horien eragina argi ikus dezakegu belaunaldien artean dauden iritzi ezberdin eta batzuetan kontrajarrietan, bai eta lana dutenen eta ez dutenen artean ere. Txosten honen kapituluetan barna talde bakoitzaren jarrera azalduko dugu.

Hiriko eta baserriko eremuen bereizketa, kontuan hartzekoa den arren, ez du aurreko kategorizazioen adinako pisurik. Hortaz baieztatzen ahal dugu batbederaren belaunaldia eta lan ordaindu bat izatea bizilekua baino garrantzi handiagokoak direla.

Baserri giroak ralentizatu ezezik anitzetan geldiarazi ere egiten du emakumeen eboluzioa; bere ezaugarriengatik atzerakoiago izan ohi da. Egia ere bada aukera gutxiago izaten direla han, eta horrek ilusio franko zapuzten ditu. Hain zuzen ere emakumeen taldea baldintzatzen duten faktoreak honako hauek dira:

- Jarrera errotuagoak (“Jende itxiago”).
- Lana aurkitzeko zailtasun gehiago.
- Presio sozial handiagoa (“Guztiok ezagutzen dugu elkar”).
- Independentzia txikiagoa (“Urliaren alaba, edo sandiaren emaztea zara...”)
- Aldatzeko zailtasun gehiago.
- Sexuen arteko bereizketa nabarmenagoa.
- Bazterkeria handiagoa (“Behatzarekin apuntatzen dizute”).
- Gizarte harreman hertsiaagoak.
- “HERRI BATEK MUGATU EGITEN ZAITU, ETA EMAKUMEEN KASUAN AREAGO”.

Egoera horren deskarguan esan behar da mugikortasuna ere badela, eta horrek baserriko isolamendua arintzen duela. Gaur egun, bi eremuon arteko aldea moztu egin da, haien arteko lotura estutuz joan den heinean.

Horregatik egokiago iruditu zaigu “belaunaldia” eta “lan eremua” irizpideak erabiltzea emakumeen “egoera desberdinak” azaltzeko. “Habitataren” erreferentea premiazkoa denean baizik ez dugu erabiliko.

Argitasun hauek eman ondoren, bilakaera femeninoaz izan ohi den bizipena garatuko dugu. Horretarako kapitulua atal hauetan banatu dugu:

- Emakumeen autopertzepzioa.
- Gizonezkoen iritzia.
- Baloreak eta jeneroaren balorazioa.
- Bilakaera femeninoaren erreferentzi sozialak.

EMAKUMEEN AUTOPERTZEPZIOA BILAKAERA FEMENINOAZ

1.1

Emakumeen bilakaeraz mintzatzeak nahitaez konparaketaren parametroetara eramaten du auria; gizonen eta emakumeen arteko desoreka eta deskonpentsazio egoerak agertaraztera. Talde eta familiako elkarrizketa guztiak modu berdinez hasten dira, emakumeak historikoki markatu dituen egoera zorigaiztokoa aldarrikatuz, alegia.

Egia da zenbait arlotan emakumeek aurrerapausu galanta egin dutela, baina artean ere sektore gehientsuenetan ez da antzekorik gertatu; argi dago, beraz, gizartea, elkarbizitza egituratu eta jarrerak modutzen dituen gizartea, oraindik ere “matxista” dela.

Historia nola doan ikusirik eta kontuan hartzen dutelarik aldaketaren kontrako gune oztopagarri ugari daudela, emakumeengan erasokortasuna sortzen da gai honi dagokionez. Erasokortasun horren sakonean frustrazioa eta ahal eza dago, ez denez ongi ulertzen nola horren zilegiak eta argiak diren eskubideak ez duten hainbat gizonen onartzen.

Emakumeek ez dute gizonen laguntzarik somatzen beren eboluzioan, aitzitik mugak ipini eta ahakar egiten diete gaurko kultur garapenean gauza arrunta eta natural izan beharko lukeen gaitatean. Emakumeak konturatuz doaz berak direla eta ez beste inor bere eboluzioaren sujetu eraginkorra, bitarteko guztiak erabili beharko dituztela sexuen arteko harremanak eraldatzeko.



Bilakaera femeninoaren bizipena indarrean, tentsioan, ulergaitasunean isladatzen da, botere borroka adierazten dutenak. Gizonak, historiak urte askotako babesaren eman baitie, ez dira prest egongo protagonismo guneak emakumeei lagatzeko, horrek gustoko duten hainbat abantailen galera ekarriko lieke eta. Emakumeak, jakinean daudenez beren egoera desfavoragarriaz, hutsune horietan garrantzi handiagoa lortzen ahaleginduko dira. Indarren arteko emaitzak markatuko du emakumeen aferari soluzioa bilatzeko bidea.

Analisiaren lehenbiziko elementua da aurkakotasuna gertatzen ari deneko argudioaren eske-
natokia zehaztea. Hiru norabide hauetan kokatzen ahal da:




Azterlan honetan zehar aukera izango dugu parametro bakoitza garatzeko; une honetan horiek aipatu besterik ez dugu egingo emakumeak beren burua diskriminatuta ikusten duteneko ere-
muak zenbat motatakoak diren erakusteko. Hortik kontu atera dezakegu emakumearen bila-
kaera ez dela “laneko berdintasunera” edo “ordezkaritza politikora” soilik mugatzen, azken al-
dian garrantzi handia lortu duten entitateak direlarik ere, baizik eta baduela zerikusirik
orokorragoa den zerbaitekin: Emakumeen balorazioa bere alderdi guztietan.

Kontua ez litzateke hainbeste parekidetasuna lortzea garaipen partzialen bitartez, zerbait sa-
konagoa baizik, emakumeak eginkizun sozial batzuetan aritzearekin baino jarrerekin eta balo-
razioekin zerikusi handiagoa duena. Eta hain juxtu hementxe sortzen da gatazka, gizonen
protagonismo soziala erdiesteko bide bezala hartzen dutena emakumeek pertsona bezala tra-
tatuak izateko premia bezala hartzen dutela.

Gizasemearen boterea forma hutsezkoa baino haruntzago doa, kategorizazioen eta rola-
ren de-
finizioen egitura soziala eratzeraino. Gaur egun ere “gizona izatea” eta “emakumea izatea” zer
den jarraibide maskulinoek finkatzen dute, eta hortxe nahi dute emakumeek aldaketa izan da-
din.

Emakumeen boterea loturik dago tradizioz beren esparrua izan den faktoreekin (amatasuna,
etxea), eta irekierarako duten gogoak gizonengan du oztopo aurkitzen. Eredu horietara mu-
gatuta egotean ezinezkoa egin zaie eboluziozko eta kulturazko aldaketak benetan gertatzen di-
ren mundu sozial horretara iristea. Emakumeen indarra ez da kanpora agertu harik eta gizartean
hizpidea izatea lortu duten arte, eta azken hamarkada hauetan izan dute aukera beren garapen
prozesuari hasiera emateko



Indarren parekatzea, nahitaez prozesu motela eta nekosoak izango da. Historiak erakusten digunez sektore pribilegiatuak nekez uzten dute beren boterea borroka bidez ez bada.

“Gizonezkoak beren tronoan daude eserita eta ez dute aldaketarik nahi. Gizonen lekuen egotera nik ere ez nuke gogo onez hartuko inork zorua eta ontziak garbitzera bidaliko banindu”.

(46-60 urteko emakumeen bilera, Gasteizen).

Emakumezkoentzat lehen urratsa beren egoeraz jabetzea da eta dagoeneko askok eman dute. Bereizkeriaz ohartuz gero askapenaren bidetik hasi dira, eta alde horretatik benetako laguntza izan dira mugimendu feministak eta emakumeak kontzientziatzeko agertu diren ahotsak.

Egia da bestalde, esparru eta jarrera ugari dagoela oraindik, zeinetan berdintasun eza ikusten den, baina baieztatu dezakegu, hala ere, gaur egun emakumeek ongi baino hobeki dakitela zein aldetan dauden diskriminatuak.

Gai horri gagozkiolarik, historian barna hiru zutarri agertzen zaizkigu, emakumeen aldaketa sozio-kulturalerako funtsezkoak:

- Lanerako sarbidea.
- Antisorgailuak.
- Ikasketetara eta Unibertsitateetara sarbidea.

Horiek gabe oso zaila izango zen emakumeek beren eboluzioan azken hamarkadetan izan duten abiada azkarra izatea.

- Lanerako sarbidea dela medio emakume gehiago dago gizarte munduan, ez lekukotasun soil gisa edo modu marginalean, baizik eta aldaketa ekonomiko, politiko, kultural eta sozialen muin eragile bezala. Gero argitu beharko dugu ea muntako kargurik eskuratu duten ala ez.
- Antisorgailuei zor die emakumeek hein handi batean erreproduzioaren baldintzapetik atera ahal izatea; zenbat haur izan eta noiz beren esku izateak bide eman die biologiaren loturetatik askatzeko. Dena den, gero aztertu beharko dugu ea lan arloan askapen hori benetakoa gertatu den.
- Unibertsitatean sartzeak kultura munduan eta gizartean sartzeko bide eman die eskubide osoz; estatistikaren datuek baieztatu besterik ez digute egiten gaur egun emakumezko unibertsitario gehiago dagoela gizonezkoak baino. Unibertsitate kontzeptuarekin hainbat ikasketa mota bildu nahi ditugu, goi mailakoak izan edo ez, lanerako eta egitura sozialetarako sarbidea delako. Gai honetan ere gero ikusi beharko dugu prestakuntza horren eragina zenbaterainokoa den.

Hiru zutarriok bat datoz emakumeen egoera funtsean aldatzen dutelako eta balio handikoak dira emakumeen tradiziozko izaera eraldatzeko. Emantzipazio prozesuaren bultzatzaile nagusitzat hartzen dira, bakarrak ez badira ere; horiei esker emakumeek askatasun handiagoa erdietsi dute, protagonismo handiagoa eta hautatzeko aukera gehiago. Azken buruan, autokontzientzi prozesuaren katalizatzaile dira.



Bideak ezarriak daude, orain emakumeak erreferente horietako bakoitzean sendotzea eta agertzen diren oztopoak gainditzea "besterik" ez da geratzen. Baina, kasu, ikerketa honetan parte hartu dutenek diotenez oztopo horiek sarritan gaindiezinak izan ohi dira.

Era horretako jauzi kualitatibo bat egiteak ezinbestean aldaketa dakarkie gizonei beren egoeran. Hortik aurrera ezin diete beren ohiko jarrerari eutsi. Emakumeak aldatu ahala gizonezkoek ere aldatu behar dute.

Emakumeen indarra hartze hori dela eta gizonezkoak lekua egin beharrean aurkitzen dira lanean nahiz ikasketetan, eta are gehiago, aldaketa sakonagoen bidetik doaz.

- **Botere kotei uko egin beharra: agintea utzi beharra.**
- **Eskakizun berriei egokitzea:**
jokabide berdintzaileagoak.
- **Jarrerak aldatzea:**
"desberdinak heziketazatik, ez naturalezagatik".

Parametro hauetako bakoitza gizonezkoen nagusigoaren kontra doa zuzen-zuzenean, arraren nagusikeriaren zutoinak erasotzen ditu. Pitzadurak eragiten ditu historiaren ondorio den egoera monolitiko horretan. Emakumeak aldatzen ari dira erlazioen eskenategia eta gizonezkoek egokitu beharra dute; horrek esan nahi du, zehaz-mehatz, eboluzionatu behar dutela, horrek dakarren prozesua barne dela.

- **Abantailei uko egitea: sakrifizioa.**
- **Portaera berdintzaileak: ahalegina.**
- **Emakumeenganako begirunezko jokabideak: heldutasuna.**

Planteamendu teoriko gisa zuzena dirudi lehen lerrotan azaldu dugun analisiak; alabaina emakumeek adierazten duten errealitatea franko urrun dago parekatze horretatik. Gauza bat da zer izan beharko lukeen eta beste bat, arras bestelakoa, benetan zer den. Dударik ez, beharrezkoa da gizonezkoak zentzu horretan mugitzea; beste kontu bat da nahi izatea.

"Eginkizunak aldatu egin dira. Emakumeak orain lanean hasi dira. Aldatzen ari dira biek eginkizun hori bereganatu beharra daukatelako. Baina, asmoak asmo, gizarteak horretan ere ez du aurrera egin".

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

Beste alde batetik, belaunaldi bakoitzaren inguruabar konkretuek prozesuari erritmo desberdina ematen diote. Zuzenbidea ikasten ari den 22 urteko neska baten eskakizunak eta 52 urteko etxekoandre batenak ez dira berdinak. Alde horretatik, iritzi orokorrak desmarkatzea komeni da prozesuaren esanahia ulertu ahal izateko.

Interesgarria izan daiteke belaunaldi bakoitzean bilakaera femeninoaren “kontzeptu funtsezkoenak” zein konnotazio duten aztertzea:

“EMAKUMEAREN IDEIA”

- Nagusien belaunaldiak emakume “tradizionaltzat” hartzen du bere burua, eta hitz horren baitan biltzen ditu betidaniko bi eginkizun: “ama izatea” eta “etxekoandre izatea”. Horien ezaugarri estereotipoa zera da: “lanbidea: etxeko lanak”.
- Bitarteko belaunaldiak itzuri egiten dio sailka definitzeari eta bere burua “bilakaera bidean dagoen emakumetzat” jotzen du. Horien ezaugarri nagusia da estereotipoen lokarriak eten nahi dituztela, eta borroka horretan beren nortasuna itxuratzen dute.
- Gazteen belaunaldiak bere burua definitzerakoan “emakume modernoa” esakunea erabiltzen du; haren xede nagusia ez da borroka, baizik eta bereak kontsideratzen dituen espazioak eskuratzea: protagonismoa gizartean, garapena lan arloan, berdintasuneko familiaren proiektzioa.

“BOTEREA”

- Emakume adinduentzat boterea gizonen esku dago. Erabateko kontrola dute alderdi orotan, batez ere gizartearen eremuan. Beste biderik ez dute ikusten “tentuz jokatzeko” baino, menpekotasun hori neutralizatzeko, jakinaren gainean badaude ere horren eragina urria dela.
- Bitarteko belaunaldiak, aitzitik, gizonezkoen boterea gutxituz doala azpimarratzen du. Ez dute iraganean adinako eraginik. Horren arrazoi garrantzitsuenak da emakumeen lorpenaren egiaztatena. Maiz erabiltzen den hitza da “frogantza”; emakumeak gai dira gizonezkoen botereari aurre egiteko.
- Emakume gazteek botere kontzeptua gaitzesten dute. Gizonezkoek eta emakumezkoek aukera berdinak dituztela frogatzeko moduan daude. Emakume gazteentzat, berdintasun ezaren kontra indarra erabiltzeak ez du balio, hobe da gizonak kontzientziaztea. Gizonen egiazko botorea bere jarrerez jabetzean datza.

“AUTOKONTZIENTZIA”

- Nagusien belaunaldiak jakin badaki bere egoera ez dela egokiena senarraren errekonozimendua eta balorazioa lortzeko: gizonek ekartzen dute dirua etxera eta horregatik badirudi exigitzeko eta besteak menperatzeko eskubide gehiago dutela. Emakume nagusien independentziak kanpoko mugak ditu: “istudiorik gabe”, eta barnekoak: “heziketa osoa etxekoandre eta emazte leial izatera bideratua zegoen”.
- Bitarteko belaunaldian gertatu izan da autokontzientzi prozesu nabarmenena, non emakumeek beren burua aurkitu duten, beren ahalmen guztiekin. Gizarteratze horrek beraingab-

nako konfiantza sendotu du, eta horri esker emakume kontzeptua ozenki aldarrikatzeko adorea lortu dute.

- Gazteek, kulturalki begibistako berdintasunera iritsi baitira, ez dute beren autokontzientzia emakumeen ahalmena aspimarratzera zuzentzen, autokontzientzia bikoteari aplikatzen diote. Emakumearengan autokontzientzia ezartzetik bikoteari ezartzera igaro dira. Gatazka sortzen da “nola” eta “zein neurritaraino” konpartitzen eta planifikatzen den erabakitzen denean.

“BERDINTASUNA”

- Nagusien belaunaldiak berdintasuna “konpentsazioen” arloan jartzen du. Esan nahi baita, gizonetzkoek familiara bitarteko ekonomikoak eramaten zituzten bitartean, emakumeek beren etxeko lana eta dedikazioa jartzen zutela. Hauek dira truke horren elementuak:
 - Segurtasun ekonomikoa: Afektibitatea
 - Proiektzio soziala: Amatasuna
 - Egonkortasuna: Familia
- Erdiko belaunaldia konpentsazio kontzeptu horretatik urundu egiten da eta berdintasuna “konparaketa” hitzetara aldatzen du. Beñdinak izateak esan nahi du aktibitatearen antzeko proportzioak frogatzea eta horien lekukotasuna eduki ahal izatea. Gizasemeak eta emakumeak berdinak dira baldin eta gaitasun berdinak badituzte, eskubide berberak eta aukera berdinak.
- Gazteak berdintasunaren erreferentzi matematikotik aldentzen dira eta haren alderdi funtsezkoagoak adieraztera lerratzen dira. Haientzako berdintasuna maila “pertsonaletan” gauzatzen da. Gizona eta emakumea berdinak dira elkarrekiko errespetoa, balorazioa eta estimazioa dagoenean; hortik abiatuta agertzen diren gainerako diferentziak deuseztu daitezke.

“BERDINTASUNIK EZA”

- Egungo gizartean ageri den berdintasunik ezari erantzuteak belaunaldi adinduengan “erasokortasun etsitua” bezalako bat sortarazten du. Oso argi daukate gizonak beren botereaz baliatu direla, baina aldi berean, emakumeek ere ez dutela ezer egin egoera hori aldatzeko:

“Beste motatako bizimodu bat egokitu zaigu, baina pozten gara ikustean belaunaldi gazteetan jada horrela ez izatea”.
- Bitarteko belaunaldiari, berdintasunik ezak bizipenaren aldea azkartzea dakarkio, halako “erasokortasun emozionala” sortaraziz. Berdintasun ezaren aitzinean eskuhartzeko premia somatzen dute nork bere neurrien arabera eta, hain zuzen ere, borroka horrek eman die bide emakumeen garaipen handiei:

“Gizartea matxista da, aldatu behar dugu”.
- Gazteek aurkitu duten errealitatea teoriarik behinik behin ez da berdintasunik ezarena. Lagunartean eta bikote harremanetan hein batean bederen jendeak bereganatua dauzka emakumeen eskubideak. Beste belaunaldikoei aditzen dietenean edo gizartean dauden berdin-

tasunik ezak hautematen dituztenean, halako “erasokortasun razionala” sortzen zaie, teorian bada ere beren atxikipena bultzatzen duena.

“Errealitatea zuk zerorrek sortu nahi duzuna izango da. Zure senargaia matxista bada errua zeurea da, ez baitzikiozu hasi-hasieratik gauzak argi erakutsi”.

Burutu dugun zatiketa horrek sobera orokorra iduri du, batez ere kontuan hartzen badugu bat-bederaren zirkunstantziek belaunaldikoenak adina pisu dutela. Hala ere, bidezko iruditu zaigu horiek isladatzea, joera kulturalak ikusmiratzeko parada ematen baitute. Ondoko kapituluetan xehetasun gehiagoz azalduko ditugu egoera zehatzagoei buruzko iritziak.

Emakumeek bilakaera femeninoaz duten autoperzepzioaren gainean azkeneko azalpen bat egin behar da, hau da, “etxeko eremuari” eta “eremu sozialari” ematen zaion adiera. Bi mundu horiek ageri-agerian daude mintzagaiari.

Garai bateko moldeek emakumeak etxeko eginkizunetan sartzen zituzten, emakumezkoak ez zuen beste biderik familian aritzea baino. Egoera hori aldatu egin da denboraren poderioz, eta emaztekiei lan mundura eta gizarterako bidea ireki zaie. Horrek jokabideen eta iguripenen aldaketa ekarri du.

Gaur egun emakumeak bi munduren artean aurkitzen dira zeinetan aurrera egiten ahal duten; beraz aukerak gehitu zaizkie. Printzipioz hori oso positiboki baloratzen bada ere, gatazka-iturri agortezina da. Alde batetik begiratuta, beti dago aukera bide bat gogozkoa ez bada bestea hartzeko norberaren errealizaziorako. Baina beste alde batetik, maiz gertatzen da bi eremuetan garatu nahi izatea, eta hori estresagarria izan daiteke horietako bide bakoitzak dakartzan exigienciengatik; kulturalki “lanaldi bikoitza” hitzaren bitartez ezagutzen da.

Ikuspegi hori korapilotsuago bihurtzen da bi alderdi horietako baten indarra tradizioz emakumea atxikitzeke ahalmenean datzanean, barneratutako jarreraren bidez (“emakume batentzat ez dago ezer ama izatea baino gauza handiagorik”), eta beste alderdiaren indarra modernitatean kokatzen denean, gogozko dituen jarreretan (“Emakume batek lana egiten duenean somatzen du baloratua dela”). Horiek guztiek nolabaiteko mezu kontrajarriak ematen dituzte, eta horietatik abiatuz hartu behar dute emakumeek beren erabakia.

Nagusi den kulturak soluzio bat eman du, alderdi horietako baten aldeko postura eginez bestearen kaltetan. Hortik zehar dabilen diskurtsoak eremu soziala norberaren independentziaren sorburutzat jotzen du eta etxeko eremua, ordea, familiarenganako menpekotasunaren eragile bezala. Horrek badu bere zentzua, izan ere emakumeen garapena nahitaez gizartean beraiei dagokien tokia erdiestean oinarritzen baita, eta horretarako konbentzitu egin behar dira hortxe dagoela emakumeen benetako autorrealizazioaren gakoa. Dena den, tradizioaren zama handia da oraindik ere eta ez dira horren erraz zokoratzen tinko errotuak dauden jokamolde horiek.

Gizarte arloa onuragarriagoa dela eta etxekoa berriz murriztaileagoa adierazten dute iritzi kultural batzuek eta horrek goi mailako boterera bultzatzen ditu emakumeak, independentzia handiagora eta hautatzeko aukera gehiago izatera. Baina aurrerapen horrek etxeko eremuari uko egitea ez bada ere, rola aldaketa behinik behin berarekin dakar. Alderdi horrek arazoak sortzen ditu eta emakumeek ez dute norabide kultural garbirik hori nola burutu jakiteko.

Ez dugu ahaztu behar % 62 emakumeek ez duela lanposturik lortu; horiei kultur ereduak etengabeko zapuzketa sortzen diete. Gaizki sentitzen dira ez direlako autorrealizatzeko gauza, gizarteak eskatzen dieten neurrian. Horien artean, prestakuntza izan eta langabezia daudenak dira kaltetuenak.

Eboluziozko prozesu orok bezala, emakumeen garapena ere atzera-aurrera ibiltzen da; hau da, betiko eskemak baztertu behar dira lehenengo, gero horien integrazioa egiteko. Beste era batera esateko, emakumeei animatzen zaie etxeko rola utz dezaten, eskubide osoz dagokien rol soziala bereganatzeko; emakumeak mugimendu horretan erreferente biak barneratuz eta elkarrekin egokituz joan beharko du.

Batbederaren prozesua da estereotipo murriztaileak alde batera uztea eta askatzaileago diren beste batzuk hartzea, baina, beti ere, aurrekoen alde onari ukorik egiteke eta berriak duen alde txarraz kutxatu gabe. Eta hori izango da emakumeen erronka.

Gizarte eremura osotasunez iristeko aurkituko dituen hainbat eta hainbat eragozpen alde batetik eta emakumeak etxekoandre gisa iraunarazteko gizonaizkoek duten gogo bestetik, prozesua gogortzeko gai dira. Premia handia nabari da familiarik urrundu eta gizartean murgiltzeko. Estereotipo batzuk hautsi beharrak berebiziko zailtasunak ipintzen ditu prozesua orekatua izateko.

Bi eremuen arteko atributu guztien bilketa egin ondotik ikus daiteke gizarte arloa gurarian egituratzen dela eta famili arloa ukapenean. Horrela kalifikatibo kontrajarriak aurkituko ditugu maila ezberdinetan:

KONNOTAZIOAK

- Etxeko eremua: “tradiziozkoa”, “menpekotasun ekonomikoa”, “esklaboa”, “otzana”.
- Eremu soziala: “modernoa”, “independentzia ekonomikoa”, “askatasuna”.

BALORAZIO SOZIALA

- Etxeko eremua: “prestigiorik gabea”, “ez baloratua”.
- Eremu soziala: “prestigio emailea”, “baloratua”.

GIROA

- Etxeko eremua: “monotonoa”, “hertsia”, “mugatua”, “aspergarria”, “motela”.
- Eremu soziala: “interesgarria”, “erakargarria”, “suspertzailea”, “gaitasunen garapena”.

ZENTZAZIOAK

- Etxeko eremua: “ezkutua”, “bakardadea”, “abere bihurtzailea”, “depresioak”
- Eremu soziala: “beste pertsonetikiko harremanak”, “pertsona bezala garatzea”, “askatasuna”, “lokabea”.

Eremu soziala da testuinguru bat nondik eboluzionatzen ahal den. Hori konkistatzea behar-beharrezkoa da teoriari harantza iragan dadin eta emakumezkoen iguripenak gauzatu daitezkeen. Zernahi gisaz, ez da posible betiko rola, hala nola, “etxekoandre”, “ama”, “emazte” izatearenak

aldatzea, non ez den protagonismo sozialaren bitartez eta jarrera desberdin baten bidez, emakumeen etxeko eginkizuna beste modu batera ikusteko bide emango duena.

“Zer dela eta jasan behar dituzte beren senarrak egungo emakume gazteek, baldin badakite haiek gabe ederki bizi daitezkeela. Lehen, gure garaian dena pairatzen zen egurra hartzen bazen ere, bada, bananduz gero, nora joan zitezkeen hainbeste seme-alabekin?”

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Kanpoko eremua eskuratzeko premia ondoko lau erreferente hauetatik abiatuta justifikatu eta argudiatzen da:

- Non kokatzen den autorrealizazioa: kulturaren bidez ideia hau hedatu da, aski erreala bestalde, hots, kanpoko lanak eta protagonismo sozialak pozibide gehiago ematen dutela etxeko lanak baino. Beste pertsonetikiko kontaktua, eta orobat bestelako alderdiak garatzeko aukera izatea, autorrealizazioaren alde esanguratsuenak dira.
- Non gutxietsi duten: gizonezkoek kanpoko testuinguruan duten nagusigoaren kariaz emakumeek eragozpenak izan dituzte botere sozialera iristeko. Emakumeen lehenbiziko saioei gutxiespenez eta ahakarrez erantzun zieten; gaur egun ere ukapen horren aztarrenak ageri dira. Gizonezkoen nagusikeria gizartean eremu orotara hedatzen zen, are etxekora ere.
- Non berdintzen ahal den gizonarekin: emakumeek lan munduan eta gizartean bere presentzia indartuz gero bidea irekita izango dute protagonismo handiagoa lortzeko eta, inportanteagoa dena, diferentzia sexistak desegiteko. Lan berdina eta erantzukizun berdina dutelarik gizonek ez dute argudiorik izango agintekeriazko jarrerari eusteko.
- Non gauzatzen ahal den aldaketa: testuinguru soziala da, eskuarki, kultur aldakuntzaren mui-na, herri bateko ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, artearen, eta abarren arloetan funtsezko aldaketak erabakitzen direneko gunea.

Emakumeek mailaz igotzen duten neurrian, aldaketa horietan parte hartzeko ezezik sujetu aktiboak izateko aukera ere izango dute; eta hori munta handiko kontua da, konpondu beharreko hainbat arazo desberdinak sartu ahal izango baita (“jaiotze tasa beheranzkoa”, “ama izatea”, “soldata desorekatuak”...).

Eboluzioaren ildo hori, dirudienez emakumeak bertan baitaude murgildurik, eragozpenez eta mugez beterik dago.

Emakumeek zinezko zailtasunak dituzte gizonezkoena bakarrik izan den egitura sozial horretan beren bidea egiteko. Aurrerapenak gogoan hartzekoak dira, noski, baina daramaten erritmoa espero zutena baino geldoagoa dela ikusteak frustrazioa sortarazten die.

Emakumeen premia ez da lanpostu bat lortu eta dagokien soldata jasotzea soilik, hori baino harantzago doa, haien helburua da gizarte arloan eskubide osoz beren garapena erdiestea. Jarrera horri mugak jartzen dizkiote alderdi hauek:



- Garapena lanean: begibistakoa da emakumeentzat lan mundua mugatuagoa dela gizonetzat baino. Aukera gutxiago dute hala sartzeko nola mailaz igotzeko; etengabeko presioa jasan beharra izaten dute gizonak bezain beste balio dutela frogatu behar horretan.
- Gizonezkoen parte hartzea etxeko lanetan: emakumeak ezin izango dira lan munduan behar bezala garatu gizonetzat beren parte hartzen ez badute etxeko lanetan. Argi dago senarrek ez dutela bereganatu eginkizun hori, eta horrek emakumeak “lanaldi bikoitza” izatera behartzen ditu; neskamea dutenek ere ezin dituzte antolakuntza, plangintza eta aurrikuspen lanak alde batera utzi. Gizonen tradiziozko rola bere horretan segituz gero emakumeen bizkar egoten dira etxeko lan guztiak.
- Aldaketak estereotipo sozialetan: alde honetatik ere ez da aldaketa ikusgarriarik nabaritzen, izan ere matxista izatea gaizki ikusia badago ere, oraindik ez da jokabideetan isladatzen. Hona hemen estereotipoak mugitzen ez direla frogatzen duten erreferente batzuk:
 - “Emakume askorekin dabilena benetako gizona da, baina alderantziz, horrela dabilena emakumea bada, puta deitzen diote”.
 - “Ligatzen duen gizona estimatu egiten da, emakumeak ezin du gizonen hainbeste aldiz aldatu, emagaldia ez bada”.
 - “Gizon bat mozkortuta dabilenenean esaten dute “a zer juergista”, emakume orditua berriz gaizki ikusia dago”.
 - “Barrabilak” hitzak zentzu positiboa du eta “alukeriak” berriz negatiboa”.
 - “Gizon publiko bat politikari errespetagarri bat da, aldiz emakume publiko bat...”.
 - “Sexuari dagokionez erasoak eta bortxakeriak emakumeek pairatzen dituzte”.
- Emakumeak politikan eta kulturen: emakumeen ordezkaritza politiko eta kulturalari dagokionez hutsune handia dago. Eredugarri izan daitezkeen adibide eta erreferentziarik ez izateak oztopatu egiten du emakumeen eboluziozko garapena. Politika erabakiak hartzeko muina da eta kultura berriz bizitzeko estiloen sortzailea, horregatik funtsezko bi atal dira, zeinetan emakumeek botere gehiago lortu beharko luketen.

Gizonezkoei galde egiten zaienean ea nola bizi duten haiek emakumezkoen bilakaera, lehenbiziko tokian agertzen den iritzia da emakumeak diskriminatuak daudela. Hiru belaunaldi horietan gutxi gorabehera bereizkeriaren arrazoi berberak errepikatzen dituzte.

Bereizkeriaren eragileen zerrenda oparo horretan ikus daitekeenez, barneko faktoreei baino garrantzi handiagoa ematen diete kanpokoei; hau da, harreman pertsonaletako desberdintasunen aurretik gizartean gertatzen direnak daudela diote. Errazagoa da norberari zuzenean ez dago-kiona salatzea norberak emakumeenganako dituen jarrerak agertzea baino:

- Lana: “ez dituzte aukera berdinak, gehiago eskatzen zaie”.
- Politika: “emakumeen ordezkaritza lekukotasun soila baizik ez da”
- Legeak: “baliteke legeetan bereizkeriarik ez egotea, baina bai epaileek egiten dituzten interpretazioetan”.
- Publizitatea: “aski iraingarria da emakumeek jasan behar duten tratua, objektu gisa agertzen baitira”.
- Erlijioa: “emakumeek ezin dute apaiz izan, meneko monja izan behar halabeharrez”.
- Hezkuntza: “ez bakarrik gizonezko irakasleen ahotan, testuliburuetan ere ematen du historia egin duen bakarra gizona izan dela”.
- Hizkuntza: “matxismoa mintzatzeko moduan ageri da, zerbait baloratzeko “a ze potroak dituen horrek” esaten dute.
- Eskubideak: “gizartean emakumeek ez dituzte eskubide berak, mugatuago daude”.

Gizonezkoekin eginiko ikerketan partaidetza taldeetan gertatu ohi dena gertatu da hemen ere: gizonak euren artean daudenean “arraren” jarrera erakustea ongi ikusia dago, eta gehienera jota ere aitortuko dizute emakumeek etorkizun franko beltza daukatela gizartean. Emakumeen arazoa bere egiten duten gizonak bakarrik saiatzen dira dinamika horri beste norabide bat ematera:

- Familia: “gizonok patxadan bizi nahi dugu, etxera garenean dena egina egotea nahi dugu. Emakumeen lanaz ez gara ohartu ere egiten”.
- Bikotea: “Gizonak agintea eduki nahi du, emaztea baino gehiago izateko”.
- Sexua: “sexu harremanak aldatu badira emakumeei esker izan da, lehen dena guretzat zen eta”.
- Lanaldi bikoitza: “biek lan egin arren, nor arduratzen da etxeko funtzionamenduaz? nork sartzen ditu ordu gehiago? Emakumeek, beti bezala.”.

Argi dago gizonak emakumeen egoeraz konturatzen badira ere, eta ongi konturatzen dira, alajaina, hizpidea beste gaietara saihestea nahiago dutela eta transzedente jartzen dira gizartearen injustiziaz hitz egiteko eta komentatzeko emakumeek zer aukera gutxi duten gizarte honetan. Beren jarreretan, ordea, inork gutxik sakontzen du. Gizonen eta emakumeen artean gai honetaz hitz egiten denean ere, eztabaidaren eta argudio kontrajarrien baliabidea beti dago eskura.

Beraz, esan dezakegu gizonek bi mailatan ibiltzen direla: bata agerikoa eta bestea ezkutukoa: Agerikoan adierazten du emakumeek eskubide osoa dutela berdintasuna eskatzeko, baina ezkutukoan gizonezkoak ez daude prest botere kotak lagatzeko. Zatidura hori ez dute eskizofrenia bezala bizitzen, ongi baitakite parekatze soziala eskatzerik badagoela parekatze pertsonalari trabak jartzen zaizkion bitartean.

Gizonak bidezkoa eta premiazkoa deritzo emakumea matxinatzeari. Baina arrazoiaren alorrean laguntza eskaintzen badio ere ez da horratio zinez inplikutzen.

Alde horretatik lasai asko erabil ditzakete honelako hitzak: “errendatuak”, “zapalduak”, “azpiratuak”, “ez behar bezala baloratuak”, “etxekoandrearen sindromea”, “umilduak”, “etsituak”, “menperatuak”, “behe mailakoak”, “jabetzapekoak”... Azken finean berdintasuna eskatzeko bezain beste beren boterea zolitasunez adierazten segitzeko.

Horrek erakusten digu emakumeen beharrak edo eskariak ez dutela oihartzunik izan gizonezkoen taldean. Egia da garaipen batzuek eragina izan dutela gizartean nagusitzen den diskurtsoan (“matxista izatea gaizki ikusia dago”), baina ez dute gizonezkoen jarrera trinkoak zeharkatzerik lortu. Bakarrik lortu da zolitasun aldetik irabaztea, emakumeentzat nekosoago izatea gizonak kontzientziaztea bi mintzamolderen artean manejatu behar direlako.

Arrazoi horregatik, hots, beren garapena uste zuten baino mantxoago doalako, agertzen dute emakumeek beren erasokortasuna eta ahalmen eza. Gizonezkoek arlo razionalean eskaintzen dien laguntzak ez du gero jarrera eta jokabideetan behar duen ordainik izaten.

Emakumeentzat bazen beste nabaritasun bat, eta horrela adierazten zuten, zera, eboluzioaren sujetu eraginkorra emakumea bera dela; gizonak atzetik joango dira beti. Haienganako egiten den presioa jasanezina egiten zaien neurrian lagako dituzte beren boterearen puskak. Baina benetan adierazgarria da eraldakuntza eta aldaketa zailen-zailena jarreraren arloan gertatzen direla.

Hortaz, interesgarria izango da aztertzea zein diren gizasemeak erabiltzen dituen defentsako estrategiak jarreraren aldaketari oztopo jartzeko; edo, berdin dena, zein argudio erabiltzen dituen bere burua salatua eta eztabaidan ikusten duenean. Horien artean hauek hartu dute garrantzi handiena:

- Emakumeak dagoeneko emantzipatuak daude: horrelako argudioak batez ere adinekoen be-launaldiak erabiltzen ditu, konturatzen baita emakume frankok lanpostua eskuratu dutela eta “haietako batzuk goi karguekin”. Independentzia ekonomikoari beren emazteen independen-tzia gehitzen diote, nahi dutena egiteko astirik badutelako. Gizon horientzat, emakume gaz-teek ez lukete deus eskatzeko eskubiderik “aski” liberatuak daudelako.
- Lan batzuk ez ditzakete emakumeek egin: emakumeen ahalmena fisikoki mugatua dela esa-tea gizonezko gehienek erabiltzen duten argudioa da. Eta adibidetzat meagintza aipatzen dute, kamioilari edo butano banatzaile, emakumeen berdintasunezko kontzeptuari indarra kentzeko. Gizonen mailatik zerbait beherago egon beharko omen dute beti, lan guztiak ezin omen dituztelako egin eta gizonek berriz bai.
- Lan batzuk ez dituzte emakumeek egin nahi: hemen argudioa nahikoa zolia da emakumeek lan desatseginei itzuri egiten dietela baieztatzen duelako, inori gustatzen ez zaizkion lanak direla, jakina, baina gaur egun besterik ezean gizonezkoak egiten dituztenak. Ez dira gauza argibideak jartzeko, baina argudioak balio die auzitan jartzeko goi mailako lanak edukitzeko emakumeek duten iguripena. Muntakoa da, halaber, beste ideia hau, emakumeek ez dutela

erantzukizunik nahi, ez eta dedikazio osoko lanik ere, denbora kentzen dietelako familiari dedikatzeko.

- Gizonen gainetik agindu nahi dute: emakumeen argudioa buruz behera jarri nahi da: “emakumeek boterea kendu nahi digute gero beraiek agintzeko”; horretarako feminista erradikalaren estereotipoari, gizonak baztertzen dituenari, heltzen diote. Azken finean, gizasemearen ezintasuna edo ezetza salatzen dute emakumeen tokian jartzeko.
- Xehetasun batzuetan soilik nahi dute aldatu: argudio hau maiz erabiltzen da gizonezkoen mintzoan. Indarra portaera batzuetan jartzen dute, zeinak desberdinak izan arren mesede egiten dien; adibidez xarmakeria (“emakumeari atea irekitzea”, “lekua uztea”) edo xehetasunak (“loreak oparitzea”, “atentzioak”). Berdintasunaren ikuspegitik “abantail” horiei ere uko egin beharko diete.
- Gazteen artean ez dago berdintasun ezarik: gazteek beren burua defendatzen dute esanez belaunaldi berrietan bereizkeriarik ez dagoela, berdintasunaren aldeko jokabideak daudela; eta hori, neurri batean bederen, egia da, zeren eta garai batekoekin alderatuta egungo berdintasun ezak arindu egin baitira, baina ez da egia osoa esaten jeneroaren eremuan ezartzen diren jarrerak eta balorazioak arakutzen direnean.
- Emakumeek etxean agintzen dute: botereak parekatzeko ahaleginen estrategia da, aldaketarik gerta ez dadin, rolak elkarrengandik bereiztearena, berdintasun eza ukatzeko. Eta alde horretatik iseka egitera iristen dira gizonezkoak emakumeen “menpean” daudela esanez, emakumeek diotena baino askozaz ere lan gehiago egiten dutela etxean. Bestalde, iruditzen zaie emakumeek etxean egiten duten lana dezente arinagoa dela kafetegian edo lagunekin berriktan ematen duten denbora ere kontuan hartu beharko litzatekeelako.
- Bilakaerak gutxika-gutxika egin behar du aurrera: defentsa zolia da, baita ere, gizonezkoek heziketa matxista izan dutela eta hori aldatzeak kostatzen duela. Hainbeste urtetako historia ez dago urte gutxi batzuetan aldatzerik. Gazteek ere argudio honen alde azaltzen dira, esanaz errudun handienetako bat ama bera izan dela, harekin bizitza eroso batera, den-dena egina aurkitzen zuteneko bizitzara, ohitu baitira.

Zortzi argudio hauek eta horien artean eratu daitezkeen konbinazioek bide ematen diete gizonei emakumeen kritiken aurrean babesleku bat aurkitzeko. Aukera ematen die emakumeekin aurrez aurre jartzeko eta aipatu beharrik ere ez dute betidanik gizonezkoek izan dutela boterea eta ez dutela utzi nahi.

Hala eta guztiz ere, gehienak ez dira gai sexuen arteko dialektika bati eusteko, gizonak gizonen artean daudenean ausartzen dira bakarrik emakumeen berdintasun iguripenak deslegitimatzea. Tinkotasun falta hori emakumeek egiten dituzten salaketetan nabari da:

“Emakumeak ez daude emantzipatuak, oraintxe hasi berri dira eta”.

“Gaur egun ia ez dago indar fisikoa eskatzen duen lanik”.

“Emakumeak prest leudeke gizonek egiten dituzten lan berak egiteko, atseginak izan ala ez”.

“Emakumeek familiarako denbora behar badute gizonak etxeko lanez arduratzen ez direlako da”.

“Emakumearen asmoa ez da gizona menperatzea, boterea berdintasunez banatzea baino”.

“Xarmakeria eta detaileak berdin atsegin zaizkie gizonezkoei nola emakumezkoei”.

“Gazteek ez dute beren jarrerak aldatu; etxean zer ikusi hura ikasi”.

“Emakumeek etxean agintzen dute gizonei ez zaielako ardura han barruan zer gertatzen den”.

“Gizonezkoen bilakaera emakumeen aurrerapenaren araberakoa izango da”.

Horrek guzti horrek eraman ditu gizonezkoak ideien eta eztabaiden gainetik igarotzera eta bilakaera femeninotik auzia ekiditeko rol batzuk bereganatzera. Hitz batean esateko, beren jorkabideetan gotorlekua aurkitu dute. Hauek dira erabiltzen diren hiru rol ezagunenak: “biktimaren rola”, “salatzailearen rola” eta “errugabearen rola”.

“BIKTIMAREN” ROLA

“Gaur egun ez dakizu nola portatu ere, batzuetan nahi dute biguna izan zaitezen beste batzuetan gogorra, baina, beti ere, emakumeek eskatzen dizutenean”.

“Edozer gauzagatik matxista zarela esaten dizute, hitz bakoitza kontu handiz neurtu behar duzu”.

“Ez zaituzte baloratzen, ezertarako balioko ez bagenu bezala tratatzen gaituzte”

“Kanpoko lana etxekoa bezain errepikakorra da, eta kasu batzuetan gehiago”.

“Nik nire emazteak baino ordu gehiago sartzen ditut, eta gainera etxera naizenean lagundu behar diot, bestela a zer mutur beltza!”.

“Emakumeak seme-alaben esker ona eta maitasuna dauka etxean, izan litekeen gauzarik handiena”.

“SALATZAILEAREN” ROLA “Emakumea bere baloreak galtzen ari da”.

Amatasuna: “Lan egiteko lehia horretan ama izatearen maitazarrea galtzen ari dira”
“Famili giroa ez da jada lehengoa, funtzionalago bihurtu da”.

Etxea: “Familiaren oreka hautsi da”.
“Emakumeak galdu du familia batzeko eta kohesionatzeko ahalmena”.

Feminitatea: “Alde batera uzten ari da sentsibilitatea, lehiakortasunaren mesedetan”.
“Antzineko amek zuten sendotasun morala ez dute gaurko emakumeek”.

“ERRUGABEAREN” ROLA

“Esan diezadatela zertan naizen matxista”.

“Lagundu diezadatela berdintasun eza non dagoen ikusten”.

“Aldatzeko lagundu behar digute”.

“Emakumeek eurek duten arazoa da, eta guri transmititu behar digute”.

Gizonezkoak ongi jabetzen dira rol-joku horretaz, badakite defentsa gisa erabiltzen dutela emakumeen salaketan eta presio kulturalen aurrean. Dena den argi utzi behar da autosomaketa hori aldatuz doala belaunaldiz belaunaldi: gazteek joera handiago dute eginkizunen artifizialtasuna eta zurruntasuna salatzeke eta nagusiek, berriz, uste osoa dute horrela behar duela izan.

Belaunaldien arteko konparaketen gainean esan dezakegu aldeak dauden arren emakumeetan baino txikiagoak direla gizonen artean. Dirudienez gizonen jarrerak homogenoagoak dira edozein dela ere haien adina; edo zehatzago hitz egiteko, formazko portaeretan aldaketak badaude ere jarreraren kasuan oso antzekoak dira. Barneko eboluzio ezaren arrazoiak gizonen abantailak denboran zehar berdin irautean datza; errazagoa da eskubideei eustea betebeharre baino.

Gizonezkoen bilakaera, beraz, razionalaren eta jarreraren arteko dialektikan egituratzen da (agerikoa eta ezkutukoa). Maila razionalean adostasuna dago sexuen arteko berdintasuna beharrezkoa dela esaten denean, baina jarreraren kontuan betiko erresistentziak agertzen zaizkigu, botere puska ez lagatu nahian.

“Lehenbiziko langa igaro dugu: pentsamendua. Gure gurasoek guk ez bezala pentsatzen zuten. Pentsatzeko moduan aldatu dugu, orain praktikan jartzea falta zaigu”.

(17-30 urteko gizonen bilera. Gasteiz)

Jarrera-aldaketa ez da berez gertatuko, emakume guztien presioa eta etengabeko lana beharko da hori lortzeko. Aldaketa hori bi aldetatik gertatu beharko da eraginkorra izateko: alde batetik, gizartean barna “egitura matxista” desegin beharra dago, gizonezkoek ez dezaten portaera sozialak laguntza konplizierik izan; bestaldetik, norbanakoarengan funtsezkoa da eguneroko zereginetan izan ohi diren “jarrera matxistez” kontzientzia hartzea, gizonezkoak errudun senti daitezten, eta hortik aurrera horri erantzun diezaioten.

Eskuhartze mota bietatik eskuhartze pertsonalak eskatzen du esfortzu handiena, aldatzeko ahalgin handiena eskatzen duelako. Borroka-lekua etxeko eremuan dago, buruz buruko harremanetan, hortxe baitute gizonak ihesbide gutxiago eta kontzientzia hartzeko testuinguru egiazkoa. Batik bat etxekoandreentzat, parekatzeko beste tokirik ez baitute, kontzientzia aldarazteko testuinguru bakarra izango da.

Gizonezkoek aitortu aitortzen dute etxeko eremuan ekin behar diotela beren bilakaerari, biko-tearen harremanetan eta familiarekiko loturetan. Emakumeek etxetik kanpora enplegurik izan edo ez, aitortzen zaie berek daramatela zamarik handiena. Hori dela eta, berdintzearen lorpena bi printzipio hauetan oinarritu behar da derrigorrez:

- “Erantzunkidetasuna”.
- “Balorazioa”.

Harrigarria da gizonezkoak bat etortzea emakumeen eskariekin familien barruan hainbeste berdintasun dagoen bitartean. Horren zergatia da gizonezkoak ideiak bere egiten dituztela baina jarrerak aldatzeke.

Parte ez hartzeko jartzen diren aitzakien artean hauek aurki genitzake:

“Heziketaren arazoa da, horrela erakutsi ziguten eta”.

“Kanpoan lanean aritu ondotik hain nekatua ailegatzen naiz ez dudala ezer ere egiteko gogorik izaten”.

“Uste dut gizonak traketsagoak garela horretan, ez dugu ikasi edo ez digute irakatsi”.

“Gauza da erabat geurekoiak garela”.

“Gizonezko gehienoi patxada gustatzen zaigu”.

“Gizasemeok franko alferrak gara etxeko lanak egin behar direnean”.

Balorazioaren gaia latzagoa da, ezkon-harremanekin du zerikusia eta elkarrekiko onespenearekin. Lokarri horiek nola ezarri diren halaxe moldatuko da bikotea, modu batera edo bestera, baina kasurik gehienetan gizonezkoen inplikazioa arrunt txikiagoa da. Gizonezkoen urrutze hori dela eta, haien aitzakietan nabari da ez dakitela nola baloratu beren emazteak:

“Maitasun gehiago eman beharko ote diegu?”.

“Kontua eskertzearena ote da?”.

“Beren kapritxoak betetzea hobe? Nolabaiteko konpentsazioa eman?”.

“Balorazioa etxean parte gehiago hartzean ote dago?”.

“Andrearekin denbora gehiago egon?”.

“Janaria ona eta etxea txukun dagoela esan?”.

Azaldutako aitzakien azpian, hala elkarlanean nola balorazioan, aitorpen bat ageri da, hau da, ez dagoela etxea gobernatzeko modua aldatzeko borondaterik, horrek norberaren erantzukizunari aurre egin beharra ekarriko lukeelako. Emakumeen presioa bortitzagoa ez deino gizonak ez dira aldatuko, eta hala izanda ere pittinka-pittinka baizik ez dituzte beren abantailak utziko.

“Erantzunkidetasuna” eta “balorazioa” hitzen benetako esanahiaz ohartzen direnean gizonek sumatzen dute asko galduko luketeela bikotearen harreman hobeago baten trukean, eta horrek esan nahi duela: “botere gutxiago izatea”, “agintekeriari uko egitea”, “lana”, “etxeko nagusi izateari utzi egin beharra”...

“ERANTZUNKIDEAK”

“Iniziatiba hartzea”.

“Lanak banatzea”.

“Lanak nork bere gain hartzea”.

“Zereginez erantzukizuna izatea”.

“BALORATZEA”

“Etxeko zereginak ere lan bezala hartzea”.

“Emakumeek egiten dutela eta, horregatik ez da berez emakumeen lana”.

“Emakumeen eginkizunak aitortzea”.

“Elkar-ulertzea, tolerantzia, berdintasuna eta hurbiltzea”.

Emakumeen eboluzioa askoz azkarragoa izan da gizonezkoena baino. Desfase horregatik gatazkak eta tentsioak sortzen dira gizonezkoek berdintasuna onartuz joan ahala, egokitu beha-

rragatik (Ez dago beste erremediorik eta) kontzientzia hartzeagatik baino gehiago (“Berdinak izateko nahia”).

Oraintxe ari dira konturatzen berdintasunak galera bakarrik ez dakarrela, zerbait gehiago eskuratzea, hazkuntza eta heldutasuna ere badakartzala. Gizonezkoen diskurtsoan herabeti bada ere “sentsibilitatea” eta “aitatasuna” bezalako kontzeptuak agertzen ari dira, oraindik eduki handirik gabe baina nolabaiteko erakargarritasunarekin.

BALOREAK ETA JENERO BALORAZIOAK

1.3

Balore maskulinoak eta femeninoak kategorietan sartu nahi direnean bitxikeria bat sortzen da, gazteen artean batik bat, zera, kategorizatze hori goesteari uko egin diotela. Argudiorik funtsezkoena da “guztiok garela pertsonak eta horrenbestez denok ditugula gaitasun eta kalitate berdinak”. Horrek adierazten digu estereotipo sozialek ez dutela hainbesteko indarririk neska-mutil gazteen artean.

Topikoak lekuz kanpokotzat jotzea belaunaldi gazteen erreakzioa baino zertxobait gehiago da; agerian uzten du berdintasuna lortzeko jenero bakoitzari leporatzen zaizkion baloreak parekatzetik abiatu behar dela. Alabaina, azpimarratzea merezi du diferentzia horiek oraindik ere hor daudela eta jarrerak moldatzen ari direla.

Beraz balore femeninoen eta maskulinoen edukien barnean sakonago aztertu behar da ulertu nahi bada zernolako eragina izaten ari diren jarrera eta portaeretan. Horrek bide emango du, gainera, zeren arabera ezarri diren antzemateko, eta, aldatzerik ahal izango balitz, nondik hasi jakiteko.

Balore horietan sakontzen denean, lehenbizi ikusten dena da erreferente desberdinen arabera egituratzen direla:



Horrela kalitate femeninotzat eta maskulinotzat jotzen direnak azken buruan emakumearen eta gizonaren eginkizun klasikoek ezaugarri multzoa baizik ez dira. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentzia fisikoak, eginkizun sozialen aldekoak eta bakoitzaren zirkunstantziakoak tajutzen dituzte batzuen eta besteen baloreak.

Erreferente horiei darizkien balore femeninoek egitura hau dute:



Alderantziz ordea, balore maskulinoek historian zehar bete izan duten eginkizun historikoei lotuago agertuko dira.



Egungo joera kulturalak gaitzetsi egiten ditu kategorizazio horiek emakumeen emantzipazio birlakaeran eragin txarra izaten ari direlako. Eraikuntza egonkortzat hartzen dira, emakumeen ahalmena mugatu eta gizonen egoera betirakotzeko helburua dutenak.

Gizarteak hala onartzen duen neurrian, bi sexuak estereotipo horietan adierazitako iritziei jarraituz sailkatuko dituzte. Halatan non lanean mailaz igo nahi duen emakume batek gogor borrokatu beharko baitu horrelako irizpideen kontra, hala nola bere "sentsibilitatea" ez datorrela ongi eskuratu nahi duen karguan aritzeko behar den "razionaltasunarekin" eta "hoztasunarekin"; edota gutxienez, emakumea izan arren jenero maskulinoarekin lotzen diren gaitasunak dituela frogatu beharko duela.

Estereotipoen eragina franko maltzurra da, eta jakina, emakumeek horien kontra borrokatu behar dute. Gizonek aldiz, irabazle gertatzen direnez betirakotzen saiatzeko joera izango dute. Emakumezkoen aurrerapen prozesuak nahi eta nahi ez jeneroaren baloreen kontzeptua aldatu beharko du.

Alde horretatik aurrerapena izan da “sexuaren” eta “jeneroaren” arteko bereizketa egitea, arrazoi logikoak alde batetik eta arrazoi sozialak bestetik zirela medio. Gaur egun gertatzen ari den bigarren urratsa da jenero bakoitzaren baloreak auzitan jartzea, horrela lanarekin lotzen diren kalitateak ez dira gizonezkoenak bakarrik, ez eta etxeko lanarekin lotzen direnak soilik emakumezkoenak ere, eginkizun horietan ari den pertsona konketuarenak baizik.

Gizonen nahiz emakumeen diskurtsoa aztertuz gero argi azaltzen da oraindik asko gelditzen dela emakumeak kategorizazio sozial horietatik askatzeko. Lehenbiziko muga bera ere ez dago gaindituta, halako esamoldeak entzuten baitira oraino: “emakumeei barren-barrenetik ateratzen zaie etxea garbitzea eta antolatzea”, “berezko kalitateak dira”, “seme-alaben ardura zeure gain hartzen duzu, besteak beste, zerorrek egin zenituelako”. Hemen nabarmen ageri da kategorio biologikoak baldintzatzen dituela balore femenino hauek: “garbitzea”, “antolatzea”, “erantzukizuna”.

Jeneroaren tasunak auzitan jartzeari dagokionez (bigarren muga), prozesua are mantxoago doa, baldintzatua baitago hainbat eta hainbat emakumek lanpostua lortu dutelako. Lan munduko edo gizarteko eginkizunetan aritu ezinean aurkitzen diren bitartean emakumeak kondenatuta egongo dira etxekoandre lanetan aritzera: garbitzailea, ama, emaztea. Handik ateratzen den momentuan, kalitate maskulinoak frogatutako pertsonatzat hartuko dute, beraz diferentziek bere hartan segituko dute.

Jenero maskulinoari dagokiona eta jenero femeninoari dagokiona bereizteak balaztatzen du emakumeen emantzipazio bilakaera. Eta ez bakarrik gizonek azaltzen dutelako, baita emakumeek barneratuta daukatelako ere.

Balore maskulinoei eta femeninoei ematen zaizkien edukiak aztertzeko unea, atributu klasiko multzo bat agertzen da, positibo edo negatiboan artean sailkatutakoak, eman nahi zaien adiera sozialaren arabera. Esan dezakegu balore bakoitzak bere kontrabalorea duela aldamean, edo berdin dena, balore bakoitzaz balorazio desberdinak egin daitezkeela.

Hain zuzen ere, emakumeen balore funtsezkoenak, hala nola “amatasunak” eta “afektibitateak” joera positiboak agertarazten dizkigute, esate baterako:



Hala ere, “amatasuna” ikusten denean emakumeek senarra eta seme-alabekiko duten menpekotasunaren ikuspuntutik, balorazioen zentzua aldatzen da. “Afektibitateari” dagokionez parametro sozialetan kokatzen direnean, zeinetan emozioen adierazpena ez baita gorantz doan balorea, kualitateek konnotazio negatiboak hartzen dituzte:



Gauza bertsua gertatzen da “liluraren” kasuan, positiboa dela emakumeak beren gorputzaz laketzen direnean eta negatiboa, ordea, emakume-objetuaren kontzeptuarekin kutsatzen denean.



“Egoten jakitea” balorean sustraiturik femeninoa izate hori ez dute onartzen emakume gehienek, modatik pasatako kualitatea dela diote. Edozein modutan ere hemen sartzeari egoki deritzogu, izan ere, hitzak baino harantzago jarrerak baitaude, eta nabari ageri da emakumeek beren jokamoldea gehiago kontrolatu behar dutela; esate baterako, ez da gauza bera gizon bat mozkortuta ikustea edo emakume bat, diferentea da gizon batek emakume askorekin ligatzea eta alderantzizkoa gertatzea.

Kontrabalorea eratzen da arestian aipatu “egoten jakite” hori zurruna eta egiazkotasun eta espontaneitate gabea somatzen denean.



Gizonezkoen baloreekin beste horrenbeste gertatzen da, diferentzia bakarra da egiten diren kritikak gizonezkoek duten protagonismo soziala konpentsa dezakeen barneko balorerik ezean oinarrituta egiten direla.

Alde horretatik, funtsezko diren "sendotasuna" eta "langile izatea" baloreei kontrajartzen zaizkie balore afektiboen falta eta ezkon-bizitzatik urruntzea.





"Gizartearen errekonozimendua" positiboa izaten da baldin eta onarpenean oinarritzen bada, baina negatiboa kanpora begira azaleko segurtasuna ekartzen duen momentutik.



Botereak bi irakurketa izan ditzake, eta are negatiboago gertatzen da botere ahula denean, estereotipo sozialek goratua.



Hemen ikusten da egungo ereduak kanpoko baloreen eta barneko baloreen sailkapen klasikoari segitzen diotela; lehenbizikoak maskulintzat hartzen dira eta bigarrenak femenintzat. Diferentziak egiteak esan nahi du kontrajartzea, desberdintzea, arketipo pertsonalizatzaileei eustea, eboluzio prozesuak garatzeko zailtasunak izan ditzan.

Dena den, egitura egonkor horietan nolabaiteko aldaketak gertatzen ari dira emakumeek bul-tzatuta. Emakumeek beraiek eskatzen dute malgutasun handiagoa, sailka ez ditzaten tradizioz leporatu dizkien parametroekin soilik. Gizonekin alderatuta desabantailan aurkitzen dira.

Aldaketa gertatzen da emakumeek gizartean barrena sartzerik badutelako gaur egun: lanpostu ordainduak, nolabaiteko presentzia politikan eta kulturean, errekonozimendu soziala. Horrek bide ematen die balore maskulinoak bereganatzeko eta beren jeneroan tradiziozkoak izan diren baloreak baino harantzako iristeko. Mugimendu horrek zenbat eta emakume gehiago bildu hainbat eta emantzipazio maila handiagoa lortuko du.

Gizonezkoek, aldiz, etxeko lanei muzin egiten die oraino, eta horrela zailago dute balore femeninoak bereganatzea. Sorgortuak bezala daude, beren betiko eginkizun sozialetan murgilduak, eta horrela nekez bereganatuko dituzte etxeko giroko balore berezi horiek: “sentiberatasuna”, “sakrifizioa”, “elkartasuna”. Gizonezkoen bilakaera emakumeena baino hagitzez geldoagoa doa.

Aldaketa bultzatzen duen irizpidea honako hau da, alegia, garapenaren inguruabarrak eta eremuak betidanik izan badira baloreak itxuratzen dituztenak, eremu horietan zer gertatzen den horren arabera neutralizatuko dira diferentziak. Biek eginkizun berdinetan ari badira, balore berdinen partaide izango dira. Distortsioa sortzen duen elementu bakarra da eredu horiek mugitzeke egotearen kontrako ekimena.

Zer dakarkie emakumeei gizartearen eremuan sartzeak?

- Eboluzionatzea, baina beren ohiko rolak errespetatuz.
- Lotzen zituzten estereotipoen lokarriak askatzea.
- Botere handiagoa eskuratzea testuinguru sozialean ezezik baita etxekoan ere, izan ere eskubideak errebindikatu eta berdintasuna eskatzen ahal baitute.
- Irabaziko luke berdintasun ezaren kontra matxinatuko balitz, ohiko boterea kenduko lioke gizonari eta aukeratzeko ahalmen handiagoa izango luke.
- Eguneroko borrokarako kemena galduko luke, bai eta balore klasikoek eman diezaiokeen segurtasuna ere.
- Gaur dituen bitartekoei errentagarritasun handiagoa aterako lieke: hezkuntzarako sarbidea, mugimendu feministen laguntza, amen iritzia beren alabak gai direla bere kabuz ibiltzeko, “matxismoa” baztertzeko joera soziala.

Zergatik egiten zaie horren zaila gizonezkoiei etxeko eremuan sartzea?

- Betiko rolei buruz eboluzionatzera behartzen dituzte.
- Beren mesederako estereotipo batzuk daude.
- Barneko eremuan sartzeak ez diete botere gehiago ematen kanpoko eremuan; are gehiago, gizartean duten protagonismoa murrizten diete.
- Galtzaile ateratzen dira: statusa, agintea, abantailak, lana (lehiakide gehiago), ibiltzeko askatasuna (etxeko lanen loturarik ez).
- Gizonentzat oraindik ulerkaitza den kontzeptu bat sortuko litzateke: harremanen kalitatezko gehikuntza.
- Oso garesti aterako liratekeen baliabideak martxan jarri beharko lituzke: “apaltasuna”, “emakumeak errekonozitzea”, “kontzientzia hartzea”.

Gazteen belaunaldian, hasiera batean, joera handiago baldin badago berdintasunaren alde, halaxe hezi dituztelako da, hots, gizonek eta emakumeek aukera eta eskubide sozial berdinak

dituztela irakatsi dietelako. Inflexio puntua erreferente familiarrean aurkitzen da (rol tradizionalen betirakotzea) eta erreferente sozio-kulturalean (gizasemeak gaur egun protagonismo handiagoa du).

Emakumeen bilakaera nekoso da, korapilotsua eta zaila, oztopo sozialekin batera familia arlokoak daude eta batez ere pertsonalak, eta horrek badu zerikusirik estereotipoen introjekzioarekin. Emakumeak barneko baloreekin daude loturik eta helburuen mundu gisa kanpoko baloreak eskaintzen zaizkie. Bi esfera horien batura emakume bakoitzaren bilakaera pertsonala da.

Beraz, hiru mailatako prozesua da:

- Erreferente klasikotik: barneko alderdi positiboak eustea.
- Erreferente modernotik: kanpoko alderdiak eskuratzea.
- Erreferente ebolutibotik: dimentsio biak bat egitea.

Barneko oreka lortzea oztopatu, nahasi eta sakabanatzen hiru mezu ari dira; horrek funtsean adierazten digu prozesu askatzailea neketsua eta mingarria dela:

- Alderdi klasikoei eustean arriskua dago eboluzioa geldiarazteko. Bilakaera horretan balore tradizionalak berregokitu egin beharko dira.

“Gizonek ez dituzte beren sentimenduak kanporatzen, lotsa eta guzti ematen die maitasunezko imintzio xume bat egiteak. Eta gizartean baloratua ez badago ere emakumeok dugun zerbait positiboa da”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

- Balore modernoak eskuratzean (kanpokoak) arriskua dago gizonezkoen jokabide estereotipatuak birsortzeko. Beraz, beharrezkoa da jarrera sozial horiek balore femeninoz kutsatuko lituzkeen eboluzio prozesu bat.

“Emakumeak lehen zituen zenbait gauza on orain galtzen ari da, gizonari imitatzeagatik. Orain nesken femininitasuna gain behera doa.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Gasteiz)

- Bi alderdiok batzeak dakarkeen arriskua da gehiegizko exigentzia, kulturalki “superwoman” deitzen dena. Eboluzioa ez dago hainbeste baloreen metaketan ez eta dimentsioren bat edo beste ukatzean, baizik eta oreka lortzean.

“Super-emakumea da halako itxuraldaketa bat gaur egun izan beharko litzatekeenaren eta lehen zenaren artekoa. Etxea garbitzea eta ama izatea ez dugu gure bizkarretik aldentu”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Emakumeen diskurtsoan agertzen diren kontraesanek argi erakusten digute prozesu hau eten-gabea dela eta emakumezkoen kolektiboak berak erabaki behar duela zein balore onartu eta zein arbuiatu.

“Galde egiten didatenean zergatik daramadan eskotea edo minigona, gizonek ez dute nire erantzuna ulertzen, neure gorputza gustatzen zaidalako daramadala soineko polit eta erakargarri hori. Beno, ez kalean doan tipo bati probokatzeagatik, panpoxa sentitzeagatik baino”.

“Atea irekitzen badizute edo jarlekua uzten.... horiek guztiak denoi gustatzen zaizkigu. Baina horrela-diferentziak ezartzen dira eta matxismoa bultzatzen. Nire ustez hori edukazioa da eta ez matxismoa”.

“Polita izateagatik ez duzu ergela zertan izan behar”.

“Niri ongi iruditzen zait nork bere burua zaintzea, baina gizarte honetan badirudi emakumeek itxura zaintzen dugula bereziki, horixe da saltzen dena, eta barrukoari ez diogula horrenbeste erreparatzen”.

“Ama izatea ederra litzateke baldin eta esklabotasun eta menpekotasun zama kenduko bagenio”.

“Nahi izaten dugu gizonezkoek uler gaitzaten, baina beste batzuetan haien babesa nahi izaten dugu”.

Galdera bat egin nahi genuke, zera, emakumeak lan munduan eta gizartean sartzen direnean beren lanari balore femeninoen marka ezarri beharko ote diote, balore maskulinoetara egokitu beharko ote dira?, edo nola burutu dezakete eraldaketa hori? Gai horretan emakumeen eztabaidari interesgarria deritzogu, “berdintasunaren” erreferentzi jarraibideak erraztuko lituzkeelako.

BILAKAERA FEMENINOAREN ERREFERENTE SOZIALAK

1.4

Emakumeen diskurtsoan zehar agertzen zaigun gertakari adierazkor bat da bilakaera femeninoa erraztu dezakeen erreferente sozialik ez daukagula. Gizartean duten ordezkaritza apurrak norabidea galarazten die ez dakitelarik nola eboluzionatu ez eta nora jo ere. Norbanakoaren kasuan helburuzko eredurik ez izatean portaera tradizioaletara lerratzeke joera nagusituko zaie.

Ez genuke egearik esango aintzakotzat hartuko ez bagenitu komunikabideetan suertatzen diren barneko eztabaidak edo emakumeen eskubideak errespetatzeko gaur egun dagoen joera kulturala, baina hori ez da aski horren muntakoa den prozesu batentzat. Ezinbestekoak dira mugimendu askatzailearen aintzindari diren pertsonak, bideak irekiko baitituzte gizarteak ereduak izan ahal ditzan.

Erreparatzen badiegu gaur egungo gizartean protagonismoa duten emakumeei berehala ohar-tuko gara oso gutxi direla gizonezkoekin alderatuta, eta gainera oso sektore gutxitan daudela. Eskasia hori nabarmenago bihurtzen da Euskadin, matriarkatuaren estereotipoak eta emakumeen ohiko botereak kontrakoa adierazi beharko lukeen arren.

Aitzitik, publizitateak eta zineak maiz aski dakarzkiguten bizi estiloetan emakumeen rol klasi-koak betikotu egiten dituzte, edo bestela sekulan lortuko ez den irudipen hutsezko mundu bat aurkeztu digute. Alde horretatik, mereziko luke komunikabideetatik (publizitatea, aldizkari femeninoak, telebista programak, egunkariak...) transmititzen diren baloreetan sakondu duten azterlan soziologikoak zabaltzea, bada, horrela gaur egun emakumea “tiranizatzen” ari diren jarraibideak neutraliza litezke.

Behar-beharrezkoa da, hortaz, emakumeentzat eredu izan daitekeen kultur korrante baten presentzia, irizpideak tajutu eta ezarri eta estereotipoak neutralizatuko dituen, eta zenbait komunikabidetatik markatzen dituzten bizitza estiloen kontrapuntu bilakatuko dena. Azken finean, aukera emango dielako emakumeei beren kokagunea finkatzeko.

Eremu hori ez izateak indarrak sakabanatzen ditu, behartzen du emantzipazio prozesua zerbait pertsonala izatera. Egungo eskakizunak zeinu pertsonalistagoa dute, lanerako eskubidea eta botere maila handiagoa eskatzeaz gainera zerbait sakonagoa ari dira galdatzen, harremanen munduarekin eta gizonen kontzientziarekin zerikusi handiago duen zerbait. Xede horien aurrean emakumeak laguntzarik gabe aurkitzen dira.

2

EMAKUMEAK ETA ETXEKO EREMUA

Emakumeek etxeko eremuan duten egoera aztertzeak berebiziko garrantzia du emakumezkoen bilakaera ulertzeko. Testuinguru horretan mamituko dira edo gauzatzen saiatuko dira emakumezkoen eboluziotik sortzen diren eskakizun berriak.

Horren funtsa da emakumeak ez daudela prest famili barruan leporatu dizkieten rolak betiko iraunarazteko, aitzitik, aldatu egin nahi dituzte, eta horretarako borroka egin beharko dute gizartetik, familiatik eta gizabanakoen aldetik datozkien behaztopo guztien aurka.

Beraz, etxeko eremua izango da edozein prozesu askatzaileri datxezkion gatazkak eta borrokak gertatuko diren eskenatokia. Ezin dugu ahaztu emakumeen % 60k baino gehiagok lana etxean bakarrik egiten dutela, eta lan ordaindua dutenen gehienek ere etxeko lana bere gain izan ohi dutela.

Bestalde, balore femenino gisa ulertzen diren estereotipo sozialak egituratzen dira emakumeek tradizioz etxekoandarearen aldetik izan dituzten eginkizunetik abiatuta. Balore horien eraldaketa ideologikoa eremu horretako portaera aldaketarekin batean etorriko da, koherente izan ahal da din eta bilakabide horri abiada handiagoa eman diezaion.

Etxeko testuingurua eskenatoki behinena da emakumeen egoera aztertu eta diagnostikatzeko.

Lehenbiziko elementu adierazgarria da “etxeko eremua” kontzeptuaren baitan aldaketa handiak gertatzen ari direla; duela 30 urteko emakumeen eta gaur egungo bikote gazteen egoera arras diferenteak dira. Aldaketa arlo guztietan agitu da:

- EGITURA: seme-alaba gutxiago.
- EGINKIZUNAK: emakumeak etxetik kanpora ere lanean hasi dira.
- ANTOLAMENDUA: zereginak elkarren artean banatzeko joera dugu.

Gero aztertuko dugun bezala, arlo bakoitzean emandako erritmoa desberdina da, baina hemen azpimarratu behar da etxeko egiturari astindu ederra eman zaiola inguruabar berrien aldetik, eta horrek ezinbestean eginkizunen aldaketa dakar gizonezkoen eta emakumeen rolei dagokienez.

Aldaketa horiek erakusten dituzten alderdietako batzuk hauek dira:

- Emakumeak lan munduan sartzea: emakumeak parametro horietan hasiak dira mugitzen, lan munduan sartzen hasi direnetik. Askatasun handiagoa dute, batez ere lortu duten independentzia ekonomikoari eta kultura munduan sartu izanari esker. Baliabide hobeak dituzte etxe-koandre lanetara mugatzen zituzten ohiko lokarrietatik askatzeko.
- Krisialdia bikotearen harremanetan: emakumeen egoera berri honek behartzen du bikotearen harremanak birplanteatzera: jada ezin dakieke botere arketipoei eutsi, non gizonek baitzuten abantaila handiena. Birplanteamendu horrek tentsioak eta tirabirak sortzen ditu, azken muturreraino eramanda banantze eta dibortzioetan isladatzen direnak, baina horraino iritsi gabe ere ezagun dira bikotearen arazoetan.
- Elkarriketa seme-alabekin: seme-alabekiko harremanak ere aldatzen ari dira; egun belau-naldien artean hurbilago daude, eta hori dela eta gazteen errebindikazioetan amak ere parte dira. Ohiko zurrunkeriak desegiten hasi dira eta horrek elkarren arteko komunikazioa eta esperientzi trukaketa bultzatzen du, arazoak gehitzen badira ere.
- Bizimodu berriak: komunikabideak eta kultur euskarriak (zinea, literatura, artea...) laguntzen ari dira bizitzeko estilo berriak sor daitezen, non emakumeek protagonismo handiagoko ir-

tenbidea baitute. Emakumeei erreferente eta aterabideak erakusten zaizkio ahalmen berriak garatu ahal ditzan.

- Balore sozial berriak: gizartea bere baloreak aldatuz doa eta eboluzio horretan emakumeek toki aktiboagoa dute iraganean baino. “Bizi kalitatea”, “independentzia” eta “statusa” emakumeek gizonen neurri berean barneratu dituzten idealak dira.

Bizipenaren eskenatokia hainbeste aldatu da ezen emakumeen rola aldatuz zirkunstantzia desberdinean jartzen baititu. Emakumezkoen diskurtsoan hauteman daiteke etxeko eremutikako urruntze bat eta eremu sozio-laboralerako gerturatze bat; horrela adierazi ohi da: etxeak “tenteltzen” du eta kanpoan lan egiteak berriz “autorrealizatzen”.

Horrek adierazten digu emakumezkoak eraiki duten nortasun berriarekin gogoatsu ari direla gizartearen errekonozimenduaren bila eta ez hainbeste etxeko eremuaren prestigioa berreskuratzearen atzetik. Polaritate bien arteko oreka-guneak esku emango die emakumeei beren garapena aurrera eramateko. Esan gabe doa, aipatu oreka lortzea aski zaila dela kontuan hartzen baditugu emakumeen oztopagarri diren baldintza sozialak eta familiakoak:

- Gizarteak portaera matxistak ditu.
- Senarrak nahiago du etxekoandre bat emaztetzat.
- Seme-alabek ez dituzte baloratzen amaren eginkizunak.

Eragozpen horien aurrean emakumeak zatituak daude, banatuak: alde batetik desiozko rolak daude (“modernoak”, “landuna”, “bere buruaren jabe”), bestetik leporatu dizkieten rolak (“garbitzailea”, “hautzaina”, “etxeko antolatzailea”), eta horrek guztiorrek eguneroko borrokara daramatza emakumeak beren oreka bila, etxea delarik bertan behera utzi nahi duen erreferentea eta lan ordaindua nora iritsi nahi duenaren erreferentea.

Tentsio eta borrokaren ikuspegi hori are nahasiago bihurtzen da borroka-lekua kanpoan egoteaz gainera, hau da senarraren eta seme-alaben kontzientzian, emakumeen zereginetan parte hartzeko eta haiek baloratzeko orduan barnean ere badagoenean, hau da, barneratutako rolekiko emantzipazioan. Izan ere, borrokarik garratzenak norberaren baitan suertatzen dira, jasotako kulturatik eta heziketatik askatu nahi horretan:

“Emakumeek etxearen erantzukizun nagusia behar dute izan”.

“Ama izatea haurrekiko konpromezu eskerga da”.

“Emakumeak senarraren egiazko euskarri dira”.

“Emakumeen gain dago familiaren egonkortasuna”.

“Gizona da familiburua, zutabe ekonomikoa”.

Mezu horiek hain daude barneratuak eta baldintzatuak ezen emakumeek egundoko ahalegina egin behar baitute hortik askatu ahal izateko. Erlazioen aldetik hori ukatzeak ez du deus balio jarri besterik beste zerbait erakusten digutenean, gizarteak emakumeen atribuzio horiek “berezkoak” direlako ideia sendotzeko joera duenean.

Arazoa bikoiztu egiten da orduan: rol mugatzaitetatik askatzea hala kanpotik nola barnetik. Derri gorrezko borrokalekuak dira biak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun nahiak gauzatzeko, desiozko balore berriak eransteko.

“Etxeko eremuak” hartu duen adieraren eraldaketa hori historia aintzakotzat hartuz aztertzen ahal dugu, belaunaldi desberdinek etxeaz, familiaz eta senarraz duten bizipenetatik abiatuta.

Belaunaldi nagusiarentzat ama zen familiaren muina.

- Emakumeak famili egiturekin lotuta sentitzen dira, horretan oinarritzen da mikro-gizarte horren funtzionamendua.
- Etxeko eginkizun guztiak hartzen ditu bere gain, bai antolamenduzkoak eta bai exekuziozkoak ere. Eta ez du erantzukizuna bakarrik hartzen, gainera zeregin guztiak burutzen ditu. Haren eginkizunen artean garbiketa dago eta, horrekin batera, ama eta emazte izatea.
- Eskatu zeregin horiek arintzea eskatzen du, baina ongi aski daki senarrak eta seme-alabek non aritu badutela (lana eta ikasketak adibidez), eta horiek etxean laguntzeko eragozpenak dira. Horregatik zereginetan laguntzea baino gehiago bere lana balora dezatela eskatzen du:

“Ez dugu hainbeste eskatzen, hitz bat besterik ez dugu behar: amodio pittin bat, maitasun piska bat, egiten ari garena poxi bat bederen errekonozitzea”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bermeo)

Bitarteko belaunaldian amak ez du beti familiaren muina izan nahi.

- Belaunaldi honetako emakumeak orandik familiako egiturekin loturik sentitzen dira. Aurre-rapen sozio-laboralak ez dio etxeko eremuaren funtzionamendu onaren erantzukizuna arindu.
- Aitzitik, interferentzia bat izan da eginkizun guztiak ez hartzeko desioan. Gai da gizonezkoek bere egin ditzaketen lanak (garbiketa eta haurrak zaintzea) eta antolaketa lanak bereizteko, zeinetan gizonezkoa nekez konpontzen baita. Azken finean etxeko boterea bere esku eduki nahi du baina ez inola ere lan guztiak berak bakarrik eginik.
- Eskatzen duena da betiko zereginetan laguntza gehiago, familia (senarra, seme-alabak) kontura dadila denen egitekoa dela. Eginkizunen parekatzea galdatuko du eskubide berdinak izateko xede bezala.

“Gizonari jakinarazi behar zaio hark bezala bestek ere badutela eskubiderik lagunekin zinera joateko, edo afaltzera; edo etxera iritsi eta afaria egina aurkitzeko”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

Gazteen belaunaldiarentzat familiak partekatua izan behar du.

- Belaunaldi honentzat ama ez da jadanik familiako dinamikaren kohesionatzailea. Gazteek ez dute komenigarri ikusten emakumeak izatea familia eremuko erantzukizuna izan behar dutenak, bai ordea, erantzukizuna erdibana aurrera eramatea.
- Abiapuntu bera dute gizon-emakumeek, denek lortzen ahal dute lanpostu bat eta horrek esan nahi du etxe barruko eginkizunak erdibanatu egin behar direla, are amatasunezkoak ere. Aurreko belaunaldiak ez bezala, gizartean duten protagonismoari esker ez du sexu bereizketarik egiten, eta are gutxiago etxeko eremura eramaten.
- Erreibindikazioa gizona kontzientziaztea izango da, artean ere bere amaren etxean zituen abantailekin lotuta dagoelako. Zereginetan partaidetza eskatzeaz gainera helburua izango da etxearen ardura orokorra ere elkarrekin hartzea.

“Ene senargaiari esaten diot: egunen batean zurekin joatea eta haurrak izatea erabakitzen badut erdi bana egin beharko dugu dena, etxeko lanak, seme-alaben heziketa... Nik ez dut hori guztia neure gain hartu nahi, hori garbi daukat”.

Belaunaldien bilakaeran eboluzio bat gertatu dela argi dago emakumeek daramaten eginkizunari dagokionez behintzat. Eboluzio hori funtsean egoera berriaz kontzientzia hartzearekin dago erlazionatuta. Norberaren garapenerako beste iguripen batzuk eta beste alde batzuk daudela jakiten den neurrian garrantzi gutxiago emango zaio etxeko eremuari. Hori inportantea da kanpoko lana aldaketa eragile delako eta aldi berean lan horretara sarbiderik ez duten emakumeek aukera berriak izan ditzaketelako.

Hiru belaunaldietan zehar emakumeak gero eta ahalmen gehiago lortuz joan dira etxeko eremuko berdinkidetasun arloan, egoera berriek horretarako erraztasuna eman diete. Belaunaldi honek gizonari buruz dituen jarreretatik ondorio hori atera daiteke, autonomia handiagoa duela eta portaeraren aldaketa eskatzeko indarra eskuratu duela.

Adinekoen belaunaldia: zuzeneko eskaria gizonari ("laguntzea").

Bitarteko belaunaldia: heziketa eskaria gizonari ("partekatzea").

Gazteen belaunaldia: sakoneko eskaria gizonari ("norbereganatzea").

Berdintasunerako bidea ezarrita dago jadanik etxeko eremuan, belaunaldi bakoitzak borrokatu beharko du norberaren zirkunstantziek jartzen dizkioten mugak kontuan hartuta, baina zalan-tzarik ez dago geraezinezko mugimendua dela. Lehenxeago edo beranduxeago, baina emakumeek ongi baino hobeki dakite tradizioz egotzi zaien etxekoandre rola aldatu behar dutela.

Aldakuntza hori hartzen ari den esanahian sakontzeko aztertuko dugu zer gertatzen ari den etxekoandrearen izaera itxuratzen duten alderdi bakoitzean:

- Emakumeak eta garbiketa.
- Emakumeak eta amatasuna.
- Emakumeak eta ezkon-harremanak.

Horiek banan-banan garatu aurretik argitu behar dugu emakumeek guztiz bereganatu duten zerbait: etxe barneko bere egitekoa garbitzea, janaria prestatzea, haurrak eta senarra zaintzea baino gehiago dela, izan ere bada beste eginkizun pilo bat eguneroko lana astuntzen duena:

"Plangintza egitea"/"antolatzea"/"prebisioa"/"administrazio lana"...

"Adinekoen zaintzailea"/"erizaina"/"maistra"...

"Hezitzailea"/"psikologoa"/"prestatzailea"...

Arruntean eginkizun horiek ez dira kontutan hartzen nahiz eta familia barruan funtsezko egin-beharrak diren eta bitarteko sozialak merketzen dituzten. Zerbitzuak dira, hitzaren zentzurik zabalenean, zeren eta familiako kideen behar gehienak asebetetzen baitituzte: ongizatea, sozializazioa, heziketa, e.a.

Gizonentzat erdi ezkutuan badaude edo etxeko lanaz gizarteak balorazio eskasa egiten badu, emakumeari berez dagokion zerbait dela uste delako da, beraz, esfortzurik behar ez duena. Gizonezkoen iritzia da emakumeei barrenak eskatzen diela lan horietan ihardutea, berezkoa dutela, eta horregatik ez dagoela lan bezala hartzerik.

Errealitatea juxtu kontrakoa da, eginkizun horiek estresaren eta itomenaren iturri direlako. Ez bakarrik eskatzen duten lan fisikoagatik, handia izanik ere, baizik eta berekin dakarten zama psikologikoarengatik. Beti erne egon beharra, beti zain eta kezkatu familiako bizitzaren atal bakoitzean.

Eginkizun horietaz mintzatuz emakumeek diote egunean 24 orduak etxeko lanen menpe dautela, etengabeko tentsiopean, neka-neka eginik. Etxeko lana bikoizten duten alderdiak dira. Egoera horren aurrean, gizonak ez dira gauza izango emakumeen benetako esfortzua ulertzeko, baldin eta emakumezkoen zereginen artetik aintzakotzat hartzen ez badute erantzukizun orokorra, baldin eta bakarrik begiratzen badie, demagun astebete batean, emakumearen faltaz beraien egin beharko lituzkeen eginkizunei.

Modu bakarra dago gizonak kontura daitezen, eta hori da lan munduan duten erantzukizuneko eginkizunekin konparatzea, non lana helburu batzuk betetzea baino askoz gehiago den, non “tentsioa” baitago eta “itomena”, “kontrola”, “plangintza”, “konprometuzua”, “exigentzia”..., eta hori dena eskatzen du lan dinamikaren funtzionamendu onak. Alde horretatik, etxeko lana edozein antolakuntza-lan bezalakoa da, exekuziozkoak soilik direnak baino harantzago.

Oraindik bide luzea gelditzen da gizarteak etxekoandrearen izaera enpresa barneko antolakuntza eginkizunarekin alderatzeko, eta hain zuzen ere hortxe sendotu beharko litzateke emakumeen askapenerako prozesua; bestela haren eginkizuna gutxieteko joerak tinko iraungo du.

Ez du balio diferentziak egitea lan bolumenaren eta enpresako lanen eragin sozialaren artean, ez da argudio egokia, emakumeek gizartean oinarri-oinarrizko egitekoa baitute (haurrak izatea, heziketa, prestakuntza,...) eta emakumea bakar-bakarrik dago zama guzti hori bere gain eramateko. Emakumeek beren eginkizunak eta haien esanahia balorarazi behar dituzte gizonekiko berdintasuna lortu nahi badute.

Taldeek darabiltzaten hitzetan ideia hori ez dago horren modu landuan formulatua, baina nolabaiteko gogoeta xume batzuk bederen egiten dituzte etxeko lana eta dedikazio etengabea gizonen lanarekin parekatzen dutenean. Ondoren diskurtso hori lansari bat eskatzera lerratzen da, eta hor moztu egiten da, ez dagoenez gastu horri aurre egingo liokeen erakunderik, edo praktikan jartzera kalterako izango litzatekeelako berdintasuna bultzatu beharrean diferentziak bultzatuko bailituzke.

Etxekoandrearen lana “baloratzearen” aldeko eskariak ez dira iristen arlo afektiboa gainditzera (“maitazarrea”, “estimatzea”) edo funtzionala (“laguntza”, “partekatzea”, “asumitzea”). Emakumeek berek ere ez dute barneratu halako ideia hura, hots, egiteko hori eta gizonezkoena munta eta erantzukizun berekoak direla. Oraindik ere emakumeen artean argudiatua ez badago nekez hedatuko da gizartean barrena. Bermeo bezalakoa herrietan, non senarraren figura noiz-behinka desitxuratzen den, hauteman dugu autokontzientziarik sendoena.

“Hemen marinel ugari dago eta guk emakumeok urtean bederatzi hilabetez egin behar dugu amarena eta aitarena, denetatik, familiaren funtzionamenduaz arduratu, konponketak egin eta bankuko paperak ere bai”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bermeo)

EMAKUMEAK ETA ETXEO LANAK “GARBIKETA”

2.1

Garbiketa hitzarekin bildu ditugu emakumeen etxeko lan arruntenak: etxea garbitzea, antolatzeta, sukaldaritza, ontziak garbitzea, arropa ikuztea, lixaketa, erosketak egitea, haurren ardura izatea, familiari kasu egitea..., beraz, kanpoko kontzeptu bezala “garbiketa” hitzarekin definitzea baliagarria da, gaur egun eginkizun horiek duten esanahiagatik.

Etxekoandrearen kanpoko profila modutzen duten hiru dimentsioetatik haxe da gogaikarriena, frustrazio eta erasokortasun handiena sortarazten duena, emakumeak balorazio kaxkarrena sumatzen eta eztabaida mikatzenak izaten dituenekoa. Lan mekanikoa da, errepikakorra eta estresagarria. Gizakien goi mailako gaitasunen beharrik ez du, edozeinek egiten ahal du, trebezia handirik ez da behar ez eta prestakuntza prozesurik ere eta hori gutxi balitz ez du inoren esker ona lortzen (“orduak eta orduak eman ditzakezu garbitzen eta ezta inor ere ohartzen”).

Emakumeek “garbiketaz” duten iritzia da zabartu egiten duela, ito, deprimitu, eta bizitzan beste iguripenak izateko bideak moztzen dizkiela. Balmasedako etxekoandre batek franko garbi adierazten du emakume askok sentitzen dutena:

“Etxean komeni ez zaizkizun gauzetan pentsatzen duzu, samintzen zara. Pentsatzen duzu: Ba!, zertako egingo dut hori inork ez dit eskertuko eta!, etortzen da senarra, dirua ematen dizu eta edozer gauza bazina bezala tratatzen zaitu... zure obligazioa balitz bezala”.

Emantzipazioak hemen hartzen duen zentzua da zamatik libratzea, zeregin horiei itzuri egitea. Emakume ororen ezkutuko nahia da lan hori etxeko lanetarako enplegatu baten esku uztea, baina kasu gehienetan ezin daiteke.

Ikusten denez etxekoandrearen izaeran haxe da emakumeen berezko tasunekin zerikusirik ez duen alderdia. Lan hori emakumeari leporatu zaio abagune historiko batean, baina horrek ez du esan nahi lan horri uko egiterik ez duenik. Egin nahi ez den gauza bat da eta ukapen horrek ez du pertsona baten balioa zalantzan jartzen. Beste kontu bat da emakume batzuek ez badute kanpoan lan egiteko aukerarik, egiteko horiek beraiei egokituko zaizkiela eta bereak bailiren onartu beharko dituztela.

Garbiketa gaur egun zergatik den horren degradantea galdetuz gero, erantzuna ez dago kanpoan lan egiteko gogoaren argudiotik bakarrik, erantzuna bilatu beharko da garbiketari ematen zaion esanahian, garbiketari buruz dagoen eskaera sozialean.

Alde horretatik egungo mezuak argiak baino argiagoak dira: “garbitzea?, ahalik eta gutxien”, eta hori ez bakarrik “garbiketa” kontzeptuak eboluzionatu duelako, baita ere “etxe” kontzeptuak ere:

- **GARBIKETA KONTZEPTUAREN ERALDAKUNTZA**

“Garbiketa atzerakoia da”.

“Garbitzea ez da oso konstruktiboa”.

“Betebehar gogaikarria da”.

“Horretarako dago neskamea”.

“Ezinbestean egin beharrekoa”.

- **ETXEA KONTZEPTUAREN ERALDAKUNTZA**

“Gaur egun itxuratxo batean garbitzea aski da, sobera kezkatu gabe”.

“Bisitariek ez dute garbiketa hainbesteraino kuxkuxeatzen”.

“Etxean bada hori baino gauza inportanteagorik”.

“Etxeko eremuan badira eginkizun atseginagoak”.

“Azkarrek izan behar dugu emakumeok, praktikoak”.

Horrenbestean efektu atzera-elikatzaile bat agertzen da “garbiketa” eta “etxe” kontzeptu berrien artean, emakumeentzat emaitza askatzaile bat dakarrena. Gaur egun ez dago eta ezin da egon garbiketaren aldetik horrenbeste exigentzia, beste aktibitateek ordezkatzeko dute emakumeen dedikazio hori.



Aldaketa horien aurrean emakumeak ez dira hainbesteraino behartuak sentituko printzipio tradizionalari erantzuna ematera, hots, etxea garbia baino garbiago uztera, lehenago beren eginkizuna zen arren. Garbiketa eta etxea kontzeptuen eboluzioari egokituta emakumea etxe barruan kontzeptuaren eraldakuntza agertzen da.

Eraldakuntza horren printzipioa da nortasun femeninoa ez dagoela baldintzatua etxe barruan egin behar duenagatik, baizik eta handik kanpora dituen aukera guztiengatik.

Etxeko zereginak bigarren maila batean gelditzen dira beste mota horretako idealen aurrean, eta hori argi ikusten da kanpoan lanpostu bat dutenengan eta baita mota askotako aktibitateetara jotzen dutenengan ere (gimnasia, ikastaroak, lagun taldeak...):

“Etxearen esklabo gara, eta ez dugu horren esklabo izan behar. Ahaztu etxea eta ongi pasa asteburua, ez da ezer gertatzen egun bategatik”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Kultura arloan dabilen iritzia da emakumeek beren astialdiaz gozatzeko, etxeko lanetik landa tarte bat izateko, premia eta gogoia dutela.

Mezu hori bista handiz jaso dute publizitatean, eta horrela jakinarazten digute badirela produktu batzuk azkar eta eroso garbitzen dutenak, oso funtzionalak, emakumeei denbora aurrezteko pentsatuta.

Eboluziozko urratsa agerian dago: garbitzetik ez dago zeharo libratzerik baina betebeharrak hori arindu daiteke eta horrela jasangarriago egin; abantaila horren bitartez emakumeek beren burua jatzeko modua izan dezakete beste aktibitate batzuetan.



Idea hori indartzera datozen mezuak dira ondoko hauek:

- “Esklabo bihurtzen zaitu”.
- “Egunero garbitzea setati izatearen seinale da”.
- “Garbitzea laketa duena emakume tradizionala da”.
- “Garbitzea gustatzen zaionak estresatuta bukatuko du”.
- “Depresio depresio”.

Prozesu askatzailea nabarmen agertzen da belaunaldien arteko iritziak alderatzen ditugunean. Garbitzearen esangura arrot desberdina izan ohi da bizi izan den belaunaldiko inguruabarren arabera:

LEHENAGO: Garbiketa emakumearen eginkizunetan sartzen zen.

“Nire eginbeharra betetzeak poztu egiten nau”.

ORAIN: Garbiketa emakumearen eginkizunetatik jare gelditzen da.

“Errealizatzen ez duena egiteak nahigabetu egiten nau”.

“Ama” eta “emazte” funtzioekin ez bezala garbiketarekin, printzipioz behintzat, ez dago hainbeste problemarik biologikoa, alde batetik emakumeek berezkoa dutena, biologikoa, eta bestetik, kultura arlokoa, hots, zirkunstantziengatik ezarria dena elkarren artean bereizteko. Beraz emantzipazio prozesua errazagoa gertatuko den atala izango da, edo beste ikuspegi batetik begiratuta, emakumeek beren parekidetasun eta berdintasunerako bidea hasi duteneko alderdia.

Prozesu hori singlea bada ere, ez da berdina bizi izan hiru belaunaldietan:

- Adinekoen belaunaldia: beren zirkunstantziak direla eta beste erremediorik ez dute izan garbiketa lanak bere egitea, onartzea eta hein batean bederen baloratzea baino. Baina horrek ez du esan nahi zapuztuak sentitzen ez direnik. Amore eman behar izan dute jaso duten heziketa halakoa izan delako eta beste erremediorik izan ez dutelako, baina barren-barrenetik

erdeinatzen dute. Emakume horiengan gertatzen da ez dutela inola ere beren alabak dinamika berean ikusi nahi.

- Bitarteko belaunaldia: aldaketarekin hasi den belaunaldia da, lanerako sarbidea eta eremu soziokulturala dela medio etxeko baldintzak eten dituen. Zirkunstantziak aldatzearekin batera jarrera pertsonalen berrikuspena etorri da, familiarekiko tentsioa eta batez ere eztabaidak senarrarekin. Emakumeek oreka bilatu behar izan dute eta “lanaldi bikoitza” beren gain hartu dute.
- Gazteen belaunaldia: jarraibideak markatuak izan ditu; ez du inolako erruduntasunik sentitzen etxekoandrea izatea atzerakoia dela esateko (“pertsona hustuak”, “errealizatu gabeak”, “esk-laboak”, “kondenatuak”, “menperatuak”). Emakume hauek autorrealizazio maila altuagoak dituzte, sinetsita daude etxetik urrundu behar direla. Tentsioa ez dago barnean, borrokan baizik, senarrek asumitua izan behar dutena praktikan jar dezaten.

Garbiketaren gaineko kultur eskenategia zehazki finkatua dago: “emakumeak libratu egin behar dira garbiketa lanetatik”; askapen hori erabatekoa izan ahalko da (neskamea), partziala (lan partekatuak) edo bazterrekoa (exigentzia gutxiago), baina dudarik ez dago garbiketak galdu duela behinola izan zuen atxikipen indarra:

- Ez dago errekonozimendurik gizartearen aldetik: lan bezala ez dago ez ordaindua ez eta baloratua ere.
- Ez dago errekonozimendurik familiaren aldetik: inor ez da ohartzen lan horretaz.
- Ez dago errekonozimendurik pertsona gisa: emakumeek ez dute horregatik errekonozimendurik nahi.

Argi dago, hortaz, inolako saririk ez denez gero aterabidea eginkizun horietatik ihes egitea izango dela. Arazoa modurik latzenez sortzen da errealitate printzipiora iristen garenean, desioen eta ideien mundua zeharkatzen dugunean, eta premia ikusten dugunean lan horiek norbaitek egin behar dituela.

Hemen zirkunstantziak guztiz desberdinak dira, bi faktore adierazkor hauen arabera: lan ordaindua izatea edo ez izatea, maila sozio-ekonomiko altua izatea edo ez izatea. Eratzen ahal diren tipologiak kontaezinak dira, horietako bakoitzean graduazio ezberdinak ezar daitezkeelako, eta hori ikerketa honen helburutik urrun gelditzen da. Horregatik, eta modu eskematiko samarrean bi azpitalde baizik ez ditugu ezarriko:

- Lan ordaindua eta/edo goi mailako statusa.
- Lan ordaindu gabea eta/edo behe mailako statusa.

Lan ordaindua eta/edo goi mailako statusa dutenen taldean garbiketa huskeria bat da. Ez da beren balore eskalan baliozko zerbait bezala sartzen: garbiketako zeregin fisikoak albo batera utzi ditzakete beste norbaitek egiten ahal dizkielako. Beste kontu bat da antolamendua, plangintza eta aurrikuspena emakumeen ardurapean daudela, baina zama handiena behinik behin arindu zaie:

- Lanpostu bat badute eta horren soldaterekin haurrak nork zaindu, etxea nork garbitu izateko aukera duten emakumeek beren itxaropideak eta energia beren lanpostuetan garatzera bideratuko dituzte. Astirik eza argudio behinenetakoa da zama horretatik jare gelditzeko.

- Goi mailako statuseko emakumeak aspalditik libratu dira zeregin horietatik. Historikoki “señora” hitzarekin ezagutzen dira eta eginkizun horiek beste pertsona batzuen esku uzten dituzte. Maila ekonomikoa eta kulturala eta beren askatasuna dela medio beste aktibitate batzuetara dedikatzeko aukera izan dute.

Lan ordaindurik ez duten edo goi mailakoak ez diren emakumeen kasuan egoera guztiz aldatzen da. Hauengan garbiketa beren bizitzako alderdirik garrantzitsuenetakoa da gaur egun ere, horrela egokitu zaielako eta gehienetan ere familiaren aldetik laguntzarik ere izaten ez dutelako:

- Erruduntasuna argi dago. Egoera ekonomikoaren kariaz ez dute bestelako aktibitatean aritzeko aukerarik. Barneratuta daukaten funtsezko mezua da kanpoko aktibitate oro “gozatze” dela, eta lan ordaindurik ez dutenez hori ez dago beren eskura. Nolanahi ere den, uste da gizonezkoak direla eskubide gehien dutenak.
- Erruduntasun hori indartu egiten da gizarteak jartzen dizkien auzibideen bitartez, senarren kritikak ere barne direla: “zer egiten du garbitzen ez badu?, etxean ez badago?”, “zertaz arrenkuratzen da gizona bada lanean ari dena?”.

Talde honetako emakumeek dute laguntzaren premia handiena, status sozioekonomikoaren maila zenbat eta apalago hainbat eta premia handiago. Aurka izango ditu gizartearen exigentziak ezezik baita barneratu dituen jarraibideak ere, bere bizitzaren xede nagusia etxeaz arduratzea dela, alegia, zenbat eta hobekiago burutu hainbat eta satisfazio handiagoa izango duela. Eman-tzipazio mugimenduan sartzeko zailtasun handienak dituen emakume taldea da.

Errealitatearen arloan, ez iguripen edo nagusitzen den joera kulturalaren arloan, gure arreta eskatzen duen analisiaren beste maila bat da zernolako bizipen negatiboa den garbiketa lanak egitea. Alde horretatik emakumeak oso garbi mintzatzen dira: lanak “burugabetu” egiten zaitu, “enbortu” eta “ergeldu”.

“Etxekoandrearen sindromea” edo “depresioa” oso gaitz arruntak dira lan mundura sartzeko biderik ez duten emakumeen artean. Lau egoera emozional dira sintoma horien osatzaileak:

- **ERRUTINA:** garbiketa ohitura zirkular bilakatzen da, non dirudien ezerk ez duela ez hasierarik ez amaierarik. Lan bat bukatzean beste bat dago eta gero beste bat, eta horrela beti. Emakumeak 24 orduak lanean aritzen ahal dira beti egongo delako zer egin.
- **MONOTONIA:** lanak ez dira batere erakargarriak, beti dira berdinak. Esker txarrekoak dira gainera, egiten ez badituzu etxea desastre bat egongo da, eta egiten badituzu inor ere ez da ohartzen egindako lanaz.
- **ASPERDURA:** eskergabeko zereginetan behin eta berririo aritzeak “adorerik eza”, “nekea” eta “gogaitasuna” sortarazten ditu, emakumeak aspertzera inoakoak. Ez du pizgaririk aurkituko bere burua aktibatzeke eta egiten duenaz gozatzeko bide emango dionik.
- **BAKARDADEA:** seguru aski etxekoandrearen depresio sortzaile nagusienetakoa da. Hainbeste ordu bakar-bakarrik ibili beharrari, aurrean aipatu egoera emozionalekin batera, zera gehitu behar zaio, alegia, berak bizi duen lagun giroan anitzetan etxea bera izaten dela so-lasgai edota nork garbitzen duen hobeto.

Adibide adierazgarriak dira ondoko hauek:

“Batuetan galdetzen diot neure buruari zer naizen, atezaina edo gizarte laguntzailea”.

“Egun osoan plantxatzen, ontziak eta zorua garbitzen...”.

“Egunero gauza bera egin beharrak nazkatu egiten zaitu, beste zer bait egin gogo duzu. Etxetik kanpora denbora gehiago egongo bazina atsegin zenuke barruan gehiago ego-
tea”.

“Egun osoa gon behar duzu etxean, 24 orduak, zure beharra dutelako edo zure beharra
dutelakoan zaudelako”.

“Ito egiten naiz sekulan aldatuko ez direla pentsatzean, eta senarrak laguntzen badit ere
etxean erantzukizun handiena nire esku dago. Senarrari behin ere ez zaio bururatuko
axuleioak edo lanpara garbitzea, ez zaio horrelakorik burutik pasatu ere egiten”.

“Depresio” hitzak zehazki samar jasotzen du “adoregabetasun” sentipen hori, etxeko lanetan
espezializatu diren emakumeek maiz izaten dutena. Zenbat eta aukera gutxiago izan etxe zu-
lotik ateratzeko hainbat eta arrisku handiago, eta are itogarriago bizitzak behartzen badu etxe-
koandre baizik ez izatera.

Emakume-garbitzaile izatearen ikuspegi horri, etxekoandrearen tradiziozko rola izan baita,
eransten zaizkio beste bi tipologia, etxe barruan ari diren emakumeen egoeraren espektroa
osatzen dutenak: kanpoan lan ordaindua dutenak eta prestakuntza egokia izan arren langabe-
zia daudenak.

Tipologia horietako bakoitzak modu desberdinean planteiatzen du garbiketa, baina ez dago du-
darik hirurek dutela erronka bera, hots, etxeko lanen zamatik nola libratu.

ETXEKOANDREA

Zeregin horietatik libratzeko zailtasun handienak berak ditu, ez baitu bestelako alternatibarik
kanpoan. Alde batetik krisi ekonomiko honekin lana aurkitzea zaila da eta bestetik astialdi kon-
tzeptua apenas dagoen garatua, eta gainera horretaz laketzea gaizki ikusia dago gizartearen
parte batetik, horregatik emakume asko behartua dago etxeko eremuan geratzera, eta hor,
jakina, eginkizun behinena garbitzea da.

“Ni etxekoandrea nintzen. Senarrari sekulan ez diot deus esan, izan ere lagundu izan
balit denbora gehiago izango nukeelako eserita egoteko. Ni neu bakarrik aski nintzen
etxea gobernatzeko”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Hezkuntza, zirkunstantzia eta pertsona arloko baldintza horien aurrean alternatiba batzuk ager-
tzen dira, lotsati samar bada ere, etxekoandreen artean modu indartsuago batean sustraitu be-
harko liratekeenak:

- Barneratutako baloreak gainditzea, zentzu honetan, alegia, garbiketak ez duela berezko tre-
beziarik behar; esan nahi baita, emakumeen nortasuna garbitzaile izatea baino hagitzez ha-
runtzago doala. Eztabaida hau interesgarria da emakumeak positibatzen dituzten ezaugarriak
zein diren definitzeko.
- Gizartearen errekonozimendua ez ezik familiarena ere lortzea, hurbileko lagunena, kontura
daitezela emakumeak zenbat lan egiten duen eta zein beharrezkoa den; haren lanagatik zen-
bat diru aurreratzen den, nolako esfortzua den harena, etxeko funtzionamenduaren kontro-
la... Beraz, elkar ulertzearen eta maitasunaren arloan gaude.

- Beren buruarekiko errekonozimendua erdiestea, beren burua baloratzea egiten ari diren lanagatik, konturatzea beren eginkizuna gizonena bezain ohoragarria dela. Emakumeak familiaren beharrak betetzen saiatzen dira, eta hori enpresa bateko makroegitura baterako egiten den lana baino nabarmenagoa da.
- Gauzak argi uztea, batez ere berdintasuna eskatzen ahal den alderdietan: emakumeen eta gizonen ordutegien arteko diferentzia, etxeratzen direnean zereginik badago elkarren laguntza izan dezaten. Asteburuak bientzako atsedenaldi izan daitezten, eta berdin oporrak. Harritzekoa da estatistikako datuetan ikustea asteburuetan egiten diren lan orduak nola gehitzen diren, emakumeen atsedenaldi izan beharko zuketenean.
- Pozbideak kanpoan bilatzea; etxea funtzionalago bihurtu da eta ez du hainbeste dedikazio eskatzen. Barruan lortu den askatasun hori proiektzio sozial handiago batekin osa daiteke. Emakume bakoitzak gogozkoen dituen aktibitateak aurkituz: paseoan ibili, ikastaroetan parte hartu, kultur maila jaso..., edo, zergatik ez, atsedena hartzea, eta errudun ez sentitzea ezer egin gabe egoteagatik.

LAN ORDAINDUA

Kanpoan lan ordaindua duten emakumeek dute aukera hoberena garbiketa lanetik libratzeko. Hala eta guztiz ere, gizonetakoek partekatzearen zentzua ez dutenez bere egin, emakumeak kanpoan lan egiteaz gainera etxe barruan ere aritu beharrean aurkitzen dira, eta horrekin beren esfortzuak bikoiztu egin behar.

“Esanak esan, etxeko lanak neskek egiten dituzte. Lan egitea eta independizatzea nahi baduzu deneri heldu beharko diozu”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

“Lanaldi bikoitzak” nabardura franko ditu, neskamea hartzeko aukerarik badagoen edo ez, zereginak partekatzen diren, adina, laneko egoera... Baina dudarik ez dago emakumeek dutela zamarik handiena bere gain. Baliozkotzat jotzen dira alternatiba hauek:

- Garbiketa kontzeptua birmoldatzea, funtzionaltzat hartuz; hau da, exigentzia maila murriztu eta etxeko lanei dagokienean planteamendu razionalagoa eta eraginkorragoa izatea.
- Esfortzuak elkarrekin egitea, une oro garrantzi gehien duenari lehentasuna ematen saiatuz; horren arabera egunen batean garbitu ezin dena hurrengoan garbituko da. Arazoaren oinarria etxeko lanak metatzean dago.
- Familiari lankidetzat eskatzea, nor bere neurrian etxeko zereginetan sar dadin. Modu egokiena da nork bere txokoa garbitzea eta guztiena dena denen artean.

PRESTAKUNTZA MAILA IZAN ETA LANGABE DAGOENA

Mota horretako emakumeak soziologikoki garrantzi handia hartzen ari dira. Lan munduan integratzeko prestakuntza nahikoa duten pertsonak dira, baina honegatik edo horregatik artean

lanik lortu ez dutenak. Eskaintzen zaien irtenbidea da etxekoandre izatea. Horrek frustrazio bikoitza eragiten die: etxekoandrearen eginkizunak dakartzan arazoena eta beren iguripenen zapuzketarena.

Oro har, pertsona gazteak dira, emakumeen askatasunerako mugimenduaren barnean heziak, non azpimarratu baita lanak autorrealizatzen duela eta etxekoandre izateak berriz degradatzen. Norberaren iguripenez gain familian eta lagun artean sortu ahal izan direnak daude.

Horrek dakarren tentsioa gogortu egiten da enplegua lortu eta geroztik lan gabe gelditzen denean (ekonomiaren gorabeherak direla bide edo haurra izateagatik). Kasu horretan familiaren dinamika birmoldatzen da eta emakumeak galtzaile suertatzen dira.

“Orain arte senarrak eta biok elkarrekin egin baditugu etxeko lanak, haurra izan ondoren uste dut dena neure bizkar izango dudala. Neurri batean arrazoizkoa ere izan daiteke, baina ez nik hala hautatu dudalako”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Azpeitia)

Talde horrek soluzio zaila du. Etxekoandreen aholkuek ez dute sobera balio, horien idealak bes-telakoak direlako, lan sozial batean aritzeko, horien prestakuntza horretarako baita, eta etxeko lanak bigarren mailakotzat hartzen dituzte. Estrategia gisa honako hauek seinala ditzakegu:

- Jakinean egotea etxekoandre izatearekin nahitaez ez dagoela balore eta gizarteak emandako rolak zertan onartu. Eginkizunak bete daitezke emakume tradizionalaren estereotipoa norberenganatu beharrik.
- Etxetik kanpoko aktibitateak garatzea, prestakuntzarik ez dutenek baino aukera gehiago ditzutelako. Kezka berri horiekin frustrazio karga arinduko lukete. Gizartera aldatzea beren proiektzioa lan proiektziorik eza nolabaik konpentsatzeko.
- Familiakideei partekatze eta norberenganatze ideiak onar ditzaten eskatzea, norberak duen astiaren arabera, noski. Etxekoandrea delako horregatik familiako beste kideek ez dituzte beren egitekoak alde batera utzi behar.

Azkenik, emakumeei eta garbiketari buruzko atal hau ezin dugu amaitu gizonek partekatze eskakizunari nola erantzuten dioten aipatu gabe. Alde horretatik, ikusten da nolabaiteko elkarlana badela nahiz ez den emakumeek behar duten bezain bestekoa. Gizonezkoei berriz, iruditzen zaie egiten dutena baino gehiago egiten dutela.

Gizonek etxean egiten dutena biltzeak hiru sargune tajutzerak garamatza: kanpoko gunean errazen asumitu daitezkeen eginkizunak daude eta barnekoan oraindik onartu ez direnak:

- KANPOKOA: etxea garbitzea, janaria prestatzea, xurgagailua pasatzea, erosketak egitea, haurrak kalera ateratzea...
- BITARTEKOA: hautsa kentzea, arropa eskegitzea, garbiketa orokorra, haurrak aldatu-bainatu-janztea...
- BARNEKOA: plantxatzea, ikuzgailua, bainua, kristalak, axuleioak, lanpara...

Familia bakoitza mundu bat da eta baita gizaki bakoitza ere, horregatik kategorizazio horrek balio orientatzailea du soilik. Inkesten bidez finka daitezke aktibitate bakoitzeko portzentaiak. Hemen dagokiguna da gizonen sarbidea garbiketa alorrean errazten edo oztopatzen duten faktoreak azpimarratzea:

- KANPOKOA: hein bateko onarpen soziala bereganatzen duten aktibitateak dira eta gehienek ez dute esfortzu handirik eskatzen. Bestalde, gizonek noizbehinka baizik ez dituzte burutzen eta badute izaera maskulinoarekin halako loturaren bat: lana zuzenean egiaztatzen dela.

- **BITARTEKOA:** aktibitate horiek jauzi kualitatibo bat erakusten digute gizonen aldetik etxeko lanen inplikazioan. Pittinka-pittinka sartuko dira, gehienbat emakumeen presiopean. Gizonak “laguntza” gisa jotzen dute.
- **BARNEKOA:** eskergaitoko lanak dira guztientzat, etxeko desatseginenak, zikinenak, zailenak. Gizonak ez dute ulertu nahi lan horiek ere egin behar direla, eta aipatzen diren bakoi-tzean, emakumeen zereginak direla uste dute. Arropa eta horren ingurukoa (ikuzgailua, plan-txa), betidanik emakumeen kontrolpean egon direlako, eta garbiketaren gainerako lanak esfortzu bat eskatzen dutelako, eta esfortzu hori eginik ez delako ezertan igerri ere egiten.

EMAKUMEAK ETA AMATASUNA

2.2

Emakumeek etxeko eremuan izan dituzten eginkizun klasikoetako bat “amatasuna” da. Kontzeptu horren baitan biltzen ditugu ama izateak definitzen dituen berariazko kualitate guztiak, besteak beste, zainketa, garbiketa eta jaztea, baina ikuspegi erlazionago batetik ikusita, jokuan diren afektuekin lotuago lan rutinario edo formazkoekin baino.

Azalpen hori egin dugu amatasunaren bi kontzeptu argiro bereizteko: batek zerikusia du formazko zainketekin eta besteak emoziozko inplikazioekin. Lehenbizikoa aurreko atalari dagokio, “garbiketaren” atalari, hortaz, emakumeek beren gaineratik kendu nahi duten zama da; bigarrenak maila sakonagoetan du eragina eta horregatik ordezkatzeko zailagoa da. Azken adiera hau izango da atal honen gaia.

Azterketaren abiaburutzat hartzen baditugu emakumeen emantzipazio prozesuarekin batera gertatzen ari diren aldaketak, ikusiko dugu amatasunaren inguruan ere mugimendu horrekin bat datozen eraldaketak gertatu direla. Funtsezko bi erreferente daude eraldaketa hori zein parametrotan suertatzen ari den ulertzeko.

FAMILIA KONTZEPTUAREN ERALDAKUNTZA

- Estatistikako datuetan eta gizartearen iritzian argi dago familiak zabalak izatetik nuklear izatera pasa direla, gero eta gehiago lotura zuzenetara bideratzen dira eta gero eta gutxiago lehengusu-lehengusina, osaba-izeba eta aiton-amonekiko harremanetara. Gero eta seme-alaba gutxiago izaten dira.
- Familien barruan gizonak eta emakumeak zegozkien tradiziozko rolen oreka berregituratzen ari da. Botere erlazioak berrantolatze bidean daude emakumeak erdiesten ari diren egoera berriari esker.
- Nuklearizazioak bezala boterearen birbanaketak ere, eragin zuzena du seme-alaben heziketan. Eta horien heziketaz denaz bezainbatean beharrezkotzat jotzen da erantzunkidetasun handiagoa gurasoen aldetik, beraz ardura gehiago izatea aitaren aldetik, eginkizun gehiago bere gain hartzea.

BALORE SOZIALEN ERALDAKUNTZA

- Gizartearen ereduak eragin zuzena izaten dute familiaren baitan, agertzen diren joeren arabera moldatzen dutelako haren funtzionamendua. Horrela “bizi kalitatea”, “gizabanakoen independentzia handiagoa” edo “gozamena” bezalako kontzepzioak indarra hartzen ari dira familien egituretan.
- Familia galtzen doa bere garaian izan zuen izaera itxi hura, eta iragazkorrago ari da bilakatzen. Alde horretatik, emakumeak gizarte eta laneko eremuan sartzeak berebiziko eragina izan du.
- Familiakide bakoitzak kanpoan bere lotuneak ditu eta horien bidez bere nortasuna garatzeaz gainera etxeko eremuan baloratu egingo ditu.

Familiaren egiturazko eraldakuntzaren bitartez, balore berriak eskuratzearekin batera, emakumeen rola ere eraldatuz joango da:

- Lanean mailaz igotzeko.
- Beretzat denbora izateko.
- Hautatzeko aukera gehiago izateko.

Eta horrek ezinbestean eragina du emakumeak bere burua amatzat hartzeko garaian, are eta seme-alabak beraren garapenerako mugapen bat izan daitezkeela pentsatzeraino:

Beharko ditugu sakonetik aztertu kostu horiek, izan ere amatasunaren ohiko kontzepzioaren iraultza adierazten digute eta:

- Kostu ekonomikoa: egungo egoera ekonomikoa ez da prezeski laguntzarik onena lehen beste seme-alaba edukitzeko. Premia berri franko agertu da eta horrela familien arazo ekonomikoak areagotu egin dira, batez ere gazteen artean. Sozialki honela adierazten da: “bisitza hain dago garesti ezin duzula haurrak edukitzeko planik egin”.
- Kostu pertsonala: lehenagoko emakumeek garatzeko eremu bakarra zuten, gaur, ordea, aukera gehiago dituzte. Seme-alabek haien proiektio soziala muga dezakete, berekin dakartzate hainbat erantzukizun eta haienganako dedikazioa kanporako hedapenarentzat ozttopoa da.
- Kostu emozionala: ama ez den beste norbaitek ere zain ditzake seme-alabak eta haien ardura izan, baina afektibotasuna lotura bortitza da ama batentzat. Emozioari tarte handia egiten diotenez emakumeek mugatuta izango dute beste tokietan beren karga afektiboa jartzea.
- Aukeren aldetikako kostua: “Ama izatearen” eta lan eremuan mailaz igotzearen arteko batera ezintasuna jakinarazten digu. Seme-alabek denbora kentzen digute, eta lan arloan ahalbideak eta aukerak. Beste alde batetik, enpresak ere ez du begi onez ikusten amatasuna.

Lau faktore horiek planteamendu razional bat egiteko premia agertarazten digu ama izatearen gainean. Zirkunstantzia berrien aurrean emakumeek ongi pentsatu beharko dute, baldintzak neurtu eta ondorioak atera. Eraitza datu estatistikoetan ikusten ahal dugu: seme-alaben kopurua ausarki jaitsi da, gurasoen adinak berriz gora egin du, ezkongabeak eta haurrik gabeko senar-emazteak ere gero eta gehiago dira.

“Niri gustatuko litzaidake ama izatea, baina daramadan erritmoarekin neure bizimoduari eutsi nahi diot. Orain arte emakumeen bizitza izan da besteei dedikatua, orain ez dago holakorik”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Orain arte amatasunaren eraldakuntza aztertu dugu ama izateko orduan dauden zailtasunen aldetik ikusita, baina aldageta kulturala ama direnen artean ere agerian dago jadanik. Amatasunaren bizipenak iraganekoekin alderatuta oso desberdinak dira egoera desberdina den bezalaxe:

- Haur kopurua txikiagoa izateak loturak gehitzen ditu. Hau da, alderdi kuantitatiboa orekatu egiten da erlazioen gehikuntza kualitatiboen bitartez.
- Emakumeen egoera berria dela eta —beste eremuetan ere agertzen dena, bestalde—, bere eginkizunetako batzuk besteren esku utzi behar izan ditu, eta horrekin hutsuneak konpentsatu beharra sentitu du. Haurtzaindegia, umezainak, e.a. gaur egungo balore transmisoreak dira, eta amak egoera hori orekatu nahian gehiegizko babeserako joera izan ohi du.
- Iraganean, emakumeak ama izateko hezitzen ziren, gaur egun oster, beste itzaropide batzuk daude, amatasuna nortasun femininotik urruntzen dutenak. Horren ondorioz emakumea ama bilakatzen denean ez du segurtasunik, eta horrenbestez, oreka bila hasten da aholkularietan laguntza bilatuz (pediatrik, aldizkari espezializatuak) bai eta produktu egokienetan (elikadura, jolasak,...) eta egungo amen ezaugarri bat agertzen da, obsesioa.
- Gure mundu hau gero eta konplexuagoa da eta hiritarren prestakuntza, etorkizunean erronka berriei erantzun behar izango dieten hiritarren prestakuntza hura, funtsean hezkuntzan oinarrituko da. Amari gizarteak eskatzen diona da beren eginkizunetan eginahal guztiak egin ditzala familiaren eta gizartearen arteko lotura erdiesteko.

Ikus daitekeen bezala, ama izatea definitzen duten ezaugarrien eraldakuntza kualitatiboa agertzen da zalantzarik gabe. Zinezko aldageta bat dago hala amatasunaren eginkizunetan nola erreferenteetan ere.

Baina, nola bizi dute emakumeek aldageta hori?, nola sentitzen dira ama direnak? “Garbiketaren” atalean aztertu duguna ez bezala, amatasunari dagokionez, kalitate prozesua zailagoa da, mingarriagoa, barneko nahiz kanpoko muga trinkoagoak pairatu behar dituen. Garbiketa desiatzen ez den zerbait da eta ama izatea berriz bai.

- Atseginagoa da.
- Familiaren eta gizartearen aldetik errekonozimendua dago.
- Iharduera efektiboa da, lan mekanikotik urrun dagoena.
- Gaitasun batzuk ezinbestekoak dira, trebezia batzuk ere eskatzen ditu.
- Ez du “ergeltzen” ez eta “degradatzen” ere.
- Intimitate arlokoa da.

Emakumeen emantzipazioan, beraz, garbiketaren auzian bezala jokoan daude hainbat instantzia. Hemen gatazka latza izango da eta emakume batek ere ezin izango du saihestu.

Gatazkaren garrantzia agertarazteko belaunaldiz belaunaldi izan den eboluzio prozesua aztertuko dugu; oro har bereiz dezakegu lehen amatasunak zuen adiera eta gaur duena: lehen amatasunak ematen zion bere zentzua emakumeen bizimoduari, baina gaur egun emakumeek badituzte bestelako errealizazio eremu batzuk.

LEHEN: Amatasuna emakumearen oinarritzko muina zen.

“Emakume izatea batez ere ama izatea da”.

ORAIN: Emakumearen oinarritzko muina emakumea bera da.

“Emakume izatea gauza asko izatea da ama izateaz gainera”.

Adinekoen belaunaldiarentzat amatasunak zentzu existentziala du. Ez zitzairen buruan sartzen emakume batek ama izateari uko egin diezaiokeenik, are gehiago, ume gutxi izateko ere aitza-kiren bat bilatu behar eta arazo psikologikoak aipatzen ziren. Umerik ezin izan zutenek nahigabe handia izaten zuten, une hartan hainbestekoa baitzen amatasunak zuen garrantzia:

- Pozbiderik handiena zen hura, izan ere garbitzaile eta emazte izatetik goragoko kategoriara igotzea baitzen.
- Umeek ematen duten pozak askogaitik konpentsatzen zuen etxe garbitzearen desatsegina eta gizartean zuen estimu eskasa.
- Emakumea eta ama izatea bat zen, ez bakarrik umeak izateko gaitasunagatik baita nortasun femeninoa eratzen zuelako, emakume ezaugarriak egituratzen zituelako. Bat nolako ama zen halako pertsonatzat hartzen zuten.
- Funtsezko egitekoa zuen oreka bilatzea; norberaren frustrazio guztiak desegiten ziren seme-alabengan jartzen zen maitasunean.

Erdiko belaunaldia amatasunaren gaineko gogoeta horien inguruan hezi zen, baina eragingarri izaten hasi ziren gizarte eremuko beste aldagai batzuk ere, amatasunaren esentzialtasuna zailantzan jartzen hasi zirenak. Prozesu kontzientea baino gehiago bizipenaren ondorioa izan zen, eguneroko gatazketan sortua, etxeko alorra eta laneko alorra bateratzeko orduan:

- Kanpoko zirkunstantzia berriek seme-alabenganako denbora gutxiago uzten zuten, eta horrek barneko arazoak sortzen zizkien emakumeei.
- Belaunaldi horretan gertatu da zinez aldaketa, gizartearen iritzien eta barneratutako rolen kontra borrokatu behar izan dutelako.
- Gatazkaren erroa ama izatearen pozaren eta beste eremuetan errealizatzeko premiaren arteko oreka bilatzean zetzan.
- Batbederaren barnean ideia bat hasi zen mamitzen, zera, haurrak emakumearentzat zama bat direla jakinik ere maita daitezkeela.

Belaunaldi gazteak aurkitu dituen kultur parametroetan arestian aipatu kontzeptu horien esanahia modu zehatzagoan somatzen da. Arlo razionalean behinik behin argi dago emakume izateak ez duela ezinbestean ama izatea ekartzen, amatasunaren aldeko aukera, hortaz, modu libreago batean azaltzen da:

- Amatasunak orain ere satisfazio handia ematen du, baina ez bizitzari erabateko zentzua ematen diolako, baizik eta beste arloetan bilatzen duen autorrealizazioari bizipen zentzu desberdina ematen diolako.
- Gizonekin partekatu nahi duen erabakia eta esperientzia da. Arlo horretan adiera familiarra goa eta sakonagoa irabazten du amatasunaren ezaugarrietan.
- Nortasunaren muina emakumea bera da, horri gehi dakizkioke zenbait esperientzi afektibo, adibidez, haurra izatea, baina beti ere, batek dauzkan beste idealen errerealizazioaren neurri berean. Arlo teorikoan behinik behin.
- Egia ere da ama izan direnen esperientziak erakusten duela amatasunarekin aldera daitekeen “autorrealizazio” gutxi dagoela. Beste kontu bat da horrek dakarren heziketa edota lan oztopoak.

Interesgarria da familiekiko elkarriketetan jarrera desberdinen artean zernolako eztabaida sortzen den. Amatasunaren inguruan gertatzen dira aurkapen handienak, bada, gainerako gaietan dagoen konplizitatea hori hemen ez da agertzen. Amatasunak balore eskala bat eratzen du, belaunaldi bakoitzaren identifikaziozko ezaugarriak bereiziko dituen.

Amona-iloben artean agertzen dira gehienbat belaunaldien arteko haustura horiek, ama-alaben artean usu gertatzen badira ere. Oso hedatua dagoen jarrera da ama izatea gauzarik miragarriena dela konbentzitu nahia, eta gazteak defenditzen dira esanez gauza handia dela bai, baina bizitzan zehar beste faktore garrantzitsu batzuk ere badirela.

Deskreditatzeko argudio zoliak izaten dira: zein bakarti gelditzen diren emakumeak seme-alabak etxetik alde egiten dutenean (gazteen kritika), eta gazteriarren berekoikeria ama izateko esperientziari ateak ixten dizkiotenean (zaharren kritika):

“Beren errerealitateaz ohartzen dira seme-alabak handitu ahala etxetik joaten zaizkienean. Ordura arteko betebeharrak gabe gelditu direla konturatzen dira eta ez dakite zertan eman orain sobran daukaten denbora. Barrenetik hutsik baleude bezala sentitzen dira”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

“Patxadan bizitzera ohitu dira eta, jakina, haurra izaten dutenean ez dute horrenbeste abantailarik. Gaur egun ez daude sofritzera ohituak, ardura gutxi dute, ez dute ulertzen ama batek ematen duen babes beroa bezalakorik ez dagoela”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Alde bietarako salaketa horien azpian errerealitate bat dago, belaunaldi guztiei modu berean dagoena, eta errerealitate hori eztabaida bat da, ea emakumeak zein neurritaraino emantzipatzen ahal diren amatasunetik. Galdera hori emakumeen askatasun bidearen oinarri-oinarrian dago eta eztabaida bizi bat eskatzen du.

Oztoporik handiena da amatasun kontzeptuak duen karga mitikoa. Gure gizartean amatasuna beti ulertzen da parametro positiboen ikuspegitik, jendearen buruan ama gaiztoa pentsaezina balitz bezala; alderdi negatiboa irudikatzeko “amordea” aipatzen da, seme-alabekin berezko loturarik ez duena. Ama agertzen zaigu, hortaz, orekaren, ondadearen eta tasun positiboen erreferente orokor gisa.

Baldintzapen kultural hori errotuago dago “amatasun sena” aldagaia sartzen denean, non joan jartzen baitira gizarte arloan markatutakoak baino sakonagoko instantziak. Umegintzaren alderdi biologikoa hartzen du aintzakotzat, halako indar magikoak sortarazten dituen, kode na-

turalekin eta emakumeen izaerarekin zerikusia duena. Amatasun sena ama batek izan dezake soilik, umea berak sortu duelako, haurraz bera erdi delako, eta hori sakonean, oso barruan sentitzen da.

Denak adierazten digu biologiari eta kulturari dagokiona hertsiki lotuak daudela, batek bestearengana jotzen du eta berdin alderantziz. Gaur egun zaila da oraindik amatasuna gaitasun pertsonalen eta praktikaen emaitza dela ulertzea, artean ere askok uste dute ama izatearen sena ezin daitekeela zainketarekin eta maitasunarekin bakarrik ordezkatu.

Ustekeria hori gizonengan eta emakumeengan dago bizirik, eta bereziki seme-alaben lehenbiziko haurtzaroari buruz pentsatzen da horrela; handi egiten direnean, oster, instintiboa eta kulturala bereizi egiten dira eta bestelako hezitzaileak sartzen dira: aita, irakasleak, adiskideak...

Lehen aldiko haurtzaroan artean ez da izatearen nortasuna eratu, haurra zentzaziozko mundu batean murgildurik bizi da, non komunikazio-hari bat behar izaten baita loturak ezartzeko. Afektu eta harremanen giroa eratzen da, haurtxoa kanpoko interferentzietatik babesten duena. Xehetasun horiek (metakomunikazioa, babesa, afektibitatea) osatzen dute amatasun sena.

Sineskera horren aurrean, emakumeek aurrerako urrats batzuk eman dituzte, etapa hauetan ikusten ahal ditugunak:

- Ezkontza eta umegintza ez dira bat: ezkontzaren helburua ez da haurrak izatea eta familia bat sortzea soilik. Badira beste arrazoiak ere, hala nola bikotean bizitzea eta jatorrizko familiatik independizatzeko. Umegintza helburua bereizteko lagungarri izan dira elementu hauek: antisorgailuak alde batetik, eta kontrolari eta plangintzari ematen zaien garrantzia, bestetik.
- Amatasuna eta erabateko dedikazioa ez dira bat: emakumeen egoera berria dela eta, haien energiak beste esparru batzuetara bideratzera behartuta daude: lan mundura, gizartera. Eta horrek praktikan seme-alabekiko dedikazio gutxiago izatera daramatza emakumeak, bide ematen duelarik tradizioz amak nolakoa izan behar zuen definitzen zuena bereizteko: premia guztiak betetzea, une oro erre eta gertu egotea, zil-hestea jaiotzetik harantzago iraunaraztea.
- Emakume izatea eta ama izatea ez dira bat: emakumeek badute beste arlo batzuk beren nortasuna eraikitzeke, ama izatea horietako alderdi bat da ideal multzo horretan. Bestalde, "amatasun baja" izateko eskubidea eskuratzeak eta eskubide hori gizonengana hedatzeak erakusten digu rol hori ez duela emakumeak bakarrik bete behar.

Gizartean eboluzio hori badirudi finkatua dagoela; orain sasoi ona da emakume bakoitza aldaketa horietara egokitzen joateko eta horretarako amatasunak duen sinbolo-zamatik libratu behar da, ama izatearen rol horrekin jarrera orekatuagoa izateko (arrazonamenduzkoa, emozionala).

Emakumeak erabaki behar du bere amatasunaren gainean:

Seme-alabarik izan nahi badu "zenbat", eta haiekin ama "nola" izan.

Erabaki horretan eragin asko daude. Ez da berdina izaten kanpoan lana egiten duten eta lan gabe dauden emakumeetan, ez eta ere gizarte maila altuko edo baxukoetan ere. Modu guztiz eskematikoan aldagai horiek elkarrekin alderatzen ahal ditugu kategoriatan hauek ezarriz: "kanpoko enplegua-goiko mailako statusa" eta "etxekoandrea-behe mailako statusa"; badakigu sinplifikazio bat egiten ari garela, baina kasu honetan azterketa kualitatiboak ez digu beste hipotesi batzuetan barrena sartzeko aukerarik ematen. Azterlan kuantitatiboaren zeregina izango da azpizaldea bakoitzaren ezaugarriak finkatzea.

Kanpoko enplegua-goï mailako statusa zatiketari dagokionez, esan dezakegu bere amatasunaz erabakia hartzeko baldintza onenak dituen taldea dela. Gizartean ongi txertatuta daudenez ama izatean izan dezaketen tradiziozko eragina arintzeko moduan daude:

- Hein batean lanpostu atsegina dutenek eremu horretan autorrealizatzeko aukera izango dute, beti ere, amatasunarekin egokitu beharrekoa. Haien erabakian muga izango da lortu nahi duten garapen profesionalaren maila, baina gizarteak ez ditu gaitzetsiko haurrik izan nahi ez badute, besteak beste, onartua dagoelako jadanik emakume kualifikatu batek bere lanbide karreraren alde aukera egin dezakeela. Oso bestelakoa da kualifikazio maila hori edo lanaren satisfazio hori ez duten emakumeen kasua.
- Statusari kultur maila atxikitzen zaio, ahalmen ekonomiko eta askatasun handiagoak, eta alderdi horiek funtsezkoak dira erabakia hartzean hain baldintza gogorrik izan ez dadin. Hemen azpimarratu nahi dugu, hala ere, goi mailako statusak ez duela halabeharrez haur gutxi izatea esan nahi, izan ere, ez baita horrela gertatzen, baizik eta erabakia askatasun handiagorekin hartzen dela; hautatzeko aukera dago, gizartearen beste mailetan gertatzen ez dena.

Beste taldea, etxekoandrea-behe mailako statusa, alegia, kaltetuena da, erabakia zirkunstantzien arabera hartu beharra izan duelako eta ez hautapen libre baten bidez.

- Emakume langabeak beharturik daude etxekoandreaaren rola betetzera, eta horren barruan lehentasuna emango zaio ama izateari. Amatasunak emango dio nortasuna eta bere bizitzak garrantzi handiagoko zentzua hartuko du seme-alabekiko harremanen bitartez. Beste alde batetik, ama izatearen ondarea dela eta barneratu dituen rolak ageriago daude.
- Statusaren aldagaiak eragina du juxtu zentzu horretan, maila sozio-kultural apalak gizarteko proiektzio apalagoarekin, eta horren ondorioz emakumearen ohiko rolen zurruntzearekin lotzen direnean. Emakumeak errudun sentituko dira amatasuna usadio zaharrean ez bizitzea-gatik. Ohar gaitezen hemen ez garela ari seme-alaben kopuruaz, amatasuna bizitzeko moduez baizik.
- Kanpoko enplegurik ez dutenek, goi mailako statusekoak ez direnek bezala, zailtasun handiak izango lituzkete seme-alabak zaintzera buru-belarri dedikatzen ez den emakumeak jasan behar izaten duen gaitzespenari aurre egiteko: “horrek dotore bizi nahi du-eta”, “bere buruaz bakarrik pentsatzen du”, “haurrak abandonatzen ditu”. Argudiorik gabe gelditu da ama izan aurreko emakumetasuna defenditzeko.

Segmentu bakoitzaren koiunturazko inguruabarrak baino harantzago, ikusiko dugu lanean nahiz gizartean proiektzio bat izan nahi zuen emakume batek (langabeen kasuan) bere amatasunaren kontzeptua birpentsatu eta birformulatu behar duela. Beste hitzetan esanda, ohiko ezaugarriei ihes egin behar diela, zeren kanpoko lanpostu batean sartzeak ez dio utziko haurrengan dedikazio osoa jartzen.

Prozesu horren eragozpenik txarrena da berekin dakarren erruduntasun zama, seme-alabak “abandonatzea” bezala hartzen dena. Ez dio ezertarako balio gizarteak, bere ezaugarri berriak direla eta, egin dezakeen balorazioa, berak bere barrenean bai baitaki txikitandik sustraituta dituen jarraibideak “traizionatzen” ari dela.

“Ume txikiak dituzten emakume guztiak etxean gelditu beharko lirateke, bestela abandonatuak izaten baitituzte. Haur txikiek amaren maitasuna behar dute”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Gasteiz)

Kanpoko enplegua amatasunarekin egokitzea oso zaila da emakume guztientzat; egia da, hala ere, egoerak egoera, trauma hori handiagoa edo txikiagoa izan daitekeela, baina emakume guztiek aitortzen dute galera handia izaten dela, batez ere seme-alabak txikiak direnean:

- Afektibitateko gune eta momentu batzuen galera.
- Eginkizun aktiboaren galera, amatasun lanak beste batengan utzi beharraren ondorioz.
- Neurri batean, emakumearen izaeraren galera.
- Izaera instintibo/genetiko/naturalaren galera.

Amatasunaren emantzipazioak horrelako “eskasiak” dakartza, emakumeak zorretan jartzen ditu barneratutako profilarekiko. “Garbitzaile” eginkizuna ez bezala, non galerak etxean izan zezakeen kontrola galtzearekin uztartzen baitziren, “amatasunari” dagokionez galerek osagai sakinagoa dute, beren nortasuna auzitan jartzearekin lotuagoa.

Neurritz gaineko “amatasun sena” profilaren nagusigoari aurre egiteko parametro gaurkotuak sortu dira ama izatea birkokatzeko. Horrela, emakumeek gaur egungo erreferentziak izan ditzakete eta emantzipazio prozesuari lasaia ekin diezaiokete; esan nahi baita, kultur mailan behintzat, laguntza izaten ahal dutela beste arloetan garatzeko, horregatik errudun sentitu beharrik gabe.

“Ama” kontzeptua berriro definitzeko premia azaleratu da, amatasun eredu berriak modutzeko.

Zentzu horretan, hutsune eskerga ikus daiteke; dauden erreferente bakanek “Super-Woman” oroitarazten digute, arrakasta profesional handiko emakumeak, eta gainera seme-alabekin egoteko, zaintzeko eta haiei ulertzeko ahalmen handikoak; eredu horiek, zeinak askoren ispilu baitira, frustrazio iturri besterik ez dira, eta orekarako baino gehiago lanak metatzeko eredu dira.

“Lanaldi bikoiztuaz” hitz egiten da lan ordainduak eta etxeko lanak agertarazteko, baina horrekin bakarrik ez dago adierazterik seme-alabekiko gertatzen den atezu emozionala. Horregatik beste kontzeptu batzuk erabili behar dira, esate baterako “eginkizunen metatzea” edo “bizipenaren eskizofrenia”.

Emakumeek izan ditzaketen irtenbideak finkatzeko, ondoren emakumeek beren kabuz erabiltzen dituzten jarraibide batzuk azalduko ditugu. Xede horretarako egoki deritzogu garbiketaren atalean aztertzen genituen hiru tipologiak berreskuratzeari:

- Etxekoandreak: amatasun kontzeptua berriz definitzean agerian jarri ditu amek burutzen dituzten eginkizun desberdinak, besteak beste, lehen adierazten genuen bezala, gizarteak ikusten ez dituen guztiak (hezitzailea, erizaina, psikologoa, baloreen irakaslea). Beste pertsonen eta familiaren errekonozimenduekin bere rolean hobeto sentituko da, eta hori ezinbesteko urratsa da gero alderdi sozialak garatzen hasteko: astialdiak, ikastaroak, gimnasia, lagunak, kultura,...
- Lan ordaindua: “Eginkizunen metatzea”. “Bizipenaren eskizofrenia” arintzeko modu bakarra gizonen laguntza da. Oreka puntua senarrak ezarri behar du, bikotearen barruan emakumeen prolongazioa delako. Elkarrekin gozatzeak balore ezberdinen multzo bat dakar, emakumeen erruduntasuna deusezten duena.
- Prestakuntza maila bat izan arren langabezian dagoena: Talde soziologiko berri honetan itxaropide profesionalen zapuzketa agertzen zaigu amatasuna asumitzeko eragozpenik handiena bezala, edo aitzitik, autorrealizatzeko eskaintzen zaion irtenbide bakar bezala. Bai batean eta

bai bestean, behar-beharrezkoa da “amaren” eta “garbitzailearen” eginkizunak bereiztea, berezko joera azpibalaratzea delako, eta amatasunari dagokionez ez du horrela izan beharrik. Duen prestakuntza dela medio ipurzapiak, ahiak edota bere seme-alabak nolako azkarrek diren eta antzekoak denbora guztian solasgai izan ordez beste gauza batzuez ere mintza daitezke.

Beraz, egokitu beharra dago barneko mundua, barneratutako rolen eta handietsitako profilen mundu hori kanpoko munduarekin, desiozko rolekin eta lanean zein gizarte harremanetan ezarritako itxaropideekin. Indar horien emaitza izango da emakumeen oreka eta emantzipazioa lortzea amatasunari dagokionean.

Nahitaezkoa da emakumezko taldeetan eztabaida bat sortzea kontzeptu hauek berrikusteko: “amatasuna”, “afektibitatea”, “dedikazioa”, “sakrifizioa”... eta arlo horretan egin diren eginalak emakumezko populazioari jakinaraztea.

Azkenik, orain aztertuko dugu gizonengan, beren aitatasunari dagokionez, gertatzen ari den prozesua. Analisi horretan, oro har, hiru sarbide maila ezberdin antzeman daiteke, ondoko hauek, kanpokoenetik barnekoenera:

- Laguntza ematea emakumeei.
- Nolabaiteko inplikaziozko jarrera.
- Konprometzua beren eginkizunetan.

Etxeko beste eremuetan antzo, oso gizon gutxi iritsi da hirugarren mailara; gehienak oraindik saiatzen ari dira ama bilakatu diren emakumeei laguntza ematearen ondorioak bere egiten. Maila bakoitzak gero eta erantzukizun gradu handiagoa eskatzen du:

- Laguntza: femeninotzat jotzen diren eginkizunetan.
(“Ipurzapiak aldatu”, “bainatu”, “biberoia eman”, “sehaskari eragin”, “jaiki”...).
- Jarrera: femeninotzat jotzen diren portaerak norbereganatzea.
(“Afektibitatea”, “sentiberatasuna”, “laztanak”, “gorputz jokoak”).
- Konprometzua: seme-alaben heziketa maila orotan partekatzea, ez bakarrik “agintezko” edo “jostetako” roletan ihardunez, baita ere eguneroko inplikazioan.

Emakumeak “ama izatetik” emantzipatu behar diren bizkitartean gizasemeek ikasi behar dute “aita izate horretan” inplikatzeko. Trukaketa horretan egongo da oreka familia aldetik eta pertsona aldetik.

Gizonari eskatzen ari zaion esfortzuaren eta erantzukizunaren deskarguan, ikus dezakegunez arlo horretan izango du sarrera errazena. Arrazoi hauengatik:

- Garbiketa baino atsegingarriagoa da.
- Begibistako abantailak daude: seme-alaben errekonozimendua, haien barneko aldea ezagutzea (afektuak, sentiberatasuna, emozioen adierazpena).
- Publizitateak erakusten duen gizon modernoaren rolaekin bat dator (Prenatal, Danone), eta aldi berean gizartean indarra hartuz doa (“gizon xamurra”, “bere bizipenak kanporatzeko gai dena”).

Gizasemea arestian aipatutako hiru maila horietan sartzeak heziketan partaide izatea esan nahi du, eta gainera bide emango lioke horrek etxeko beste arloetan ere inplikatzeko.

Ezkon-harremanen gaia “etxeko eremua” kapituluan sartu dugu, etxean emakumeek duten “emazte” rolagatik. Beste roletan bezalaxe honetan ere askapen mugimendu bat somatzen da emakumeak burutzen ari diren eraldakuntzarekin zerikusia duena.

Zehazki, haien xedea da emazte bezala parekidetasun handiagoa eskatzea gizonek izan duten egoera pribilegiatuarekin. Hor dute zuzeneko eragina botere erlazioek. Emakumeek badakite ongi historian zehar bigarren mailako papera jokatu dutela, beti egon dira-eta senarraren premiaren menpe.

Emakumeek “emazte izatearen” betiko ideia eraldatzeko beharra dute.

Kontzientzia hartzea orain errazagoa da lanean eta gizartean eskuratzen ari den egoera berri-gatik, hain zuzen ere kanpoko aurrerapenak etxe barruko harremanak birplanteatzeko eragilea izan delako. Lehenbiziko urratsa da senarrari eskatzea hitza eman dezala etxeko lanei ekingo diela (“garbiketa”, “aitatasuna”), bigarrena, eta adierazgarriagoa, emakumeekiko “jarrera matxistak” alda ditzala.

Hurrenkera hori ez da osoro erreala, franko zaila dirudielako bata bestea gabe gertatu ahal izatea; alabaina, azpimarratu egin ditugu emakumeak poliki-poliki lortzen ari diren aurrerapenak direnez gero. Atal honetan jarrera aldaketa horren esanahiari erreparatuko diogu.

Emakumeek senarrari eskatzen diotena aztertzen badugu, 4 fronte izango ditugu aurrez aurre:

“EMANTZIPAZIOA”

- Independentzia ekonomia aldetik.
- Independentzia psikologikoa.
- Ohiko estereotipoekiko garaipena.

“PARTEKATZEA”

- Zereginak erdibanatzea.
- Gizonezkoen kontzientzia hartzea.
- Batak bestearen eginkizunak bereganatzea.

“KOMUNIKAZIOA”

- Emakumeen balorazioa.
- Proiektu amankomunak.
- Astialdi partekatuak.

“BARNEKIDETASUNA”

- Harreman afektiboak.
- Sexu-harremanak.
- Ezkon-harremanak.

Emakumezkoen beharrianen mapa adierazgarri honetan ikus daitezke “berdintasun” kontzeptuaren esangura desberdinak: alde batetik, egun diren diferentziak murriztea, bestetik, ezkon-bizitzan partaide izatea. Horrek argi agertarazten digu emakumeek gizonezkoen boteretik jare izatea ezezik botere berdintasuna ere galdatzen dutela, bikote proiektu atsegingarriago batean oinarritua.

Ikuspegi sozio-kulturaletik begiratuta, fronte horietako bakoitzaren asmoa da etxean matxismoari eusten dioten zutabeak eraistea. Izan ere, auzitan jartzen dituzte gizonen “agintaritza”, “nagusigo” eta “garaitasunari” eusten dioten jarrerak. Jokabide diskriminatzaileei aurka egiteko beharra dago.

- “Gizon handi baten atzean emakume handi bat dagoela” dioten ideiaen kontra emantzipazioarako gogoazaltzen zaigu, pertsona gisa autonomia lortzeko premia.
- “Emakumea etxean, hanka hautsita” dioten ideiaen kontra partekatze gogoazaltzen zaigu, gizonezkoek ere etxeko ardura izan dezaten.
- “Emakumeak isilago eta politago” dioten ideiaen kontra komunikatzeko gogoazaltzen zaigu, harreman berdinkide baten premia, elkarrekiko balorazioa eta laguntza izan dadin.
- “Ohean puta bezain dama aretoan” dioten ideiaen kontra barnekidetasunaren gogoazaltzen zaigu, bikotearen harremanetan arduratzeko premia, bizipen zentzu atsegingarri bat emateko modu gisa.

Helburuak argi asko daude; emakumeek ederki dakite zer nahi duten, edo zer gustatuko litzatekeen. Kontua da nola jarri praktikan, hau da, nola gainditu gizarteak ezezik senarrak ere paratzen dizkion oztipoak.

Autokontzientziaren puntu horretaraino iristeko nahitaez belaunaldi bakoitzean emantzipazio prozesu bat gertatu behar izan da, gazteengan nagusiengan baino nabariago. Historiak erakusten digu iraganean bikote harremanak portaera zurrunko ereduetan zimentatzen zirela; boterea gizonezkoek zuten; gaur egun partekatuago dago:

LEHEN: Bikotearen harremanak arau sozialen arabera ezartzen ziren.

“Emakumeak bazekien zein izango zen bere eginkizuna”.

ORAIN: Bikotearen harremanak egunero sortu behar dira, elkarrekiko adostasunean.

“Emakumeak bere tokia bilatu behar du harremanetan”.

Prozesu horretan emakumeek egin behar izan dute aldaketa, gizonari ulertaraziz bikotearen harremanak emaztea etxea garbitzen eta haurrak zaintzen edukitzea baino zertxobait gehiago dela. Bera da ezkontzari esanahi berria bilatzen diona.

Belaunaldi bakoitzaren bizipenak aztertzeak jakinarazten digu zein izan diren emakumeek eman dituzten urratsak:

- Adinekoen belaunaldia: Ezkon-harremanak gizonek ezartzen zituzten, beti ere, beren mesedetan, etxetik kanpo lana berek egiten zuten eta gizartean zeukaten protagonismoa errespetatzera behartuak zeuden emazteak. Emakumeak berriz gizonezkoen premiak asetzeko zeuden.

Horien artean garrantzizkoak ziren sexuari zegozkionak eta ama bat bilatzearenak; lehenbikoak ez ziren inola ere atsegingarriak, eta bigarrenak berriz erraz onartzen ziren, seme-alabekin bete beharreko eginkizunak betirakotzea besterik ez baitzen. Ez zegoen, beraz, bikote-

bizitza oso bat, gizonen botereari egokitutako bizikidetasun bat baino. Emakumeen irtenbidea “zuhur jokatzeara” izaten zen, halako xede batzuk lortu ahal izateko.

“Agian esaten duzu, gaur aterako gara, baina futbola dagoenez izorrai! Berarentzat dena; berekoiak dira oso. Gorroto eta dena hartzen diozu. Horrexegatik bihurtzen gara horren umezale”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bermeo)

- Bitarteko belaunaldia: aldakuntzaren belaunaldia da, bertan emaztearengandik espero denaren eta emakume gisa finkatzeko duen gogoaren artean oreka bilatzen saiatzen dira. Haien borroka da senarrari frogatzea berak ere badituela bere premia pertsonalak, sexualak eta sozialak, eta hori senarrak ulertu eta onartu behar duela bikoteak funtziona dezan nahi badu. Emakumeek harreman horietan ematen duten afektibitateak gizonen osagarria behar du. Haren eskabidea da pertsona bezala hartua izatea, “garbitzaile”, “ama” eta “emazte” rolen gainetik.

“Niri esaten didate: eroapena izan behar dun senarrarekin. Baina zergatik pairatu behar dut nik beti?, berak ere paira nazala, nik ere baditut neure arazoak”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

- Gazteen belaunaldia: gizartean bezala bikotean ere berdintasuna eskatzen da, bai eta etxeko lanak banatzeko garaian ere. Emakumeek ez dituzte harremanak betiko parametroetan onartzen, senarraren premiak betetzera bideratzen diren horietan; aitzitik, elkarren arteko laguntza izan behar du. “Senarra” hitzaren ordeztu “laguna” erabiltzeak harremanen aldaketa hori nabarmentzen du. Delako estrategia hori, “zuhur jokatzeara” alegia, baztertzeak zentzu berean azpimarratzen du komunikazio argia, amarrurik gabekoa, izateko nahia.

“Hori berez atera behar zaio, errespetoa dizulako. Garbitzaile xoil bat zarela-eta, errespetorik ez badizu joan dadila pikutara”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Emakumeen sendotasunari zor zaio gizonekin zuten menpekotasuna hautsi ahal izatea. Bere bizitza ekonomiari, afektibitateari eta gizarteari dagokienean, bizitzeko zenbat eta gaituago izan hainbat eta aukera gehiago izango ditu ezkontidearekin berdintasuna izateko, senarrari eskatzeko jarrerak eta jokabideak alda ditzan.

Baina dena ez dago haren esku; gizasemeak ere bere konpromezua hartu behar du erlazio horretan, bestela ez litzateke emakumeen autonomia hobetzea besterik lortuko, baina ez benetako berdintasuna harremanetan. Berdintasun hori izan dadin beharrezkoa da bi kideen aldeko mugimendua:

- Emakumeek etxeko eremua gainditu behar dute lanaren edo/eta gizarte harremanen bidez, gizonen parametro berberekin lotzeko:
 - Mintzagaiak amankomunean.
 - Esperientzia sozialak elkarrekin.
 - Berdintsuko esperientziak lanean eta gizartean.
- Gizonak etxeko eremuan edo/eta afektiboan sartu behar dira harremanak emakumeen maila berean ezartzeko:

— Eginkizun “femeninoak” baloratu etxean.

— Horien alderdi afektiboaz ohartu.

— “Emakumeen mundura” hurbildu.

Bi mugimenduen konbinazioak bidea irekiko du ezkon-harremanetan berdintasuna izateko. Baieztapen hori teorian baliozkoa izanik ere, praktikan lortzea zaila da oso. Horrekin esan nahi dugu errealitatea eta esperientzia emakumeei eskain dakizkien kultur paradigmak baino askoz zailagoak direla. Lehenik eta behin, emakume bakoitzaren zirkunstantziak arras diferenteak direlako, eta bigarrenik, gizonezkoen mugimendua emakumeena baino hagitzez astiroago doalako.

Aurreko ekarpenenetan bezala, kanpoan lana egiten duten edo goi mailako statusa duten emakumeen taldea baldintza hobeagoan egongo da etxekoandre edo status apalekoak diren emakumeak baino:

- Enplegu edo goi mailako statusarekin: alde batetik laneko parekatzeak eta bestetik kulturak eta status ekonomikoak emakumeen egoera indartzen dute. Ekintzarako askatasun handiagoa dute, bai eta kontzientziazteko ahalmen handiagoa ere. Gizasemearekiko diferentziak arront murriztu dira eta horrek ezkon-harreman orekatuagoak izateko bide ematen du.
- Enplegurik edo statusarik gabe: ekonomikoki senarraren menpe egoteak, emazteak lanik ez duelako edo behin-behineko enplegua duelako, mugatu egiten ditu ezkon-harremanak. Emakumeentzat oso zaila da gizarte mundu horretara iristea beren ohiko rolak betetzera beharturik daudenean.

Horrek, guztiorrek, erakusten digu ezkon-harremanen barruan berdintasuna lortzea zaila dela oso, harreman horiek ia ukiezineko parametroetan, afektu, estimu eta balorazioen munduarekin lotzen direnetan, eratzen direlako. Alde horretatik amatasun kontzeptuaren emantzipazioarekin parekatuko litzateke, baina diferentzia batekin, alegia, hemen ia ezinbestekoa dela gizonezkoen parte hartzea, eta amatasunari dagokionean berriz, prozesua pertsonalagoa dela.

Emakumeen irtenbidea kasu batzuetan senarrarengandik banantzea da eta beste batzuetan ezkongabe gelditzea, horrela ulertzen da estatistikoki bi fenomenoetan gertatu den gehikuntza. Baina horrelako xehetasunetan sartu gabe, aintzat hartzen ahal ditugu beste estrategia batzuk, harremanetan berdintasun handiagoa lortzera bideratzen direnak; estrategia horiek garatzeko aurreko ataletan ezarri ditugun hiru tipologietara joko dugu:

kongabe gelditzea, horrela ulertzen da estatistikoki bi fenomenoetan gertatu den gehikuntza. Baina horrelako xehetasunetan sartu gabe, aintzat hartzen ahal ditugu beste estrategia batzuk, harremanetan berdintasun handiagoa lortzera bideratzen direnak; estrategia horiek garatzeko aurreko ataletan ezarri ditugun hiru tipologietara joko dugu:

ETXEKOANDREAK

- Bikote barruan berdintasuna eskatzen dute “esklabu”, “ez produktibo” gisa har ez ditzaten.
- Horregatik beharrezkoa da etxe barnean betetzen dituen eginkizunak errekonozituak izan daitezen, elkarbizitza berdinkideago batera eta afektibitate, sexu eta estimazio harreman beteagoetara jotzeko aurre-urrats gisa.

LAN ORDAINDUA

- Arriskurik handiena da kanpoko harremanak bideratzea, hots, lan munduan soilik atsegina izatea errekonozimendu bide bezala eta bikote harremanen parekatzea ekiditea. Gizasemearen portaera errepikatzea litzateke.
- Estrategia egokia, ordea, arrisku hori eragozteko litzateke, esku emanez gizarte eta lan-munduan eskuratu den autonomia handiago horrek eragina izan dezan bikotekide biengan, ez emakumeengan soilik. Kanpoko rolak parekatzeak deusezta ditzake errazenik bikotearen ohiko desorekak.

PRESTAKUNTZA IZANIK LAN GABE DAUDENAK

- Talde honek arriskua du etxekoandarearen ohiko rolaren harremanak sendotzeko, eta horrekin gizonak, besterik gabe, betiko jokamoldearen eskemak errepikatzeko joera izango dute.
- Estrategia egokia izango litzateke sailkapen horri ihes egitea, gaurko etxekoandre bilakatzea, senarrarekin batera bere kezka, iguripen eta idealak izateko. Prestakuntza hobetzean ateak irekitzen zaizkio gizartearen beste esparru batzuetan, autorrealizatzeko eta osatzeko senarrarekin batean.

Ezkon-harremanen gainean jarraibideak ezartzea zaila da, pertsonaren barneko aferak baitira, mundu pribatuari dagozkion afektibitate, balorazio eta errespetuaren sailekoak. Hemen bikote bakoitzak bere portaera-kodeak ezartzen ditu.

Halaz eta guztiz ere, bada funtsezko zer bat, aintzakotzat hartu behar duguna: sexualitatea. Bikotearen harremanen oinarrian dago eta horren bitartez emakumeek emantzipazio kota handiak erdietsi dituzte, hala pertsonalak nola harremanetakoak.

- Sexualki atsegina lortzeko gaitasunaren aurkikuntza, kultur mugimendu femeninoaren bidez etorri zaiguna, modu ezinago hobeia izan da norberaren gorputza ezezik, bai eta bikotearen harremanetan izan dezakeen eginkizuna ere ezagutzeko.
- Gizonari jakinarazi dio sexu harreman partekatuak atseginagoak direla ohiko eskemetakoak baino. Bikotearen plazerra osoago bihurtu du.
- Lehen zeukan tabu izaera kendu eta errealtasuna eman dio eta, beraz, erantzukizun handiagoa eta bikotearen bizitzarentzat komeni diren erabakiak hartzeko gaitasuna.

Sexualitatea erreferentziazko paradigma garrantzitsu bilakatu da bikotearen barruan, jarrerak, balorazioak eta afektibitateak aldatu ahal izateko. Sexualitatean gertatu diren aldaketak direla eta, beste alderdi batzuk ere eralda daitezke; ez baitugu ahaztu behar sexua dela ezkon-harremanen adierazpenik adierazkorrena.

Alde horretatik, asko dago oraindik egiteko, batez ere ohiko eskemetan hezitako belaunaldietan. Eskasia horien adibide dira honako hauek:

“Emakumeak beti ihesean”.

“Gizonak oraintxe bertan esaten badu oraintxe bertan da, zuk, ordea, ezin duzu”.

“Egokitzen bazaizu harako hura: bertan harrapatu eta bertan hilko zaitut ... ez zaio inori gustatzen”.

“Gizonezkoek bere nahia egin gogo dute, ez zuri gustatzen zaizuna”.

“Ezetz esaten diozu eta hark temati bere xedea lortu arte. Askotan utzi egiten diozu kalaka ez aguantatzearren”.

“Gizonak duen kontaktu fisiko bakarra sexuaren bidez izan ohi da”.

“Emakumeok sexualitatearen berri izan dugun arte...”.

Sexualitatean gauza asko daude jokoan, eta jarrera pertsonalak agertzen dira, horregatik beharrezkoak lirateke emakumeei autokontzientzia emango lieketen kultur jarraibideak izatea, hain barnekoa den gaian emantzipatu ahal izateko.

Azkenean, gizonezkoen prozesua aztertuko dugu ezkon-harremanen ikuspuntutik. Lehenbizi aipatu behar da arlo honetan, besteetan bezala, emakumea baino mugikaitzago dela, kontzientziazte prozesua maila oso azalekoan baizik ez baita gertatzen.

Kontzientziazte gradua hiru mailatan zatikatzen badugu gizonezko gehienak lehen eta bigarrenaren artean leudeke, baina, beti ere, azkenera iritsi gabe, non zinezko aldaketa gertatzen baita:

PLANTEAMENDU RAZIONALA: Harremanetan arreta jartzea

- Ezkon-harremanak badirela ulertzea, eta zaindu eta garatu egin behar direla.
- Desberdintasuna estimatzea, eskakizunei harrera ona eginez.
- Haien eginkizunei erreparatzea, ardura hartzea.

PLANTEAMENDU FUNTZIONALA: Emakumeei denbora gehiago dedikatzea.

- Momentu batzuk partekatze gai izatea (laguntza, elkarlana).
- Bizipenak komunikatzeko eta adierazteko gai izatea.
- Emakumeek beren nortasuna gara dezaten aukera emateko gai izatea.

PLANTEAMENDU EMOZIONALA: Harremanei denbora gehiago ematea

- Harremanak bikotearen kontua dela, bien arteko proiektu bat dela onartzea.
- Sentiberatasuna eta afektibitatea berraurkitu eta aditzera ematea.
- Enpatia garatzea, bestearen tokian jartzeko ahalmena, alegia.
- Bizipenaren aldetik harremanetan murgiltzea.

3

EMAKUMEAK ETA LAN EREMUA

Lan eremuaz hitz egiten dugunean aurrez aurre daukagu emakumeen egoeraren eboluzioan garrantzi handia izan duen arloetako bat.

Zalantzarik gabe gertakizun berria den emakumeen sarrera lan munduan iraultza soziala eta politikoa da, eta horren luze-zabalerak gure analisiaren helburutik goiti dauden arren, hein batean bederen guri ere badagokigu, azterlan honetan parte hartu dutenek transmititu dizkiguten iritzi eta bizipenekin lotuz.

Arlo honi datxekion informazioa modurik egokienean zatikatzeko, argigarria eta aproposa iruditu zaigu gure azalpenean puntu hauek bereiztea:

- Lan munduaren pertzepzioa eta balorazioa.
- Belaunaldien arteko analisia: eboluzioa.
- Gatazka egoerak.
- Gizonak emakumeen lanaren aurrean.

LAN MUNDUAREN PERTZEPZIOA ETA BALORAZIOA

3.1

Gaur egungo emakumeen egoera orokorraz mintzatzean diskurtso sozial horretan, luza gabe lan eremua agertzen da; horrek bi motatako arrazoiak dituela dirudi:

- Alde batetik, lan munduak jasaten duen inplikazio pertsonal eta emozionala txikiagoa izatea (ik. familiaren edo bikotearen egoera), eta hortaz, bizipenak errazago agertaraztea.
- Bestalde, erreferentzi sozial argiago bezala eratzea, maiz komunikabideetan agertzen dena.

Atal hau sarrera bailitzan hartu behar dugu, izan ere, azalpen bat egitera mugatuko gara nola hautematen den emakumeen egungo egoera eremu honetan, eta zergatikoak eta erantzunak ondoko analisi baterako utziko ditugu.

Alde horretatik, bereziki deigarria da, lan munduari dagokionean, emakumeen egungo egoera funtsean definitzen duena aho batez eta irmo adierazten dela. Gauza da, emakumeek lan eremuan izan duten pausoz pausokako aurrerapena bi sexuetaiko partaideek aitortzen duten arren, egoera horren adierazle nagusi gisa diskriminazio kontzeptua agertzen zaigula azalera.

Diskriminazioa, emakumezkoen lan mundua definitzen duen elementua.

Diskriminazio hori, jakina, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik eza da, ez irudipen tankeran, baizik eta begibistako hiru arlo hauetan gauzatuta:

- Aukerak.
- Ekonomia.
- Sexu jazarpena.

Aukeren aldetiko diferentziari buruz aipatzen da ez bakarrik zernolako zailtasunak izaten dituzten emakumeek lanpostua lortzeko, baita lanpostuan mantentzeko eta mailaz igotzeko aurkitzen dituzten oztopoak ere.

- Sarbidea: erraztasun handiagoa gizonentzat, bereziki enpresa pribatuetan.
- Mantentzea: balioa etengabe frogatu beharra.
- Promozioa: zailtasun nabariak mailaz igotzeko.

(“Gizon bati baino gehiago exigitzen dizute; emakumea izateagatik ateak ixten dizkizute; gizonek baino gehiago dakizula frogatu behar duzu...”).

Emakumeen gaitasunak, jarrerak eta kualitateak gora behera -geroago sakonagotik aztertuko baititugu-, eremu horretan gertatzen denaz pertzepzio oso homogenoa dago, eta ez da iritzi sakabanaketarik gertatzen adina edo formazio maila bezalako aldagaien arioren.

Edozein modutan ere, eta estatistikako datuek (emakumezkoen populazio aktiboa eta erantzukizun handiko postuetan) argi erakusten badigute ere emakumeen egoera kaskarragoa dela, gizonezkoen ikuspegitik sobera handietsi dute gai hori.

Bestalde, gaur egun irudi publiko bortitzeko eremuetan emakumeak ausarki ugaltu dira -batez ere administrazioaz ari gara-, eta hain zuzen, argudio hori erabiltzen dute emakumezkoek plazaratu duten arrenkura ukatzeko edo behintzat gutxiesteko. Esan nahi du, emakumeentzat beren gaitasunen egiaztapena dena (lanpostu gehiago lortzea objetiboki berdinak diren egoeretan), gizonentzat defentsarako arma bat dela jarrera diskriminatzaileak dituztela dioen salaketaren aurrean.

Haatik, argitu behar dugu belaunaldi gazteenetan jarrera aurrerazaleenak dituztenak —gehienetan gizaseme ezkongabeak— emakumeen iritziarekin bat etortzeaz gainera, batzuetan haiek bezain sutsu aritzen direla.

Ekonomiaren alorrean dagoen diskriminazioari buruz nabaria da bi sexuen arteko iritzietan suertatu den hurbilketa, biek aitortu baitute arazo hori badela.

Enpleguak ematen dituztenek azpijokoan ibili arren (gizonezkoentzako goragoko kategoriak ezartzea, jakineko osagarri batzuk...), azken finean objetibatu daitezkeen egintzak dira eta, horregatik, kanpotik frogatzen ahal direnak.

Horrela, bada, ez da inoiz aurkeztu bi pertsonak lan berdina eginez soldaten arteko diferentziak justifika ditzakeen argudiorik, beraz, jarrera diskriminatzaile horren kontrako erdeinua agerian dago.

Dena den, eta aintzat hartuta ere Emakundek 1992an aurkeztu zuen txostena, estatistika aldetik diferentzia adierazgarriak daude gizonezkoen eta emakumezkoen soldaten artean, ez da erreferentzi zehatzik agertzen elkarriketaturiko emakumeek, edo haien ezagunek, inoiz jasan ote duten horrelako diskriminaziorik. Gehienetan ihardun sindikala garatuago den sektoreetan gertatzen da (industria, manufaktura, e.a.).

Esperientzia aldetik arazoa “gutxiesteak” ez du kentzen diskurtso sozialak arazo hori kezka-garritzat hartzen segitzea. Kasu jakinak ez ezagutzeak ez du esan nahi halakorik ez dagoela. Bi arrazoi daude, funtsezkoak, taldearen kontzientzian halako indarra hartzeko:

- Lehenbizi, egintzaren erantzukizuna ez da gizon-emakumeek erakutsi dezaketen jarrerarekin lotzen, aitzitik enpresariaren esku dago. Erruen salbuespenak, eskuarki, era horretako bereizkeriaren gaineko aitortpena eta gogoeta errazten du.
- Bigarren, komunikabideetan berriki argitaratu diren epaiek oihartzun ozena izan dute gizartean, eta horrek desberdintasun ekonomikoaren ideia indarberritzeko eta handiesteko prozesu bat bultzatu du.

Horrek esan nahi du gai honi buruzko diskurtso sozialak indarra hartu duela, eta horren ondorioz eztabaidarako taldeetan eta egindako elkarrizketetan birsortzen da.

Azkenik, laneko bereizkeriaren beste faktore bat da sexu jazarpena. Emakumeek gizonezkoekin erlazionatzean beraiei dagozkien arau sozialak betetzen dituztenean (dotoretzea, gustatzea, sinpatia izatea...) gizonezkoek, lan eremuaren barruan, eskuragarritasun sexualtzat hartzen dute, modu sinbolikoan bada ere.

Emakumeei zaila egiten zaie jarrera horiek esplikatzea (berez atseginak baina gizarteak modu txarrean probokatzailatzat hartzen dituztenak), eta horregatik gai horretaz hitz egiteko eta sakontzeko eragozpenak dituzte. Alderantziz baina, horiek salatzeo eragozpenak izan ohi dira, pentsatzen delako arruntean jazartzailea enplegu emailea denez gero, lanpostua arriskutan jar daitekeela.

Gai horretan sakondu gabe, baina harrigarria da gizonak berak izan ohi direla arazo hori gogoan izaten dutenak laneko bereizkeriaz mintzatzean, gure ustetan duen osagai "morbosoagatik" beste ezerengatik baino gehiago.

Hondarrean, adierazi behar da desberdintasun ekonomikoarekin gertatzen zenaren antzo, hala gizonek nola emakumeek susmatzen dutenez, arazo horrek eragin handiagoa duela sektore jakin batzuetan, behe statusekoetan (ostalaritzan, industriako enpresa txikietan...).

BELAUNALDIEN ARTEKO ANALISIA: EBOLUZIOA

3.2

Belaunaldien arteko analisiaz eta eboluzioaz hitz egitean, aipatu behar ditugu bi alderdi, berezituak izan arren erlazio estua dutenak:

- Gizartearen eboluzioa.
- Emakumeen eboluzioa belaunaldiz belaunaldi.

GIZARTEAREN EBOLUZIOA

3.2.1

Gizartean eta gizartearen testuinguruan gertatu diren aldaketei dagokienez arlo desberdinak aipatu behar ditugu, emakumeek berdintasunerako bidean konkistatu duten edo konkistatzen ahalegindu direnak.

Zentzu horretan, diskurtso sozialak garapenaren hiru kota ezarri ditu, eboluzioan barrena elkarrekin estekatzen direnak, hauek alegia: hezkuntza, kultura/formaziorako sarbidea, lan mundurako sarbidea.

- Hezkuntza prozesuaren oinarria delako, ez zentzu kulturean prestakuntzaren aldetik baino. Gehienen iritzia da ez garela iritsi hezkidetzat deitzen den horretara, aurrerapenak begibistakoak badira ere, batez ere eskolan.

Harrigarria badirudi ere, emakumeek aurreratu dute gehiena bide horretan barrena, bada, eginkizun tradizionaletan hezitzen bakoitzaren ama saiatu bada ere, beste alderdi batzuetatik tradizioz maskulinoztat joak izan diren arloetan hezi dituzte. Eta hori, aipatzen genuen bezala, behar-beharrezko oinarria da emakumeei motibazioa eta adorea transmititzeko, etorkizunean lan eremuan gara daitezen.

Arazoa sortzen da emakumeak jakitun egiten direnean “heziketa bikoitzeko” prozesu horretan gizonak kanpoan utziak izan direla, eta hori amaigabeko gatazken sorburu izango da.

- Eboluzio prozesu horren bigarren urratsa da formazioaren alderdia, hau da, unibertsitatearen eta zinezko kulturaren mundurako sarbidea, hain zuzen ere emakumeek gizartean duten onarpenaren benetako iraultza izan dena. Eta ez zentzu kuantitatiboan soilik, zeren eta kualitatiboki ere modu askotako arloetan sartuz joan baitira, eta hainbeste ugaltu da emakumeen presentzia eremu horretan ezen horrela izatea eskubide ia “naturalizat” jotzen dela.

Honako ideia honetan erabateko adostasuna dago: formazio eta kultura munduan sartzea ezinbesteko tresna da emakumeek gizonen pareko lekua eskura dezaten lanbidearen eremuan.

“Balantza orekatzen ari da, ia emakume guztiak estudiantzen ari direlako eta gainera emaitza onenak ateratzen dituztelako; hezkuntzak garrantzi handia du”.

(31-45 urteko emakumeen bilera, Donostia)

Are gehiago, ikasketetan emakumeek erakusten duten errendimendu bikainak autoerrefortzu eta autobalorazio elementu izateaz gainera ukaezineko arma bilakatu da, emakumeen gaitasunak frogatzeko tenorean.

- Azkenik, behin-betiko urratsa dugu, lan mundurako sarbidea, alegia. Emakumeek aukera berdintasunaren arloan pairatzen dituzten zailtasunak aitortzea dezente kostatu zaie gizonezkoiei, baina hala ere, orokorrean jendeak uste du badela blokeo bat formazioaren eta lanbide garapenaren artean.

“Gaur egun neskek izaten duten heziketa bideratua dago beren buruaz balia daitezen, baina gauza bat da hezkuntza eta beste bat mundu horretan sartzeko zerbaitetarako balio izatea”.

(46-60 urteko gizonen bilera. Donostia)

Teorikoki emakumeek dituzten gaitasunak aitortzen badira ere, praktikan hainbat arazo sortzen dira, gaur egun gaingitu gabe daudenak.

Nolanahi ere, lan munduan sartzea eboluziozko prozesutzat hartzeak eta emakumeak kopuru handian berriki sartu izateak lan eremuan, pentsarazten dute bukatu ez den prozesu batean gaudela, etorkizun oparoa duena.

Arestian azaldu dugun gizartearen eboluzioa alderatzen badugu emakumeek prozesu hori bizi izan duten moduarekin, ikusiko dugu egoera arront differentea izan dela, belaunaldia nolakoa izan den.

- Nagusien belaunaldia: lan egoeraz teorikoki mintza daitezke, baina errealitatean eboluzio prozesutik at gelditu dira. Nekez sartuko dira lan munduan, oinarritzko formaziorik izan ez dutelako ez eta lanean garatzeko itxaropideak bidera ziezaizkiekeen heziketarik ere.
- Bitartekoen belaunaldia: adinekoen eta gazteenen artean bi belaunaldien nahasketa dago. Ez dute heziketarako biderik izan (1. urratsa) baina aintzindari dira formazioaren arloan sartzean, masiboki gertatu ez bada ere.
- Gazteen belaunaldia: horien bizipenak markatzen du emakumezkoen bilakaera nola ari den gertatzen; hau da, formazioa eta hezkuntzako gune izan arren egoera zailean daude, beraiek jasango baitute lan mundura sartzeko sasoian agertuko den haustura.
- “Etorkizuneko” belaunaldia: bidea zaila den arren, oro har horien ibilaldia eboluzio prozesu horretan naturala izango da eta gizasemearen baldintza beretan.

Prozedura horretan emakumeek izango duten tokiak baldintzatuko du ez bakarrik orain duten lan egoera, baita ondoko jarrera, motibazio eta iguripenak ere.

Adierazten genuen bezala, bien bitarteko adina duten emakumeak aurreko eta ondoko partaide dira aldi berean; horregatik seinalatzen ahal ditugu prozesuaren bi poloak, “lehen” eta “orain”, eta hain zuzen ere, belaunaldi honek egokitu behar izan du bien eragina:

LEHEN: Kanpoko lanak ez zuen tokirik itxarobideetan.

(“Zure karrera familia zen, ez lanbidea”).

ORAIN: Kanpoko lana emakumearen garapenean integratzen da.

(“Karrera profesionala autorrealizazioaren oinarria da”).

Nagusien belaunaldiko emakumeak gogor baldintzatuak daude ez dutelako behin ere izan berdintasunezko heziketarik, ez arlo pertsonalean ez eta kultura eta lan esparruan ere.

Etiket kanpoko lanetarako prestatu ez dituzten emakumeentzat, prestakizun eza eragozpen larria izan da gizonezkoen ondare zen lanbide mundu horretan sartzeko. Halaz ere, ezkondu aurretik lan esperientziak izan zitzaizkeen belaunaldi horrek badu asmorik aurrerantzean lanean hasteko, beti ere haurrak hazten doazen heinean. Kezka hori aldi oro agertzen da diskurtsoan, praktikan ez bada ere, bai iguripenen esparruan.

Horrela, adin horretako emakumeek familian eta beren baitan bizi duten egoeraren ariora, hiru arrazoi izango dituzte lan munduan sartzeko duten asmoa justifikatzeko:

- Beharrian ekonomikoa.
- Harreman sozialak izateko beharra.
- Independentzia izateko beharra.

Ekonomia aldeko eskasiak aparte utzita, horiek diskutietzen dira-eta, emazte/ama eta etxe-koandre tradizionalen egoera horretatik emakume horiek pairatzen duten zamaz oharturik etxetik ateratzeko berebiziko behar sakona eta psikologikoa sortzen zaie.

Baina, zein faktorek sortarazten dituzte lan munduan sartzeari izateko iguripenak? Zein eskasia edo frustrazio estali nahi dituzte?

Diskurtso sozialean behin eta berriz autorrealizazio hitza agertzen da, helmuga eta lorpen nagusi bezala, baina partaideak ez dira gai, horratio, hitz hori esanahiaz hornitzeko. Badirudi diskurtso razional eta estereotipatu bati erantzunez erabiltzen dela, horrekin gizarteak emakumeengandik espero duenari erantzuten diolarik.

Baina emakumeak gai dira noski, beren motibazioei edukia emateko, ikuspegi emozionalago batetik. Alde horretatik bi arrazoi daude jokoan, emakumeek aurrera eraman dituzten ohiko rolek inoiz lotzen direnak:

- Seme-alabek alde egitean uzten duten hutsunea, harreman sozialak izateko premia bihurtzen da.
- Senarrak ezarritako loturazko presiotik jare gelditzeko itxaropena.

“Lanik baduzu problemarik izanda ere badaukazu nora jo eta zer egin; bestela, ahal den moduan senarrari aguantatu behar”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Azpeitia)

“Senarrarekin eztabaidatzeko modua ere aldatzen da, zuk zeuk ere dirua ekartzen duzula etxera esaten ahal diozulako; aurre egiten ahal diozu”.

(46-60 urteko emakumeen bilera. Bermeo)

Gezurra badirudi ere gaur egungo krisialdia itxuraz behintzat lagungarri izan zaie emakumeei lanpostu bat lortzeko (langabeziaren zifrak ezin ditugu ahaztu hala ere), beraz senarrak amore eman beharko du, ez du beste erremediorik. Horren arabera, lansariaren babesean, emakumeentzat lana da beren nahiak bideratzeko modurik egokiena.

Argudio honen aurrean kontrakoa dugu: krisialdi ekonomikoak kalte egiten die emakumeei betidanik izan duten lan egoera dela medio. Ekonomia garabidean doanean zailtasunak izaten badiu lana aurkitzeko zer ez ote du izango krisialdietan?

Gertakari bat tiranizatzen ari da gaur egun emakumearen eta lanaren arteko erlazioa, hots, sektore batzuek erakusten duten interesa langabezi zifrak gizonezkoen eta emakumezkoen artean bereizteko, iragaitzaz bezala ulertarazi nahian kezkarriagoa dela gizon bat lan gabe egotea emakume bat baino. Arrazoiak bilatzen dira halako estereotipoetan, esaterako gizona dela “familiburua” edo “sostengu ekonomikoa”.

Krisialdiak ez die, hortaz, emakumeei kanpoan lana aurkitzera laguntzen, aitzitik baizik, familia askotako emakumeak azpi-ekonomiara behartzen baititu, familiarentzat laguntza ekonomikoa lortu beharrez. Ez dira beraz zinezko lan munduan sartzen.

Gazteen belaunaldiari dagokionez, formaziorako aukera izateak baldintzatzen du emakumeentzat lan munduan sartzeari duen esanahia. Formaziogintzari irtenbidea emateko beharrak, urte asko irauteaz gainera berak zuen denbora gehiena jan baitio, lanak duen balioaren neurria ezartzen du, autobalorazio eta autorrealizazioaren oinarritzko bidea den aldetik.

“Nolatan egin dezake, ez emakume batek, baizik eta unibertsitatera edo L.H.ra joan den edozeinek hartu eta etxean gelditu? Zer egiten du horrekin guztiarekin?... Sinetsi ezinena da horrelako neska bat etxekoandre izatearekin konformatzea”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Kontua ez da ikasketa garaian sortutako itxarobideak egokiro bideratzea bakarrik, baizik eta behar bada oso nabarmen agertzen ez badira ere bestelako arrazoiak somatzen direla:

- Normalean amak pairatutako egoeraz alabak duen pertzepzio ez oso atsegina, eta horrekin batera amak alabari transmititzen dion mezua, bere buruz baliatzekoa, alegia, bide bat izaten da betiko roletik urrunduko duen premia razionala eta emozionala sortarazteko.
- Nork bere burua ezezik gizarteak ere balora dezan, nahitaezkoa zaio emakumeari bestek lan eginaz besterik gabe lortzen duten onarpen soziala berak ere eskuratzea (edo kanpoan lan egiten ez duten emakumeek bizi duten gaitzespen sozialetik urruntzea).
- Gizonezkoen parera iristeak, besteak beste, arlo beretan lehiazteko gai izatea esan nahi du, are gehiago arlo horiek gizonentzat “etxean jokatzeko” bezala badira.

“Kanpora ateratzen zarenean mundu pertsonal bat aurkitzen duzu, eta hor energia franko bideratzen ahal duzu eta bide horretatik pozibide ugari izan dezakezu; gehiago baloratuko zara”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

Azken buruan, emakumeei, ama nahiz emazte edo etxekoandre izanik ere, etxetik kanpoko lanak nortasun femenino modernoan ematen die, edo haiek behintzat, horrela somatzen dute, zentzu makurreko interpretaziorik gabe.

Gazteek lan-proiektzio baten beharra dute: izan duten formazioari irtenbidea emateko eta nortasun femenino moderno bat eskuratzeko.

GATAZKA EGOERAK

Emakumeek lan munduari dagokionean bizi izan duten pertzepzioa, arrazoiak eta eboluzioa argitu ondotik, ikertu beharra dago zein diren gatazkak sortu dituzten jarrerak eta inguruabarrak.

Ikusiko dugunez, aurrez aurre dugun abaguneak ez dio kausa-ondorio eskemari erantzuten, aitzitik aldagai mota askok hartzen dute parte, arazoz jositako mundu bat egituratzen duten aldagaiak.

Taldeetan jasotako informazioaren arabera, gatazkatsu izan daitezkeen egoeren zerrenda hau prestatu dugu:

- Amatasuna.
- Balore-sistema.
- Jarrerak.

Emakume landunentzat ama izateak bi arazo sortarazten ahal dizkie: bata, barne izaerakoa, beraiengan sortzen dena eta bestea kanpokoa, beren lanpostuetan izan ditzaketen ondorioekin lotzen dena.

Alde batetik, amatasunak emakume baten bizitza justifikatzeko bide bakarraren eta mitikoaren izaera hori galdu duen arren, batez ere emakume gazteengan, hala eta guztiz ere autorrealizatzeko eta norberaren bizitza aberasteko baloretzat hartzen da.

Bestaldetik, ezin dugu ahaztu errealizazio profesionalak emakumeen nortasunean gero eta garrantzi gehiago duela. Hori dela eta, behiala hartu ohi zen harako erabaki hura, lanari utzi egitekoa, gaur egun ez da hain erraz onartzen, edo arazoak behinik behin ekartzen ditu.

Gaur egun haurrak beranduago izaten dira eta gutxiago, baina emakumeei iristen zaie beren bizitzan haurrak izateko gogoia edo errealitate horrekin aurkitzen dira, ama bilakatu direla, alegia.

Zer motatako erabakiak har ditzakete emakumeek une horretan?, zein neurritan dira libreak erabaki horiek?, zer ondorio ekar ditzake, norberarentzat eta gizartearentzat, hartutako erabaki horrek?

Emakumeek bere baitan izaten duten borroka horrek, “ama onak” izatearen eta “profesional onak” izatearen artekoak, egoera konplexu batean jartzen ditu, kontraesanez betea. Horretaz ez dugu datu kontagarririk baina bai bizipen datuak.

Emakumeei estutzen zaie ama izan daitezen, lan egin dezaten, baina inork ere ez die erakutsi bi arlo horiek nola egokitu, bata edo bestea bertan behera uztearen susmoa —edo egiazta-pena— izan gabe.

Gaur egun amatasuna eragozpen gogorra da emakumeen garapen profesionalerako, hala sar-tzeko eta postuari eusteko nola mailaz igotzeko ere.

“Esaten badiezu ezkontuta zaudela eta haur txikiak dituzula ez zaituzte kontratatzen”.

“Enpresari ez zaizkio interesatzen haurrak dituzten emakumeak”.

“Ama izatea asko begiratzen dute enplegu bat duzunean...”

Amatasunak emakumearen lanbide proiektzioa oztopatzen du.

Enplegu emailearen ikuspegitik, amatasuna ekonomiazko arazo larria da enpresarentzat zenbait aldetatik:

- Haurra izan ondoko lau hilabeteko bajaren kostu ekonomikoa, beste langile bat kontratatu beharra izaten da eta.
- Errendimendu txikiagoa haurdunaldiko nahasketak eta seme-alabenganako kezkak direla me-dio.
- Lan absentismoa ditia emateko edota haurren eritasun eta arazoengatik. (“Amen amaiga-beko egonezina”).

Eta gauza ez da sarbideari edo promozioari ateak ixtea, makurrago oraindik, zeren azaldu du-gunetik ateratzen dugun kontua da emakumeen lanerako gaitasuna eta ondorioz beren rol pro-fesionala ere auzitan jartzen direla.

Amatasunak desegin egiten du emakumearen balio profesionala.

Orain arte Erakundeek proposatu dituzten soluzioak, hala nola, aukera izatea amatasunaren baja senarraren eta emaztearen artean banatzeko, ez dira nahikoak:

- Ez diote arazoari sakoneko konponbidea ematen; partxe bat besterik ez dira.
- Arazoaren alderdi batean bakarrik eragiten dute; eta egiaz askoz ere konplexuagoa da.
- Gaur egun dirudienez gizonak ez daude beren lana uzteko prest eta emakumeak ere ez daude oso konforme haurra bere aitarenean uztearekin.

Bestalde, emakumeek partikularki erabil ditzaketen baliabideak —lana bertan behera uztea, amatasunari uko egitea— ez dirudi oso bide egokiak direnik, izan ere arazoa gainditzeko alderdietako bati iskintxo egiten badiote ere, gero berriak sortzeko ateak irekitzen dituzte.

Lana uztera behartuta sentitzen diren emakumeen egoera psikologikoa ez da batere kezkarria gizartearentzat, esate baterako:

- Alde batetik ekonomi sisteman ez direlako arazorik sortzen: emakume horiek beste langileek ordezkatzeko baitituzte inolako problemarik gabe.
- Bestalde, beste edozeren gainetik emakumea “amatzar” kontsideratzeko joera oso sartuta dago gizartean, eta horren ondorioz uste da erraz ordezkatzeko ahal dela errealizazio pertsonala ama-errealizazioarekin (iraganean gertatzen zenaren antzo).

Adinekoen belaunaldikoentzat hori hain naturala zen ezen bazirudien ez zuela barneko arazorik sortuko, baina egungo emakumeentzat erabaki bortxatu bat da, “amore emate” hitsa bilakatzen dena.

Horrek pentsarazten digu zentzu horretan ez aurreratzeaz gainera honelako erabakiak hartzen dituzten emakumeen “zorigaizto” handi hori, berdintasun bidean gertatu den atzerapen kezkarriaren eta mozorrotuaren isla bat besterik ez dela.

Gatazkaren balizko soluzio gisa amatasunari uko egitea, gaur egun gehiengoaren jarrera ez izan arren, susmorik bada poliki-poliki ez ote den proportzio kezkarrietara iritsiko.

Norberaren erabakia baldin bada edo kalera botako duen mehatxupean enpresak berak inposatutakoa baldin bada, nolana ere ez da behin ere erabaki librea izango, eta beste behin ere, barne gatazken sorburu izango da.

Aurrez nahi izan ondotik ama gisa errealizatu ezin izanak emakumeengan ezintasun eta frustrazio sentipena sortzen du, orain arte izandako lorpenak balio gabe uzteraino.

“Lehen senarrak obligatzen bazinduen eta orain ama izan nahi eta ezin baduzu, zertan aldatu dugu?”.

(17-30 urteko emakumeen bilera. Bilbo)

Aurreko kasuan ez bezala, amatasunari uko egiteak oihartzun handia izaten du gizartean garai honetan biztanleria gero eta zaharrago bihurtzen ari dela-eta kezka hori hedatuz joan delako.

Alde horretatik mugimendu intelektual bat eratu da, bai gizonezkoen eta baita emakumezkoen artean, arazoa nolabait arintzeko neurriak gizartean eskatzeko asmoz.

“Arazo bat dago hemen, biztanleria zahartzen ari zaigula; emakumeak haurrik ezin izan badu eduki, 10 urte barru problema latza izango dugu eta ez dugu deus egiten”.

(31-45 urteko gizonen bilera. Bilbo)

Beraz, partaideen iritzien arabera arazoa benetan larria da, eta oraintxe bertan ez baditugu neurriak jartzen, etorkizunean, hemendik ez oso urrun, hagitzez zailago izango da soluzioa ematea.

BALORE SISTEMA

3.3.2

Balore maskulino eta femeninoekin egiten den zatiketa ere funtsezko aldagaietako bat da lan eremuan gatazka sortzen dutenen artean.

Gizonen eta emakumeen lanen artean egin izan den bereizketa ez da musu truk egin, hein batean balore sistemaren mantentzeari zor zaio, eta sistema hori onartua eta barneratua izan da modu pertsonalean bezala sozialean ere, eta horren ondorioz trinko errotua.

Idea hori kontuan izan behar dugu beti, analisi honetan barrena aurkituko ditugun jarreraren oinarria izango baita neurri handi batean.

Eginkizunen eta gaitasunen artean ezarri den bereizketa bi arlo berezituetan egituratzen da:

- Arlo biologikoa.
- Gizarte arloa.

Amatasuna alde batera utzita (horretaz aurreko puntuan mintzatu baikara), biologiaren arloa izango da, kasu honetan indar fisikoa, gizonen eta emakumeen lanen artean bereizketa egiteko aldagaia. Bi sexuen arteko alde biologiko “objetibagarriak” ukaezineko argudio gisa erabiltzen dira sail honetan emakumeen gutxiagotasuna frogatzeko eta horren ondorioz baita lan jakin batzuek egiteko duten ahalmen txikiagoa edo ezintasuna ere.

Iritzi horrek status apalenetako eginkizunak ukitzen baditu ere —inork nahi ez dituenak, bestalde—, gizonezkoak tesi horretaz baliatuko dira berdintasun ideia zapuzteko.

Gertakari honen aurrean, emakumeen jarrerak zerikusi handia izango du beren heziketaren gorabeherekin.

- Adinekoak edo maila oneko formaziorik gabeko belaunaldikoak ez dira delako gutxiagotasun horretaz ohartzen, eta haientzat berezko ezgaitasuna baizik ez da, lan batzuetan aritzeko modu ez traumatikoan onartzen dena.
- Emakumeek diote beraiek muga fisikoak dituzten bezala gizonezkoek ere badituztela bereak, esate baterako, bizia sortzeko ahalmenik eza.
- Emakume gazteentzat eta/edo formazio maila on bat dutenentzat, berdintasun bidean aurkitzen duten benetako eragozpena da.
- Alde horretatik, modu teorikoan besterik ez bada ere, jarrera ia kixotesko bat nabaritzen zaie nola edo hala frogatu nahi horretan berak, emakumeak, gai direla edozein lan egiteko, den gogorrena izanda ere.

Indar fisikoaren argudioa, lan arloan emakumeenganako bazterkeria sendotzeko erabiltzen dena, kemena galtzen ari da, gaur egungo lanpostuetan horren beharrezkoa ez delako. Makinek eta robotek egiten dute lehen beharginek egin behar izaten zuten esfortzuaren parterik handiena; horregatik oso sektore gutxi gelditzen dira indar fisikoa izangaiak hautatzeko edo lanak egiteko funtsezko faktorea dela defendatzen dutenak.

Begibistakoa den erlatibismo hori, hala ere, ez da erraz sartzen gizonezkoen diskurtsoan, eta berriz sektore femenino batzuetan erabili izaten dute argi uzteko lanean diferentziak egiteko arrazoirik ez dagoela, batez ere, nabarmenena izan daitekeen arlo fisikoak horretarako eskurik ematen ez duenean.

Arlo sozialarekin aipatu nahi ditugu tradizioz edo ohituraz maskulinitzat nahiz femininitzat hartuak izan diren zereginak

Nekez objetiba daitezkeen zatiketak dira, agerian behinik behin ez baitago arrazoirik lan baten ezaugarriak sexuaren aldeko gaitasunekin lotzeko. Dena den, gizartearen diskurtsoan usu entzuten da lan batzuk emakumeei egokitzen zaizkiela gizonezkoei baino gehiago eta alderantziz. Pentsamolde horren esplikazioa da jenero baloreak lan eremura hedatu direla, hezkuntzaren bidez, kulturaren bidez eta tradizioaren bidez.

Horrela eta bitxia badirudi ere, femininitzat hartzen diren lanak, emakumeei antzinatek atxiki izan dakizkien eginkizunen betirakotzearen sinbolo dira. Ez dute gatazkarik izaten non ez den betiko etsipen femeninoa, beti eredu berberetara egokitu beharrena, alegia.

Garbiketa _____	Garbitzailea
Zaintzailea _____	Erizaina
Hezitzailea _____	Maistra
Emaztea _____	Idazkaria

Betidanik gizonen menpe egon diren arloetan sartzeak, beraz maskulinitzat jo izan diren arloetan, balore sistemen porrota ekarriko du.

Talde bakoitzak bere kultura egituratzen du, eta kasu honetan urte gehiegi daramatza elementu "arrotz" bat sartuz gero barne kohesioa hausteko arriskua ez izateko.

Alde horretatik, bi soluzio proposa daitezke eskema horrekin apurtzeko:

- lanbide izenetan jenero markarik ez agertzea -holakorik duten hizkuntzetan-, eta besterik gabe "ingeniari", "su-hiltzaile", e.a. izenarekin azaltzea jenero baloreak aipatzeke, edo bestela;
- belaunaldia igaro ahala taldearen kultur sistema haustea, emakumeak masiboki sartzearen poderioz edo hezkuntzaren bidez indarrean dagoen balore sistema piskanaka hautsiz.

Bestalde eta ordena sozialaren barnean, halaber, balore multzo bat dago txostenean zehar behin baino gehiagotan aipatu dugun zerbaitekin zerikusia daukana, autorrealizazioarekin.

Gizon gehienek nagusitu den sozializazio eredu onartzen dute, zera dioena: gizona zertan ari-tzen den "*huraxe bera dela*", eta bere nortasun soziala eta pertsonala, aldagaiak aldagai, bere lanbideak markatzen dituela.

Gizonaren funtsa bereziki lanbide arloan egituratzen da.

Beste motatako erantzukizunik ez izateak, eta gainera bere energia eta gutizia osoa lan eremu-jartzeak, etengabe hobetuz joateko motibazioa ematen dio. Horri gehitu behar zaio gi-

zonezkoak oraindik ere familiburutzat hartzen direla, eta horrela lanaren ahalmen sinbolikoa eta gizonen lan beharra gehitzen da.

Bi faktore horiek emakumeen kalterako izango dira, lanbide arloan, izan ere, alde zuzenetik eta ia definizioz, gizonen lan bat hobeki egiten jakiteaz gainera dirudienek lan horren behar handiagoa izango baitute.

Arazo honi soluzioa emateko luzaroko heziketa lana ezinbestekoa da, estereotipoak hausteko kanpoko lana baino gehiago gaur egun gizartean indarrean dauden balore sistemak arrakaltzeko gai izango den lana.

EMAKUMEEN JARRERA **3.3.3**

Atal honetan emakumeen jarrera sartu dugu, hain zuzen ere lan maila ertain eta goikoetako ihardute eredu koherenterik ezean, beste gatazka iturri bat izango delako.

Bistan da gaur egungo bizitzan emakume profesionalak ez dutela eredu paradigmatorik; ez dute, adibidez, “ama” edo “etxeakoandre” bezain indartsu den helburuzko eredurik.

Komunikabideetan barrena hedatzen diren estereotipoak rolak integratzen dituen eredu bati dagozkio, super-emakumea, inor asebetetzen ez duena:

- Goregi dago, eta horregatik frustrazio iturri bat da satisfazio maila baino gehiago.
- Goi mailako emakume landunak aipatzen ditu soilik; transmititzen den mezua da eremu horretan bakarrik gerta daitekeela arrakasta.
- Egiazko bizitzan ez du pertsonifikaziorik; bakarrik da eredu sozio-kultural bat, publikitatearen bidez suspertua.

Lan mundua piramide itxurako sistema bat bezala dago antolatua, eta horrek azken finean pentsarazten digu botere erlazioak direla azaltzen ari garen arazo guztien hariak mugitzen dituztenak. Oro har, esan genezake piramide horren erpinean gizonak daudela hariei eragiten, eta handik beheko mailetan emakumeak, hariak hautsi nahian.

Gizasemeak izutu egiten dira pentsatzearekin bakarrik egunen batean hari horiek haustera iritsi ezezik beraiek okupatzen duten lekuaz ere jabetuko direla, eta horrek defentsarako jarrera pasiboaz gainera defentsa gisa erasorako jarrera ere sortzen du:

- Emakumeak bere gaitasun profesionalaren frogantza eskatzen zaio behin eta berriro.
- Erantzukizun handiko postuetarako betoa jartzen diote, beste eginkizunetan aritu beharrik adia galarazten diotela argudiatuz.
- Emakume izaera aipatzen da desprestigiatzeko asmoz, jarrera edo modu femeninoak erakusten dituenean.
- Emakumearen “humanitatea” erabiltzen da bere jenero sexualaren ahultasunaren ezaugarri bezala.

Lehen adierazten genuenez erreferentzi gisa eredu baliozkorik ez izateak batzuetan berekin ekartzen du abantaila eskasak ekar litezakeen jarrerak izatea:

- Ikaskuntzako eskemak errepikatzeko joera, jarrera zurrinak eta exigentzia handikoak errepikatuz.
- Errespetatuta izatea lortu nahian jokabide “maskulinoak” erakutsi beharra eta horrekin bere feminitatea ezkutatzea, hala nahi ez badu ere.

“Emakumeok problema bat daukagu geure lanean, zera, aldamenean beste emakume bat duzunean ez dizula laguntzen batere, lan hori lortzea asko kostatu zaiolako”.

(31-45 urteko emakumeen bilera. Donostia)

Jarrera horiek, hala ere, emakumearentzat arriskutsuak dira, bere alde erabiltzen dituen estrategiak berari erasotzeko erabiltzen direlako.

- Gizonen iritziz horrek frogatzen du beraiek berez eta betidanik burutzen ari diren eginkizun horietarako emakumea ez dela benetan aproposa.
- Gainerako emakumeentzako ere ez da oso aldekoa perfil hori, bere izakera femeninoa desitxuratzen baitu. Hortik gaitzespeneko jarrera sortzen da, zoritxarrez talde maskulinoaren aldetik diskurtso negatiboa sustatzeko balio duena.

Beraz, derrigorrez sortu behar da edo indartu egiazko eredu konprometitu bat, emakumeentzat benetako gidari izango dena hainbeste eskatzen eta behar duten oreka lortu ahal izan dezaten.

GIZONAK EMAKUMEEN LANAREN AURREAN

3.4

Arlo razionalean gizonak, oro har, emakume landunen ideiarekin ados egoteko joera duten arren, eguneroko jokabidean berriz, etxean nahiz lanlekuan, bestelako jarrerak agertuko dituzte.

Emakumeak lan eremuan sartzeko prozesua ez da bat-batean gertatzen, aitzitik, faseka eratzen da, eta horietako bakoitzean gizonetako taldeari zuzentzen zaizkion zenbait eskari biltzen dira:

Lehen urratsa: Gizartera irekitzea.

Bigarren urratsa: Onarpena.

Hirugarren urratsa: Jarrera aldaketa.

Emakumezkoen aurrerapausoak lan esparrura iristeko beharrak eragiten ditu, funtsezkoa baita gizartean erabateko osotasunez integratzeko. Alderantziz, gizonak aldaketei aurka egiteko joera izango dute beren egoera ere aldatu beharrean aurkituko direlako; horregatik, emakumeen askapenerako mugimenduan zama bat da.

Gizonak oztopoak jarri nahi dizkio emakumeari bere emantzipazioan aurreratu nahi duen urrats bakoitzean.

Gizartera irekitzearekin aipatu nahi dugu gizonetako errekonozimendua emakumeek lan munduan parte hartzeko duten eskubidearekiko; horrek eremu horretan nagusi izan diren estereotipoak gaiztatuzea esan nahi du.

Arrazoizko objeziorik ez izan arren, dakigunetik badira zenbait jarrera emakumeek lortu nahi dituzten helburuak hutsaldu nahi dituztenak. Alde horretatik pentsatzen da:

- Femeninotasunari uko egiten diola ahal den moduan gizon izatea eta hark bezala ihardutea nahi duelako.
- Ez duela premia ekonomiko nahiz psikologikoagatik lan egiten, etxetik ihes egiteagatik baino.
- Emakumeak berekoikeriaz dihardu, dirua irabazi nahi baitu gero independizatu eta askatasun gehiago izateko.

Bigarren urratsari buruz onarpena hitza aipatzen genuen, bada, heziketan eta formazioan oinarrituta eskuratuko bazen ere, ez du haatik, jokabide oztopatzaileen faltarik:

- Aitortu aitortzen da emakume batek rol profesional bat aurrera eraman dezakeela, baina aurretiaz frogatu egin beharko duela uste da.
- Lankide gisa onartua izaten da, baina hor eratzen den harremana jokabide sexistekin kutsatua egongo da.
- Nahikoa zaila izan ohi da emakume bat nagusi moduan onartua izatea; aldi oro jartzen zaio zalantzan “nagusi” izateko, edo hobeto esan, “nire nagusi” izateko ahalmena.

Hirugarren urratsa, eta azkena, jarrera aldaketa da, gizonezkoengan gertatu beharko dena berdintasunezko sistema batera iritsi ahal izateko.

Emakumeak aurrera egin dutela eta integratu direla, ez erlatiboki baina modu absolutuan, aitortzearekin eskura daiteke prozesu honen azken muturrera iristea.

Gai honetan harrera ona erakusten duten gizonek ere izaten dituzte zailtasunak erabateko itzulia emateko:

- Emakumeen aurrerakuntzak konpetentzia handiagoa dakar; barrenean dagoen gogoeta da emakumeek lanpostuak kentzen dizkietela gizonezkoei.
- Gauza ez da emakumearen gaitasuna osoro asumitzea, baizik eta gizonezkoen gainetik ere jarri daitekeela onartzea.
- Begibistako premia dute gizonezkoek jarrera berriak ikasteko, eboluzionatzeko eta ohiko portaerak aldatzeko, lan arloan emakumea berdintzat hartzera hel daitezen.

4

EMAKUMEAK ETA ASTIALDIETAKO EREMUA

Beste ezer baino lehen azpimarratu nahi dugu gauza batek harritu gaituela, zera, emakumeen munduan astialdi kontzeptuak esanahi berezia duen arren, gai honetaz dagoen diskurtso sozialaren eskasia nabarmena dela.

Behar bada, konnotazio politiko gutxi izatea eta diskurtso sozial bat osatzeko garaian bigarren mailako gaia dela iriztea, egoera horretan eragina duten aldagaiak izan daitezke. Izan ere, landa lanean aritzean ohartu gara emakumeen askapen prozesua sektore batentzat lehentasunezko gaia den bitartean gainerakoentzat axola gutxikoa dela.

Hasierako gogoeta labur honen ondoren, gure analisia egiterakoan lagungarri izango dugun egitura azalduko dugu:

- Astialdiaren pertzepzioa eta balorazioa.
- Belaunaldiarteko analisia.
- Gatazka egoerak.
- Gizonak emakumeen astialdiaren aurrean.

ASTIALDIAREN PERTZEPZIOA ETA BALORAZIOA

4.1

Astialdiarekin zer gertatzen den aztertu aitzin behar-beharrezkoa da kontzeptu horren baitan dagoen gatazka adieraztea. Bada, zer da astialdia?

Printzipioz hiru erreferente ditugu, hirurak independenteak, eta horietan oinarriturik egituratzen da kontzeptu hori:

- Kultur maila.
- Tradizioa.
- Gaztetasunari lotutako kontzeptua.

Kulturaren ikuspegitik astialdiak badu zerikusirik pertsonarentzat aberasgarria izan daitekeen guztiarekin: irakurtzea, museoetara joatea, musika ona entzutea, e.a. Ikuspegi horrek aintzat hartzen duena astialdiaren kontzeptu elitistatzat har genezake.

Tradizioaren bidez gogoan hartzen dira gizonezkoak astialdirako dituen eskubideak. Betidanik lana etxetik kanpora egin duenez gero, astialdia izan dezake eta izan behar du, laneko buru-haustetik deskonektatzeko. Lanak ematen du, beraz, astialdia izateko eskubidea.

Bi erreferenteok, kultura eta tradizioa, astialdi produktibo bezala definitu dezakegu; zerbaite-tarako baliagarria da eta xede objetibagarri eta zehatzekoa.

Azkenik, gazteriaren aldetik datorkigun astialdiaren nozioa seinalatzen genuen. Ikuspegi horretatik kontzeptua ludiko bilakatzen da eta irudi hauek dakartzkigu: dibertsioa, festa, eromena, deskontrola, kanpaketa, parranda, etab., dibertsio soila, beste helbururik gabe.

Esan beharrik ez, horrek zerbait eskatzen digu, pertsonaren inplikazio osoa eskatzen duelako, espirituaren eta denboraren aldetik.

Baina erreferente horien aitzinean, nola kokatzen dira emakumeak? Makina bat problemarekin, noski.

Kultur mailan, belaunaldi berriak salbuetsiz, formazio maila pattala izateak eragotzi egiten die era horretako astialdietan egiazki parte hartzea. Nolanahi ere tradizioz bere ezaugarri nagusia ez da hori izan.

Bigarren erreferenteari dagokionean, hor oinarritzko problema bat agertzen zaigu, zera, gizonetzkoek beren denbora fase berezitueta egituratua duten bitartean emakumeek ezin dituztela denbora desberdinak bereizi, haien zatia lana etenik gabekoa dela. Are asteburuak ere, edo oporraldiak, lanerako izaten dira, familiari dedikatzeko eta hartaz arduratzeko. Denboraren antolamendu zirkular horri zor dio emakumeak etxetik kanpora lan egin arren astialdi bezala antola dezakeen tarte bat bera ere ez izatea.

Are gehiago, etxeko eremua aztertzen genuenean, etxekoandreak bere emantzipaziorako izaten dituen zailtasunen konponbideetako bat gizartean txertatzea zela esaten genuen, astialdian aurkitzen delarik proiektu sozial horri zentzua emateko funtsezko giltza.

Emakume landunek badute aukera emantzipatzeko kultura eta ekonomiaren aldetik, baina etxekoandreak funtsezkoa du bere astialdian erabateko garapena lortzea.

Astialdia du bide bakarra etxekoandre batek etxeko eremutik kanpo bere nortasuna osatzeko.

Azkenik, ohar pare bat egin nahi dugu astialdiaren pertzepzioaz eta haren balorazioaz. Horietako lehenak aipatzen ditu emakumeek beren astialdietan burutzen dituzten aktibitateak, beraiek adierazi digun bezala:

- Paseatzea.
- Itsas-labarrei begiratzea.
- Kartetan egitea.
- Lagunekin berriketan aritzea.
- Atsedean hartzea.
- Gimnasia egitera joatea.
- Jostea.
- Hondartzara joatea.

Ikus dezakegunez, emakumeek beren astialdietan modu oso apalean dibertitzen dira, kanpotik esaten den baino askoz ere modu apalagoan. Badirudi, horratio, ez dagoela lotura sendorik eskaintzaren eta eskaeraren artean; emakumeek beren astialdietarako nahi dutenaren eta gizarteak haiek egitea nahi edo espero duenaren artean.

Bigarrenik, estereotipo batzuk aipatu nahi ditugu estimazio desberdinetatik datozkigunak, aktibitate batean ari dena zer den, gizonetzkoa edo emakumezkoa, aktibitatea berbera izan arren. Horrela, adibidez:

- Bizikletan ibiltzea:
 - Gizona bada: “jostatzen ari da”.
 - Emakumea bada: “ariketa argaltzeko egiten du”.

- Hitzaldi batera joatea:
 - Gizona bada: “baditu kezka kulturaren aldetik”.
 - Emakumea bada: “ez duelako, noski, beste zereginik”.
- Ikuskizun bat ikustera:
 - Gizona bada: “ongi pasatzen du”.
 - Emakumea bada: “norbaiti laguntzeagatik doa”.

Beraz, beste ingurune batean kokatzen gara, non berriro ere jeneroaren balore tradizionalak tartekatzen diren; beste era batera esateko, astialdiaren eremua ere kutsatuta dago jeneroaren bereizketekin, gizartean maskulino eta femenino izatearen kontzeptuarekin.

BELAUNALDIARTEKO ANALISIA

4.2

Astialdiak izateko eskubidea, betidanik, gizonezkoen esku egon da, eta gure azterlan honetatik kanpo gelditzen diren arrazoiengatik, emakumeek ez zuten horretan sartzeko aukerarik izaten.

Emakumeak lan eremuan gero eta gehiago sartzeak eta gizartearen antolaketa egiturari izan den aldaketak bidea ireki dute, eta oraintxe bertan, teoriarik ez bada ere, emakumeek astialdiaz gozatzeko eskubidea aitortu aitortzen zaie.

Alde horretatik, kontuan hartu behar dugu gaztaroan, erantzukizun askorik ez izatean, astialdi handiagoak izaten direla. Dena den, ez da zilegi erkaketak egitea egungo egoeraren eta iraganekoaren artean, bada, lehen zegoen moduan gizartea behartua zegoen jendea lan eremura oso gazterik sartzera.

Horregatik, gogoan izan behar dugu une oro, belaunaldi bakoitzak abiapuntu desberdina izan duela. Eta adinekoen belaunaldiak une honetan astialdia errebindikatzen ari badira ere, gazteentzat berezko eskubidea da.

Horrela bada, historiaren eta gizartearen barnean bizitzea egokitu zaien momentuak eta egun duten egoera pertsonalak, bi faktore horiek markatuko dituzte belaunaldien arteko diferentzia nabariak.

LEHEN: Astialdia gizonaren puska bat zen.

“Kanpora ateratzea ez zitzaizun bururatu ere egiten senarrarekin ez bazen”.

ORAIN: Astialdia berezko eskubidea da, bai emakumearentzat eta baita gizonarentzat.

“Senarrak duen askatasun berbera zeure asmoa betetzeko”.

Belaunaldi nagusiarentzat astialdi kontzeptuak garrantzia hartzen du seme-alabak hazten direnean eta etxetik alde egiten dutenean; besteak beste, bere buruarekin aurrez aurre aurkituko delako.

Familiako eta gizarteko giroa eta emakumeek izan ditzaketen barne baliabideek baldintzatzen dute hasiera batean egoera berri horren aitzineko erreakzioa.

Zentzu horretan eta belaunaldi berean bi kolektibo guztiz ezberdinak aurkituko ditugu:

- Jarrera eraginkorra eta positiboa hartzen duten emakumeak.
- Etsipenezko jarrera hartzen duten emakumeak.

Lehenbiziko taldearen erreakzio positiboaren arrazoia da astialdiak bereganatzeak bere burua deskubritzeko balio izan diela.

Lan munduan ezin sartu izanak edo lan prekarioetan aritzeak bide ematen du astialdia auto-errealizazioa eta autobaloraziorako modurik egokiena bihurtzeko.

“Zuk zeure astia nola edo hala bete behar duzu eta betidanik gustatu zaizkizun gauzak egitea komeni zaizu seme-alabak joaten direnean”.

“Ama-lanetan aritu zaren bitartean egiteko modurik izan ez duzuna egiten ahal duzu orain”.

Hortaz, denbora indibidual gisa eratzen da testuinguru sozialaren barruan, oso modu pertsonalean bizitzen dena; senarra astialdiaren beste kontzeptu batean sartuko litzateke.

Norberaren astialdiak balio handiagokoa da senarrarekin partekatzen dena baino.

Etxe barruan burutzen diren aktibitateak izan badira, baina emakumeek beren autorrealizazio proiektuaren parte bat balitz bezala onar dezaten astialdia etxetik kanpora garatu behar da. Zerbait berezia egiten ari direla pentsatu behar dute.

Aktibitate motak, bi ardatz berezituaren inguruan biltzen dira:

- Formaziozkoak.
- Jostaketa arlokoak.

Gehien hedatu den joera prestigioduna —jakina, eskaintzarekin bat datorrena— formaziozko ihardueretan aritzea da, eta hortakotzat hartzen dira pertsonarentzat modu objetiboan aberasgarri diren gai guztiak.

Arront deigarria da mota horretako aktibitateen izaera, adibidez:

- edo didaktika adarrekoak dira.

Hau da, belaunaldi horretako emakumeen hutsarte kulturalak betetzen ahalegintzen direnak (eskola-graduata, hizkuntzak...),

- edo emakumeek etxean bete izan ohi dituzten eginkizunen betirakotze sinboliko bezala aurkezten dira: macramé, sukaldaritza, dekorazioa, e.a.

Horrekin ez dugu esan nahi baliorik ez dutenik horietan aritzen diren emakumeentzat, baina galdetzen duguna da, ea zein neurritaraino diren beren bizitza osoan garatu behar izan duten rol nekagarri horren askapen egiazko eta psikologikoa.

Jostaketa saileko aktibitateei dagokienez, aisiaren sailekoak dira, bestelako helbururik gabe; gazteen astialdiaren nozioa adierazten du.

Emakumeentzat balio handia du harreman pertsonalerako bide egokia delako, baina gizartearen onarpena aldatu egingo da helburu konkretu batez mozorrotzen den ala ez:

- Txango joanez gero, justifikatu egin beharko da katedral batera edo museo batera ikustaldi bat eginez.

- Mendira irtenez gero, haurrak eraman beharko dira aire sanoa har dezaten.
- Zinera joanez gero, komeni da filmea norbaitek gomendatzea, eta mezu sozial positiboduna edo hezitzailea izatea.

Era horretan sortzen den presioak, alde batetik, eta emakumeek beren erantzukizun guztiez erabat ahazteko kapaz ez izateak, bestetik, berekin dakarte horrelako aktibitateak burutzeko barne baliabide egokiak falta izatea, eskakizun isilpekoa badela jakin arren.

Bigarrenik eta adinekoan belaunaldiaren barruan orain ere, aipatzen genuen bazela emakume talde bat, lehenik eta behin, aurrez azaldutakoen pareko egoera izateko zoria duena, baina emakume horiek ez dira gauza aktibitate positiboak garatzeko.

Gehienbat etxeakoandreak dira, eta horiek astialdiaz duten kontzeptua betidanik egon da “familiaren aisialdiaz” lotua. Senarrari lotuak eta egokituak erabat, duten baldintza psikologikoaren kariaz ez dira gai pentsatzeko ere beretzat zentzurik izan dezakeen astialdi pertsonal bat egon daitekeenik ere.

Ez dira gai aktibitateetan aritzea pentsatzeko ere, eta horrekin batera senarrarekin ohituta haien jarrera guztiz pasiboa denez, etsipen osoan erortzen dira; *“borroka galdutzat”* jotzen dute.

“Senarrari baratzean ibiltzea gustatzen zaio eta niri ez, horregatik etxean gelditzen naiz”.

“Larunbatetan nekatuta dagoelako eta igandeetan futbola dagoelako, kontua da ia beti etxean gelditzen garela”.

“Asteburuetan paseatzera atera nahi dut baina nire senar hau ez dago etxetik ateratzetik, telebista eta patxada, horixe besterik ez”.

Egoera hori dramatiko bihurtzen da ohartzen baldin bagara emakumeen exigentziak astialdien barruan oso xumeak direla, adibidez, paseatzea, erosketak egitera ateratzea edo zinera joatea.

Talde honekin egin beharko litzatekeen lana ez da hainbeste zernolako eskaintzak egin asmatzea bide egokiak bilatzea baizik, berez ez dituzten barne baliabideen transmisio egokia izan dezaten.

Bitarteko belaunaldiari dagokionez, seinlatu behar dugu bereziki talde gatazkatsua dela, bere eboluzioan oztopo ugari aurkitzen duelako.

Seme-alaben hazkuntzaz gainera etxetik kanpora lana egiten badute lanaldi bikoitza izango dute, hortaz, edozein dela ere haien jarrera pertsonala, problemarik nagusienetakoa izango da astirik ez izatea aisi-aktibitateak burutzeko.

Bitarteko belaunaldiko emakumeak defizit handia du astialdiari dagokionez.

Senarrak etxeko lanetan eta haurrak heitzen laguntzeak edo ez laguntzeak garrantzia du, noski, baina benetan erabakigarria behin-betikoz bere astialdiaz jabetzeko emakumeen beraien jarrera da.

Ez dugu aztertuko hemen berriro emakumeen eginkizuna ama bezala, baina komeni da orotaraztea gertatzen zaizkion kontraesan barnekoak ezin konponduzko gatazka nola bihurtzen ahal diren.

Emakumearen gorabehera pertsonalak direla eta, bere astialdiari “kontzienteki” uko egi-tera behartuta ikusiko da.

Horrezaz gainera “ama onaren” kontzeptuaren inguruan gizartean dagoen presioak gaitzespe-neko jarrerak sortarazten ditu talde horrek burutzen ahal duen aisialdiko edozein aktibitatearen aurrean.

Gazteen belaunaldiaz berriz seinatu behar dugu etapa horretan hartu duela astialdiak arrakastarik handiena. Dena den, gogoan hartu behar da amatasun faktorea erabakigarria dela kasu batzuetan.

Astialdirako eskubidea logikoa eta naturala dela pentsatzeak, eta horrekin batera txosten honetan barrena azaltzen saiatu garen eboluzio sozialak, biak batera gatazkak desagertarazteko laguntza dira:

- Lagunarte gehienak mistoak izanez gero aktibitateak batera egiteko aukera gehiago izaten da.
- Emakume talde honetan “konplexurik” ez izateak, jarrera zinez aktiboak ugaltzen ditu.
- Erantzukizunik ez izateak, bide ematen diete haientzat astialdiaren paradigma den arloan bete-betean murgiltzeko: dibertsioan, beste inolako helbururik gabe.

Gazteen belaunaldiak astialdiari buruz duen jarrera erabateko askatasunaren aldekoa da.

Emakume gazteek jarrera kritiko berezia agertzen dute beste belaunaldietako emakumeengan somatzen duten jarrera pasibo eta etsipenezkoaren aurrean. Seguru aski bikoteari buruz haiek duten irizpidea, hots, askatasun-espazio bat dela, opresioak lekurik izango ez duena, eta horrekin batera “ama ez izatearen” egoerak, honako ideia hau bultzatzen du, emakumeek dutela arlo horretako erantzukizuna eta horren ondorioz, haien esku dagoela beren premiak betetzea edo ez betetzea.

GATAZKA-EGOERAK

Argi gelditu da, horratio, egon badagoela askatasun teoriko bat, baina emakumeek erantzukizunak bere gain hartzeko duten joeragatik beren astialdiak etengabe eta modu nabarmenean murriztuak gelditzen zaizkie.

Gatazka sorburu izan daitezkeen faktoreen artean honako hauek azpimarra genitzake:

- Amatasuna.
- Lan mota.
- Bizilekua.
- Gizartearen presioa.
- Norberaren kontzientzia.
- Senarraren presioa.
- Amatasuna. Familiaren barruan astialdiaz gozatzeko aukera eman ematen du baina astialdi pertsonala erabat mugatuz.

Seme-alabek hainbeste murrizten dute astialdia ezen emakumeei beste biderik ez baitzaie geratzen haiekin batera egoteko moduko aktibitateak egitea baino (lagunekin hitz egin, hondartzara joan, e.a.).

- Lan mota. Alde batetik “etxeakoandreak” teorikoki asti gehiago izan dezake, baina bestetik “emakume landunak” bitarteko gehiago izateko aukera du. Errealitatean, ordea, etxeakoandreak ez du horrenbeste astirik, eta kanpoan lana egiten duen emakumeak ere ezin ditu bere baliabideak etxeko erantzukizunetik bereizi.
- Bizilekua. Azaldu ditugun arazo horiek landa eremuetan bizi diren emakumeengan larriagotu egiten dira:
 - Kanpoko bitarteko gutxi dituzte oso.
 - Eremu hagitz itxiak direnez, haien aktibitateak presio sozial bortitzaren menpe daude.
 - Faktore horien arabera halako zurruntasun bat nagusitu da, eta horren ondorioz barne baliabide gutxiago izango dira.
- Gizartearen presioa. Aldi oro kontraesaneko mezuak jaulkitzen dituen:
 - Alde batetik presionatzen zaio astialdia okupa dezan, bestaldetik behartzen zaio ama eredugarria izan dadin, eta horrela denbora pertsonala bere esku izatea eragozten zaio.
 - Alde batetik aktibitate aberasgarriak egitera behartzen bada, bestetik aukerak ukatzen zaizkio edo ez zaio sarbiderik ematen kultura arloan.
- Norberaren kontzientzia. Emakumeek dituzten erantzukizunak asko direlarik, beretzako denbora izateko muga ugari izaten du. Barneratutako portaera-rolak errutasunaren sorburu dira, emakumeengandik espero dena betetzen ez den neurrian: etxea eta familiaren premiak asebetetzea.
- Senarraren presioa. Emakumeek astialdirako izan dezaketen edozein ekimen boikoteatzen ahaleginduko da:
 - Ezkon-betebeharrak “ahaztu” ez ditzan.
 - “Ikas” ez dezan gizonek ere har ditzaketela familiako erantzukizunak beren gain.

Beraz, badirudi zeregin bikoitza dugula aurrean, emakumeak bere buruetatik askatzea bai eta kanpotik jasotzen dituzten presioetatik ere.

Emakumeak egoera hori ekiditeko behar dituen trebeziak agian ez ditu “ingleseko klasean” aurkituko, beste motatako heziketarekin uztartzen delako. Baliabideak eman behar zaizkio helburu hauetarako:

- Bere denboraren egitura zirkularra hautsi eta beste bide batzuk irekitzeko.
- Bere iguripenak baloratzen ikasteko, kanpotik inposatu nahi dizkienetik argi eta garbi bereiziz.
- Senarraren aurrean beti galtzailearen jarrera ez izaten laguntzeko eta modu eragilean transmititzeko astialdiaren premia duela eta hartaz gozatzeko eskubidea.
- Aukera emateko bere etsipen jarrerak bazter ditzan eta bidea erakusteko bere erantzukizunak besteren gain lagatzean errudun sentitu ez dadin.

Azken buruan, biktima izatetik urrundu eta eskubide osoa duen gizaki sozial egin dadila.

GIZONAK EMAKUMEEN ASTIALDIAREN AURREAN

4.4

Emakumeek prozesu baten barnean eskuratu dute beren astialdia. Prozesu hori hiru maila ezberdinetan egituratzen da:

- Gizarteari irekitzea.
- Elkarrekin gozatzea.
- Askatasun indibidualak.
- Estereotipoak gainditu direnetik gertatu izan den irekiera soziala ongi hartu dute gizonezkoek, beti ere planteamendu razionaletik gehiago emakumeen eskubide legitimoen ikuspegitik baino. Haien kritika zorrotzak emakumeen garaipenak baloratzen direnean erabiltzen den tonu mespretxuzkoa du:

“Jada, gauetan parrandan ibiltzen hasiak dira”.

“Gizonak bezala mozkortzen dira”.

“Nahikoa askatasun dute”.

- Gozamen partekatua sortu da emakumeek beren bikoteari egin behar izan dioten presioari esker. Adeikor agertu nahi arren, gizonak ez dira gai konturatzeko emakumeen eskakizunak elkarrekin atera edo erosketak egitera joatea baino harantzago doazela. Esfortzu eta begirameneko parametroetan dekodetzen du, baina ez emakumeen egoera ulertzen duelako:

“Afaltzera eraman baloratu ahal izateko”.

“Egun osoan etxean egon ez dadin”.

“Bere eginkizunak zokoratzen ez dituen bitartean”.

- Azkenik, askatasun indibidualen lorpena emakumezkoen kontzientziatik bakarrik ezar daiteke: hau da, emakumeek berek astialdi indibidual eta senarrarengandik bereizita izateko premia bereganatu eta transmititu behar dute.

Gizonezkoa eskubide horretaz kontzientzia hartzera iritsi badadi ere ahaleginduko da askatasun osoa lor ez dezan; saiatuko da andrearen denborari ez baino bere denborari lehentasuna ematen:

“Egoera berdinean ni afaltzera joan banaiteke zu ere bai”.

“Baldin eta, oso maiz ez bada”.

“Jakinaraz diezadala”.

Nagusien belaunaldia bereziki lehenengo eta bigarren mailen artean kokatzen baldin bada, eta bitarteko belaunaldia berriz bigarren eta hirugarrenaren artean, badirudi gazteenek prozesu hori gainditu dutela. Eta halatan ezen emakumeen astialdi indibiduala aitortzeaz gain bere astialdiagandik zerbait independentea dela ere onartzen dute.

5

LABURPENA

lkerketa honen bidez emakumeen bizipenak ikuskatu eta aztertu nahi izan ditugu, bilakaera femeninoari dagokionez gizonezkoen iritziak ere kontutan hartuz. Modu horretako helburuak muga ugari ditu, hemen apuntatu beharrekoak analisi honetan erabili dugun filosofia azpimarratzeko:

- Emakume bakoitza mundu bat da. Kontzeptu orokorrak ezartzean arriskua izaten da errealtate hain anitza eta aberasgarria distortsionatzeko. Azterlan honen helburua ez da hainbeste bizipen horiek adierazpen eskemetan sailkatzea baizik eta emakume bakoitzaren prozesu indibidualean erreferenteak izateko bide ematen duten taldeko garapenaren femeninoaren lefro nagusiak hautematea.
- Ezinezkoa da dena biltzea. Oinarritzko azterlan bat gatazka guztietara ez daiteke iritsi; edozein ikerketak izan ohi dituen akatsei erantsi behar zaizkie emakumezkoen eboluzio guneari dagokionak. Ikarlan hau beraz, egin diren analisi eta ikerketa katearen beste katebegi bat izatea izango da. Alde horretatik, asmoa izan da ildoak urratzea gero sakondu ahal izateko eta datu estatistikoekin erkatzea.
- Ezinezkoa da talde bakoitzean sakontzea. Tipologia desberdinetan sailkatzeak bere arriskuak izaten ditu. Horretaz ohartuta, tratamendu orokor bat bururatu nahi izan da eta horretarako belaunaldiaren irizpidea erabili izan dugu soilik emakumeen inguruabar berezituak kokatu ahal izateko bide gisa. Era berean, gizartean esanahia duten talde batzuen ezaugarri berariazko batzuk azaldu dira, beti ere, pertinentea zela iruditzen ziren puntuetan.

Azterlan honen funtsezko ondorioa da, beste batzuetan bezala, bilakaera femeninoak bizipenezko zentzu eta konnotazio sakonak dituela, berdintasun ezeko egoeran dagoelako gizonarekin alderatuta. Gizartea beste arlo batzuetan ziztu bizian doa aurrera, baina erresistentzia nabarmena somatzen da sexuen arteko berdintasuna kontsideratzean.

Desoreka horrek ñabardura korapilotsuagoak ditu kontziente kolektiboak berdintasun eskubidea onartu bai baina portaera diskriminatzaileak erakusten dituenean. Gatazka ez dago ideietan, jarreretan baino, non kontzientziazioak esfortzu eta giza heldutasun dosi handiak behar baititu. Gauden etapa honetan introspekziozko planteamenduak behar dira, eta jarrera pertsonalen barne azterketa egin beharra dago.

Emakumeak, oro har, badaramate denbora bat egiteko horretan, eta horrela azkartu dute beren prozesua. Gizonek, alderantziz, askozaz mantxoago eboluzionatzen dute, atzera-aurrera dabiltzalarik beren ohiko rola betirakotzearen (“agintea”, “subiranotasuna”, “indarra”) eta emakumeen presioaren artean.

Horregatik aldagetaren sujetu aktiboak emakumeak dira, beren ohiko rolak bazter batean utzi eta egoera berrietarantz jo behar dutenak, gero gizonezkoak kontzientziazteko. Hauek beren abantailazko egoera gotorleku bihurtu dute, seguru aski, ez dituztelako aztertu ere egiten aldagetarekin lortuko lituzketen abantailak.

Berdintasun ezaren egoerari aurre egiteko emakumeek bi jarrera hartzen dituzte, biak emantzipazioaren aldekoak:

- **Besteekin alderatzekoak:** “berdintasuna”, “berdintzea”, “diferentziak murriztea”.
- **Norberaren baitakoak:** “protagonismoa”, “independentzia”, “bulkada femeninoa”.

Eta biak premiazkoak dira, pentsatzen baldin bada gizonak berarekin zerikusia duen zerbait bezala hartzen duela prozesu femenino hori, baina ez prezeski bere helburua balitz bezala.

Emakumeek lan arloan, hezkuntzan, formazioan eta plangintzan (antisorgailuak) izandako lorpenei esker maila guztietan gehitu dute beren independentzia eta autokontzientzia: ekonomian, pertsona gisa, gizartean eta kultur arloan... Hala eta guztiz ere partaidetza eta inplikazio handiagoa beharko da prozesua osa dadin.

Baina azterlan honen emaitzetatik baieztatu daiteke emakumeen borroka jarreraren esparruan ematen dela, lorpen sozial horiek sendotzeko bide gisa. Ere desberdinetan eskatzen ari diren eskubideei berdintasun planteamenduak erantzen zaizkie, pertsona gisa, ez bakarrik gizartean eta lan arloan eginkizun batzuk bere gain hartuko dituen sujeto gisa.

Aldaketaren adierazpen berri hori, ez helburuena, zer horiek beti eduki izan ditugu gogoan, ikerketa honetan jorratutako eremu guztietan somatzen da.

- “Etxeko lanak, Garbiketa”: etxeko lanetik askatzearekin batera etxearen eta emakumeek barneratuta dituzten jarreraren kontzeptua birplanteatu behar da. Ez da mugatu behar familiari laguntza eskatzera edo baten bat kontratatzea etxeko lanetarako.
- “Amatasuna”: emakumeen askatasun betea etorriko da “amaren” eredu berria eraikitzen bada, erruduntasun sentipenik gabe eta bere nortasuna garatzeko aukera izango duena. Arazoa zenbat seme-alaba nahi diren erabakitzea eta plangintza egitea baino zerbait gehiago da.
- “Ezkon-harremanak”: askatasuna aurkituko da berdintasunezko harremana eta independentzia pertsonalarekiko onarpena elkarrekin lotzen direnean. Ez da bakarrik botere rola kontsentsatzea.
- “Lan arloa”: askatasuna aurkituko da lanpostuetan emakumezkoen izaera garatzeko gaitasunetik abiatuta, bai eta balore maskulinoak edo femeninoak gainditzeko portaerak ezartzetik ere. Ez da sexuen eskubide eta aukeretara mugatzen.
- “Astialdia”: askatasunak esan nahi du espazio honetatik ohartzeko autokontzientzia lortzea, gizarterako sarbidea (etxekoandreen kasuan) eta lanaldi bikoitzaz libratzeko modua (etxetik kanpora lan egiten dutenak). Ez da asti gehiago izatera mugatzen.

Sakoneko eztabaida ez datza, beraz, emakume bakoitzaren egoera hobetzean, artean ere lan asko egin behar bada ere, baizik eta **egoera sozio-kulturala** —benetakoa— **eraldatzeko**, beste hitzetan esateko, baloreen eta jarreraren egiturak aldatzeko.

Gizartean eta lan arloan sartzearekin batera kultur eskemak aldatu behar dira, harako bereizketa hura, barneko baloreak emakumeen ezaugarri eta kanpoko baloreak gizonezkoen, zentzurik gabe gera dadin eta haiek sexu markarik gabeko erreferente gisa era daitezkeen. Horretarako nahitaezkoa da baloreak eta jenero balorazioak abiapuntuko sustrai biologiko eta zirkunstantzialetatik aske geratzea.

Emakumeek bizi duten prozesu horretan bereganatzen ari dira maskulinitzat jotzen diren baloreak, eta horrela osatzen dute beren garapena. Gizonak, ordea, ez du amore ematen, eta ez ditu balore femeninoak bere egiten, horrek, besteak beste, ondorio hauek ekarriko lizkieke-lako:

- Abantailak galtzea (sakrifizioa).
- Berdintasun handiagoko portaerak (esfortzua).
- Bere jarrerak aldatzea (heldutasuna).

Mugimenduak bateratzean egongo litzateke benetako oreka, baina itxura guztien arabera oraindik ere emakumeek berek, baina itxura guztien arabera, oraindik ere emakumeek berek bul-tzatzen dute batik bat sexuen arteko berdintasunaren aldeko prozesua, eta behar-beharrezkoa da gizonak ere zeregin horretan inplikatzeko.